ASTELEHENEKO
# Goienkaria
2009ko ekainaren 15a > Astelehena > VII. urtea > 237. zenbakia > Euro 1
www.goiena.net



"Funtzionatuko badu, herrialdeen Europa eraikitzea ahalbideratu behar da ditugun aukerekin"

**Juanjo Alvarez**
Nazioarteko katedraduna > 08

**G2a** **Txapa Irratiaren 'Kanpora begira' jai irekia** > 29

**INGURUMENA**
**Azken 20 urteotan behera egin du Urkuluko ahate kopuruak** > 03

**AZPIEGITURAK**
**700 lagunetik gora batu ziren Arrasaten AHTren kontra** > 04

**HERRI KIROLAK**
**Elosuko jaietan omenaldia egin zioten Goenatxo II.ari** > 21



HARRERA Bergarako pilotariak udaletxeko balkoian, atzo ilunkeran, sagardotegitik bueltan; bergararrek harrera beroa egin zieten eguneko protagonistei. JOSETXO ARANTZABAL

**PILOTA** > FINALA

# Bergarak irabazi du herri arteko txapelketa

**SENIORREK ERABAKI** Kadeteek irabazi eta gazteek galduta, finala seniorretako partiduak erabaki zuen

**BI TXAPEL** Atzo irabazitakoarekin Bergarak herri arteko bi txapel ditu; 1968an irabazi zuen bestea > 22-23

**EKONOMIA** > LANA

## 39 lanpostu sortzeko laguntzak

Aldundiak 351.000 euro emango ditu horretarako > 06

**OÑATI** > LASTERKETA

## Peter Kirui, berriro irabazle

Nazioarteko Herri Lasterketa irabazi du keniarrak > 24

**AURKIBIDEA**

**Debagoiena** > 04-05
**Ekonomia** > 06
**Auzoak** > 07
**Elkarrizketa** > 08
**Iritzia** > 10
**Herriak** > 11-20
**Kirola** > 21-28
**Kultura** > 29-32
**Sailkatuak** > 34-35
**Telebista-irratia** > 37
**Berri-zakua** > 38-39
**Azkena** > 40

**EUSKARA** > AED

## 'Denok elkarrekin', euskararekin

Euskaltzale asko batu zituen Biteri plazan Arrasate Euskaldun Dezagun elkartearen urteurreneko azken jaiak. Goizetik iluntzera arte adin askotako arrasatearrak dantzan, jokoan, jaten eta gozatzen egon ziren. > 13



Dantza gosez zeudenak asetu zituen arratsaldeko erromeriak. J.ARANTZABAL





Mundumirako pack-a. Nahi?

Zoaz 7. orrialdera


ZABALIK
75 dendatik eta 200 produktutik gora.
merkatua.net Debagoieneko denda handiena. Etxetik bertatik eskura.
MERKATUA.net
Debagoieneko denda



Urkuluko urtegiaren inguruan behatokiak daude besteak beste hegaztiak hobeto ikusteko. ANE IDIGORAS ('URKULU, LEIHO IREKIA / NATURALMENTE ARETXABALETA')

**INGURUMENA** > URKULUKO HEGAZTIAK

# Azken 20 urteotan behera egin du Urkuluko ahate kopuruak

**KOKALEKU ONA** Urkulu ez da garrantzitsua urtegia eta espezi asko izateagatik bakarrik; oso leku aberatsean dago eta landazabala eta basotxoak ditu

**AHATEAK** Urtegira joanez gero, ikusgarrienak dira anatidoak edo ahateak; handi xamarrak direnez, jendeak horiei erreparatzen dielako

**JAITSIERA** Ur azpiko landareekin elikatzen direnez, horiek gutxitzea izan daiteke Urkuluko hegazti kopuruak behera egitearen arrazoietako bat

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ARETXABALETA

Urkuluko hegazti populazioaren azken 20 urtetako aldaketaren gainean hitzaldia egin zuen joan den astean Naturgintza Fundazioko Mikel Olanok Arkupen.

Urte mordoa dira urtero Urkuluko hegaztien kontaketa egiten hasi zirela, eta batik bat anatido edo ahateen familiakoak behatu dituzte: "Datuetan ikusten da nola hasieran ez zuten kolonizatzen. Gero, ordea, pixkanaka hasi ziren eta ziklo emankor bat egon zen 1998tik 2003ra bitartean kopuru handiekin. Orain, ordea, beherakada nabarmena izan da", esan digu Mikel Olanok.

Gipuzkoako Foru Aldundiko basozaina da Olano eta honen esanetan, "Urkulu ez da garrantzitsua urtegia eta urtegiko espezieak izateagatik bakarrik. Oso leku aberatsean dago kokatuta. Ondoan dauka nahiko ondo kontserbatutako landazabal bat bere larreekin, hesiekin… eta horretaz gain, basotxoak… ere badauzka. Hortaz, ez da gauza bera urtegi hori beste edozein tokitan edo leku zehatz horretan kokatzea".

Urkulun espezie pila bat daude, bai uretakoak baita landazabaletakoak ere, baina batik bat ahateak: "Urtegira joanez gero ikusgarrienak dira anatidoak, ahateak. Handi xamarrak direnez, jendeak horiei erreparatzen die. Orain gutxiago, baina garai batean negutar moduan erabiltzen zuten Urkulu. Hau da, Europako goi aldean jaio eta negua pasatzera hegoaldera etortzen dira, tartean Urkulura".

**AHATE FAMILIAKOAK NAGUSI**

Negutar diren aldetik dauka garrantzia Urkuluk ahateentzat; eta Mikel Olanok dioenez, "kumagile moduan ere badira espezieak, esaterako, murgil handiak kopuru politetan umatzen du Urkulun".

DATUA

**100**

**HEGAZTI**

1998 aldera anatido dezente hasi zen ikusten Urkulun eta 2003ra bitartean iritsi ziren 1.700 hegazti kontatzera. Orain asko jaitsita dago eta gutxi gorabehera 100 ahatekoa da kopurua.

Hori ahateei dagokienez, baina paseriformeak, hegaztien ordenarik zabalenekoak, asko eta asko ibiltzen direla ere jakinarazi digu; horietatik batzuk babestuak dira gainera, landazabalarekin harremana dutenak.

Basozainak esan digu urtean barrena 125 espezie-edo izaten direla eta horietatik 36 babestuak. Horrela zerrendatu dizkigu Urkulun ikus daitezkeen hegaztiak: "ahateen artean daude kopeta zuriak, murgilari arruntak, murgilari mottodunak, murgil handiak, txilinporta txikiak, lertxunak, lertxun gorriak, ubarroiak, basahateak, ipar ahateak, ahate moko zabalak, ahate gorrixkak… Antzarak garai batean neguan ohikoak izaten ziren, eta orain tarteka".

**BEHERAKADAREN ZERGATIAK**

Bada jendea Urkulura joaten dena apropos hegaztiak ikustera eta horretarako propio ipinita daude behatokiak, baina basozainaren ustez, azken urteotan asko gutxitu dira. Jaitsieraren zergatirik ez dago ziurtatuta, baina badira hainbat hipotesi: "Karramarroek edo karpek jaten dituzte ur azpiko landareak eta uraren kalitatea aldatzeak ere eragina du ur azpiko landaretzan. Hori denez hegaztiek jaten dutena, ez dute Urkulu bizileku moduan nahi. Urtegi ertzetan ere larrea egotetik sastrakak izatera pasatzeak izan lezake eragina".

Ahateak gutxitu arren, hegazti espezie asko bizi da oraindik Urkulun; hortaz, txoriak ikusi nahi dituenak badu toki egokia.



Antzarak hegan Urkulun. IÑAKI ETXEBESTE



Kopeta zuria uretan. MIKEL OLANO



Lertxun Hauskara. M. O.



Murgil Handia Urkuluko uretan. I. E.



Txilinporta txikia urtegian. M. O.

**AZPIEGITURAK** > ABIADURA HANDIKO TRENA

# Ozen esan dute AHT ez dutela gura Arrasaten

700 lagunetik gora batu ziren atzo Arrasaten; azpimarratu zuten lanak 'hasi berri direla eta oraindik AHT gelditu' daitekeela



Manifestazioa Arrasateko kaleetan. JOSETXO ARANTZABAL

**IKER BARANDIARAN** > ARRASATE
Atzo, domeka, AHTren kontrako kale agerraldia egin zuten Arrasaten. Arrasateko AHT Gelditu Elkarlanak antolatu zuen eta atzokoak hainbat ekitaldi batu dituen kanpainari bukaera eman zion. Erantzuna oso ona izan zen antolatzaileen esanetan; hain zuzen ere, 700 lagunetik gora batu ziren herri mailan antolatutako kale agerraldian.

**KONTRA EGOTEKO ARRAZOIAK**
Manifestazioa bukatzean, Seber Altuben hitza hartu zuten antolatzaileek, eta proiektu horren kontra egoteko zortzi arrazoi zerrendatu zituzten: konpon ezinezko kaltea ama lurrari; lurralde desoreka areagotu; tren garraio zerbitzu unibertsalari kontra; gastu sozialaren murrizketa; trafiko eta garraio arazoak konpondu ez; lan prekaritatea areagotu eta industrien deslokalizazioa erraztu; neoliberalismoa indartu; eta inposatutakoa dela.

Antolatzaileek berbagai izan zuten Iparraldean AHTren linea gelditzeko erabakia. Horrez gain, elkartasuna adierazi zieten Arrasateko lurjabetzatan eta Untzillan protesta ekintzetan esku hartzeagatik epaiketak dituztenei, eta baita Aramaioko alkate Asier Agirreri ere.

Gizarte laguntzarako Prestakuntza

kutxa Zabal Deba

UNED BERGARA

ALZHEIMER GAITZA DUTENENTZAT ZAINTZA BEREZIA

**HASIERA:** 2009ko irailak 3.
**EGUNAK:** astezkena, osteguna eta ostirala.
**ORDUTEGIA:** 17:00-21:00
**IRAUPENA:** 100 ordu (irala eta urria)
**EPEA:** 2009ko maiatzaren 15etik ekainaren 30era.
**PREZIOA:** 100 €. Metatu ezingo den %25eko deskontua izango dute (ziurtagiria aurkeztuz):
- Langabezian dauden EINen izena emandakoek.
- Kutxaren bezeroek.

**INFORMAZIOA ETA IZEN-EMATEA**
Bergarako UNED. *Gizarte laguntzan Trebatzeko Eskola.*
Tel.: 943 76 90 33
Matrikula internet bidez egiteko: ***www.uned.es/ca-bergara***

zer nahi duzu bihar?
www.kutxa.net
kutxa

**LAPURRETAK** > BASERRIETAN

# Ustezko bi lapur atxilotu dituzte

Arrasateko Gesalibar eta Eskoriatzako Zarimutz eta Mazmela auzoetako baserrietan ostea egozten diete

**I.B.** > ARRASATE
Bergarako ertzain-etxeko agenteek 41 eta 49 urteko bi emakume atxilotu zituzten eguen arratsaldean, astean hiru lapurreta egin izanaren akusaziopean.

Lehenengo lapurreta eguaztenean, 14:00ak aldera izan zen Arrasateko Gesalibar auzoko baserri baten. Bi emakume artilezko saku batzuk furgoneta baten sartzen zebiltzala, jabeak zertan zebiltzan galdetu zien. Une horretan emakume batek laban bat atera eta jabea mehatxatu zuen; hala, alde egin zuten.

**HIRU BASERRITAN**
Ertzaintzak jakinarazi duenez, bigarren lapurreta arratsalde berean gertatu zen Eskoriatzako Mazmela auzoko baserri batean. Ustezko lapurrak egurrezko uztarri bat Renault Express baten sartzen saiatu ziren, baina jabeak ez zien utzi.

Azkenik, 21:00ak aldera, Eskoriatzako Zarimutz auzoko baserri baten sega-makina bat ostu ei zuten.

Salaketak jaso ostean, ustezko egileak identifikatu eta Ertzaintzak bi emakumeak atxilotu egin zituen. Ertzaintzak Jakinarazi dutenez, atxilotuetako emakumeek polizia aurrekari ugari dituzte.



J.ARANTZABAL

## Euskarazko idatzia, ezabatuta

Herritar talde batek jakinarazi digu astean Oñatin unibertsitate inguruan dagoen kartel baten ezezagun batzuek euskaraz idatzitako testua ezabatu dutela. Herri irteera euskaraz eta gazteleraz jartzen zuen bertan, eta norbaitek euskarazkoa ezabatu du. Herritarrek esan digute halako jarrerak "lotsagarriak" direla.

> LEHIAKETA

## Debagoieneko Ospitaleak poster onenaren saria irabazi du Espainiako Ospitaleen Kongresuan

Debagoieneko Ospitaleak Caceresen ekainaren 2a eta 5a bitartean ospatu zen Espainiako Ospitaleen Kongresuko poster lehiaketan esku hartu zuen eta lehen saria irabazi zuen. 1.400 profesionalek hartu zuten parte, eta Debagoienekoa beste 550 posterrekin lehiatu zen.

Poster sarituak irudikatzen du erakunde barruan erabiltzen den komunikazioa, EFQM sistemaren filosofiari jarraituta. Hala, azaltzen du eritetxean lan egiten duten pertsonen kohesioa eta inplikazioa lortzeko abian jarritako komunikazio esperientzia berria. Ospitaleko gerente Jose Luis Angulok nabarmendu zuen "langileen kalitate maila oso altua" dela.

**AZPIEGITURAK** > AZKOITIA-URRETXU ERREPIDEA

# Herritarren parte hartzea errepidea eraberritzeko

Foru Aldundiak, MUrekin eta bidea pasatzen den herrietako Udalekin elkarlanean, GI-631 errepidearen trazatua definituko du



Antzuolako eta Bergarako alkateak egitasmoaren aurkezpenean. GOIENKARIA

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

Azkoitia eta Urretxu arteko 13 kilometroko GI-631 errepide zatiaren trazatua definitzeko, herritarren parte hartzea bultzatuko duen esperientzia ipiniko du abian Gipuzkoako Foru Aldundiak datozen hilabeteetan, Mondragon Unibertsitatearen eskutik eta bidea doan herrietako udalen laguntzarekin, tartean Antzuolakoa eta Bergarakoa.

Eraberritze proiektuaren hasierako azterketa egin du Eptisa-Cinsa enpresak, eta 27 soluzio tekniko proposatu ditu.

**HERRITARREKIN LAN SAIOAK**

Errepidearen trazatua eta ezaugarriak erabakitzeko proposamenik egokienak definitzeko, 18 urtetik gorako 50 herritar aukeratu eta lan saioak egingo dituzte.

GI-631 errepidea hobetzeak ekarriko du Urola Erdiaren eta Urola Goienaren eta Goierriren arteko lotuta hobetzea.

Azkoititik Urretxuko udalerrian, Zumarragako saihesbidearen hasierarainoko zatia hobetzeko aukerak aztertzea da helburua; izan ere, ibilbideak bihurgune asko ditu. Hobekuntzekin nahi da Urola bailara hegoaldera eta gaitasun handiko sarera lotzea , eta honen bidez N-Iera eta AP-1era.

**HEZKUNTZA** > UNIBERTSITATEA

## Bergarako UNEDek Bolognara egokitutako 13 titulu eskainiko ditu datorren ikasturtean

Espainiar estatuan gradu gehien abian ipini behar dituenetako unibertsitatea da

I. A. > BERGARA

Bolognako planera egokituko dituzte datorren ikasturterako Bergarako UNEDek eskaintzen dituen 28 titulazioetatik 13: Ingeniaritza Tekniko Industriala; Ingeniaritza Mekanikoa; Ingeniaritza Elektrikoa; Ekonomia; Zientzia Politikoa eta Administraziokoa; Soziologia; Gizarte Hezkuntza; Hizkuntza eta Literatura espainiarra; Ingeles ikasketak; Hizkuntza, Literatura eta Kultura; Filosofia; Geografia eta Historia; Artearen Historia; eta Psikologia.

**BESTE 15 TITULAZIO**

Europako ereduak ikasleen ebaluaketarako UNEDek jadanik erabiltzen dituen metodoak jarraituko ditu eta dinamika da hori barneratua izatea abantaila da.

2020-2011 ikasturtean falta diren 15 titulazioak ere plangintzan sartzea da asmoa, baina jarraituko dute titulazio tradizionalak eskaintzen eta etengabeko ikastaroak zabaltzen.

etxeko leihotik



Ubane Madera > 'arrasate@goiena.com'

## Ateak itxi aurretik, hobe bi bider pentsatu

Kezkatu egin ninduen, eta nahikotxo gainera, entzuteak Frantziak iragarri zuenean ez zutela egingo Abiadura Handiko Trenari dagokion Iparraldeko zatia; Iparraldekoa eta apurtxo bat goragokoa, egia esan. Gero, pare bat egun geroago-edo, Espainiako gobernuak esan zuen baietz, egingo zutela zati hori, Frantziako gobernuaren gutun bat dutela hori esaten.

Batek daki zer gertatuko den azkenean. Baina atentzioa ematen duena da hemen horren seguru eta ezinbestekotzat bailitzan *saltzen* duten proiektua Frantziako gobernuak zalantzan ipini izana. Are gehiago, Espainiako Estatutan tren horren kontra egiteak terrorismo akusazioa ekar lezake berarekin.

**"Atentzioa ematen du Frantziak AHT zalantzan ipintzea"**

Polemiketan sartu barik, kontutxo bat azpimarratu edo eskatu nahiko nieke agintariei (eta berdin da zein koloretako agintariak diren): Mesedez, halako proiektu erraldoiak eta ingurumenean eta inguruko bizilagunengan horrenbesteko eragina duten azpiegiturak egin aurretik, ondo aztertzeko egoera guztiak. Eta guztiz seguru izan arte, ez hasi ezer eraikitzen eta, batez ere, mendiak zulatzen. Behin halakoak eginda, ez dago-eta atzera bueltarik.

AP1 autobidea ere hasi da, adibidez, zalantzak eragiten. Zergatik? Ba Leintz Gatzagatik aste barruan pasatuz gero, autopista ez zegoeneko ia zirkulazio maila bera dagoelako.

**> Galdetu**

**Atzera bueltarik ez duten, azpiegitura erraldoiak diren eta ingurumenean izugarrizko eragina duten errepide, eraikin edo bestelakoak egiten hasi baino lehen herritarrei galdetzea ere ez litzateke ba txarto egongo**

**> Trena kendu**

**Ni umea nintzela kendu zuten Debagoiena eta Debabarreneko Soraluze herria zeharkatzen zituen trena, ohiko trena; hori ere egin zuten eta horrek ja ez du atzera bueltarik; akaso hobeto aztertu izan balute…**

**Joan Jimenez** > Brandin eta 2.0 komunikazioaren esploratzailea

# "Denok gara marka; besteek guri buruz uste duten hori"


Joan Jimenez, brandinean aditua. AZK

GOIENKARIA > BERGARA

**AZK-k eta Mondragon Unibertsitateko Enpresa Zientzien Fakultateak antolatuta, eguenean, hilaren 18an, brandinaren gaineko jardunaldiak izango dira Kursaalean. Joan Jimenezek *Zu zure marka zara* hitzaldia egingo du.**

**Zer da brandina?**

Teknika bat da marka egitea ahalbideratzen duena. Marketinaren helburua saltzea den moduan brandinarena da jendeak ezagutzea norbera denarengatik.

***Zu zure marka zara* hitzaldia egingo duzu. Zer adierazi nahi duzu horrekin?**

Sareko gune sozial batean norbanako bakoitza marka bat da agentzia bat eta komunikabide bat. Helburua da jendeak ikustea errealitate berri bat bizi duela eta horren arabera jokatzea. Denok bihurtu gara marka; marka delako besteek guri buruz uste dutena. Internet sozialak sortu du gizarte digital bat eta saiatu behar gara denek ikas dezaten nola funtzionatzen duen. Norberak ikasi behar du bere marka gidatzen, beste inork gidatzeko zain egon gabe.

**Badakigu gure marka gidatzen?**

Ez gara kontziente marka garenik. Esku artean ditugun tresnek boterea ematen digute, baina era berean baita ardura ere. Beste marken parean gaude eta errespetuz jokatu behar dugula, baina komunikatu ezean ez ditugu beste errealitateak ezagutuko, hortaz, esperimentatzea, eguneroko aldaketetara moldatzea da kontua.

**EKONOMIA** > LANA

# Udal zerbitzuetan 39 lanpostu sortzeko dirulaguntza izango da

Foru Aldundiak 351.000 euroko dirulaguntza onartu du Debagoienean 39 lanpostu sortzeko

Baldintza bat da Gipuzkoako Enplegu Zerbitzu Publikoan langabe moduan apuntatuta egotea



Lorezain bat loraategi publiko baten lanean; hori da promozionatuko diren enplegu motetako bat. GOIENKARIA

**LEIRE KORTABARRIA** > BERGARA
Debagoieneko zazpi herritan udalek ematen duten zerbitzuaren inguruko 39 lanpostu sortzeko 351.000 euroko dirulaguntza onartu du Gipuzkoako Foru Aldundiak.

Neurri hori hartu du Foru Aldundiak maiatzaren 19ko 13/2009 Foru Dekretuaren bitartez, eta udaletako zerbitzu publikoen kudeaketari dagozkion jardueretan enplegua bultzatu nahi da. Horretarako, 2006 bukaeran 1.000 biztanle edo gehiago zituen Gipuzkoako udalerri bakoitzarendako lanpostu kopuru bat eta dirulaguntza bat finkatzen ditu, herri bakoitzean aurtengo otsailean zegoen langabe kopuruari begiratuta. Guztira, hiru milioi euroko dirulaguntzak banatuko ditu Aldundiak.

**GUTXIENEZ, URTE ERDIRAKO**
Langabeak gutxienez sei hilabetez aldi baterako kontratatzea aurreikusten da, eta kontratazioak irailaren 15a baino lehen hasi beharko dira.

Jarduerak, batez ere, honakoak izango dira: kultura eta turismoa dinamizatzeko programak; parkeak, lorategian eta inguruneko babes berezia aitortua duten guneak zaintzeko lanak; kirol jarduerak; animaziozko eta gazte informaziozko proiektuak; herrilan eta instalazioak mantentzeko zerbitzuak; informatika eta telekomunikazioak; liburutegi,, artxibo eta museo zerbitzuak; eta administrazioa.

Onuradun izateko, Gipuzkoako Enplegu Zerbitzu Publikoan langabe gisa izena emanda egon behar da, eta honako lehentasun irizpideak izango dira: hautapen data aurreko sei hilabeteen barruan langabezia laguntza amaitu izana; azkeneko lan harremana enplegu eskaintzaren data aurreko urtean amaitu izana; langabezia laguntzarik ez jasotzea; lanpostuari dagozkion trebetasunak izatea; familia karga handiagoak eta familia errentako ratio txikiagoa izatea; eta emakumea edo desgaitua izatea.

## Kontratuak eta dirulaguntza, herrika

| HERRIA | LANGABEZIA (OTSAILA) | KONTRATU KOPURUA | DIRULAGUNTZA |
|---|---|---|---|
| ANTZUOLA | 94 | 3 | 27.000 € |
| ARETXABALETA | 363 | 4 | 36.000 € |
| ARRASATE | 1.442 | 13 | 117.000 € |
| BERGARA | 711 | 7 | 63.000 € |
| ELGETA | 46 | 3 | 27.000 € |
| ESKORIATZA | 266 | 4 | 36.000 € |
| OÑATI | 440 | 5 | 45.000 € |
| **GUZTIRA** | **3.362** | **39** | **351.000 €** |

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia

Salneurri gomendatua Ford Mondeo Econetic TDCi 125 ZP., USB Trend eta Convers paketeekin, BEZa, garraioa, sustapeneko deskontua, matrikulazio zerga, 2000E plana eta kontzesionarioaren ekarpena barne. Hilabete bukaera arte baliagarria izakinak agortu arte. Ikusten den modeloa ez dauka zertan izan eskaintzen dena.
Mondeo gama, batez besteko kontsumoa: 5,7-9,3 l/100km. $CO_2$ igorpenak: 151-222 g/km.



auzorik auzo

**AZKOAGA** > Aramaioko Azkoaga auzoa, haranaren ekialdean dago. Hego-ekialdean, Induspeko Haitzetatik hasi eta Marotoraino, Leintz bailararekin muga egiten du. Beste bi auzune ere baditu, Zabola eta Altza.

**Loli Lasaga** > Azkoagako auzo-alkatea

# "Trena da auzotarren arazo nagusienetarikoa, ardura asko ematen digun gaia da"

ARANTZAZU EZKIBEL > ARAMAIO

**Loli Lasaga azkeneko bi urteetan da Azkoagako auzo-alkatea. Gustura dabil, izan ere oso auzo bizia dela dio. Zerbait aipatzekotan, bereziki aipatu gura ditu auzotarrak: "Jende alaia eta lanerako prest" daudenak direla dio.**



Loli Lasaga Azkoaga auzoko plazan, San Juan parrokiaren aurrealdean. A.EZKIBEL

**Auzo bizia da Azkoaga; horren adierazle da gero eta gazte gehiago dagoela.**

Azkoaga auzoan sartzen dira baita Zabola eta Altza auzuneak ere. Gaur egun 40 baserri inguru daude auzoan, eta biztanleak 144 gara: 73 gizon eta 71 emakume.

Biztanle kopuruak gora egin du azkeneko urteetan. Batez ere, gero eta ume gehiago dagoela esan behar da –batez ere Zabolan–. Hori gertatu da bikote gazteak etorri direlako; hortaz, auzoa hutsik geratzeko arazorik ez dugu.

**Azkenaldian, Abiadura Handiko Trena izan da auzotarren kezka nagusia?**

Bai, trena da auzotarren arazo nagusia. Ardura asko eman digun gaia da. Auzoaren ondoan 800 metro koadroko PAET bat eraiki behar dute. Argi dago trena geratzerik ez dagoela, hortaz gura duguna da PAET hori hemen ez egitea.

Elkarte bat sortu genuen trenaren ondorioen inguruan lan egingo zuena. 40 familiak osatzen dugu elkarte hori. Orain arte gure kuotekin egin diegu aurre gastuei; baina, iritsi da momentu bat ezin dugula aurre egin.

**Eta orain beste kezka bat sortu da goi-tentsioko linearekin.**

Bai, oso kezkatuta gaude; oraindik, baina ez dakigu gauza askorik. Aurre proiektuaren arabera, aukera bat da goi-tentsioko linea hemendik pasatzea.

**Egunerokotasunean, zelan daude auzoaren beharrak?**

Gasa, adibidez, kanalizatuta dago Zabolan. Guk ikusten dugu Azkoagan ere komeniko litzatekeela lan hori egitea.

Bestalde, negu partean elurra egiten duenean arazo batzuk izaten ditugu, baina hori normala izaten da.

**Auzora datorren bisitariari zer gomendatuko zenioke ikusteko?**

Auzoan dagoen ikusgarriena paisaia dela esan daiteke. Auzoa toki ederrean dago, eta ingurunea ere oso polita da. Bestalde, Santa Agedatxo baseliza dago eta erdialdean San Juan parrokia.

Aipatu nahiko nuke, baina, auzoak duen onena bertako jendea dela. Auzoko paisaia aldatuko digute, baina ez gure izateko modua.

**San Juan jaiak ospatuko dituzue, hortaz, laster.**

Bai, San Juanak ospatzen ditugu auzoan. San Juan bezperan parrillada egiten dugu: txorizoa, odolkia... Giro oso polita sortzen da eta ohiko bilakatu den ekitaldia da dagoeneko. Bestalde, San Juan aurreko zapatuan auzo-afaria egiten dugu, eta domekan meza, *lunch*-a, kontzertua auzoko umeekin... izaten dugu. Aurten ekitaldi berezia egingo dugu: paperezko hegazkin txapelketa egingo dugu, eta saria izango da parapentean hegaldi bat.

**"Orain, goi-tentsioko lineako aurreproiektuarekin gaude kezkatuta"**

**"Jaietan paperezko hegazkinen txapelketa egingo dugu eta saria parapente hegaldia da"**

**San Adrian ermitara ere bertatik joan daiteke. Noiz ospatzen dituzue jaiak?**

Azkeneko 35 urte hauetan abuztuko azkeneko larunbatean ospatu izan ditugu jaiak, baina azkeneko bi urteotan hori aldatu egin da. Azpimarratu gura dut, aurten berriro ere abuztura pasako dugula jaia, baina abuztuko azkeneko domekara.

Ermitatik irtenda, ibilbide polita egin daiteke Asentzio eta Untzilatik pasatuta. Samur egiteko moduko bidea da, gainera.

**Azkoaga auzoak eman du pertsonai famaturik?**

Tomas Axpe Uribe (1885-1962) Bolibiako Kotxabanbako gotzaina izan zena Azkoaga auzoan jaiotakoa zen.

ASTELEHENEKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedunen txokoa
Ekaineko zozketa

Sariak irabazteko
HARPIDETU!
Tel.: 943 08 10 50
*harpidetza@goiena.com*
Kuota: 40 euro

MUNDUMIRA PACK-A
Mundumira
Mundumirako pack-a.
BIDALI AG MUNDUMIRA 5533 zkra.


UMEENTZAKO PUZZLEA
Ikastolen Elkartea
Argitxo eta bere lagunen puzlea.
Bidali AG PUZZLEA 5533 zkra.


KAMISETA
skunkfunk
Skunkfunk kamiseta bat.
BIDALI AG KAMISETA 5533 zkra.


PENDRIVE
Goiena
Goienako Pent-Drive bat.
BIDALI AG PENDRIVE 5533 zkra.


SARI NAGUSIA
PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA

BELAONTZI BATEAN IRTEERA HONDARRIBIATIK

J.L Abuinen eskutik
J.L ABUIN / PUY BIDEBURU
25 urtetan teknika naturalak zure eskura jartzen
Mendia jauregia 639 02 47 14
S. Josepe, 10 943 77 01 33
Kiroldegia 943 77 16 77

SMSaren kostua: 0,60 euro + BEZa dei bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: *harpidetza@goiena.com*

Zumaiarra da sortzez Juanjo Alvarez; Europako Zuzenbidean katedraduna, eta ondorioz, Europako kontuetan aditua. Euskal Herria ongi ezagutzeko aitzakiarik ez du, egunero dabilelako hara eta hona; orain, Bilbon, gero Donostian, eta hurrengoan Bergaran, eskolak ematen. UNED-eko zuzendari ere bada; harekin hitz egitean Europarekiko duen gertutasuna helaraztea lortzen du.

**Juanjo Alvarez** > Nazioarteko Zuzenbidean katedraduna eta UNED-eko zuzendaria

# "Funtzionatuko badu, herrialdeen Europa eraikitzea ahalbidetu behar da"

MIREN ARREGI > OÑATI

**Nazioarteko Zuzenbidean doktorea eta katedraduna da Juanjo Alvarez Euskal Herriko Unibertsitatean, eta Eurobasque-ko Europako Mugimenduaren Euskal Kontseiluko Idazkari Nagusi ere bada. Joan den domekan izan ziren Europako hauteskundeez mintzatu gara harekin, emaitzen eta etorkizunaren gainean.**



Juanjo Alvarez Europako Zuzenbidean aditua eta UNEDeko zuzendaria da. IKER BARANDIARAN

**Eskumak irabazi ditu Europako hauteskundeak eta eskuin muturreko alderdiek ere nabarmen egin dute gora? Nola ulertu?**

Faktore askoren eraginez gertatu da hori. Lehena, Europako parlamentuan eskuinak duen nagusitasuna; izan ere, orain 100 eserleku gehiago ditu ezkerrak baino, nahiz eta eskuinaren barruan zatiketa dagoen. Britainiako kontserbadoreek irten gura dute Europako talde popularretik; eta bestetik, eskuin muturreko talde txikiak ere badira. Baina guztien gainetik dago eskuinarenganako tendentzia bat.

**Krisi egoeran ere tendentzia aldatu ez izana ez da arraroa?**

Harrigarria da. Atentzioa ematen dit krisia errezeta neoliberalen ondorio dela badakiten hautesleek krisi horri aurre egiteko gai diren alderdiak eskuinekoak direla pentsatzeak. Dena dela, uste dut politikan gehienetan gertatzen den moduan horren zergatia ez dagoela eskuinekoek egiten dituzten merituetan, baizik eta ezkerraren demerituetan. Ezkerrak birus bat du, eta aurrera egitea oztopatzen dio. Bestetik, uste dut ezkerrak errepresentatzen duen sozialdemokrazia zerbait epela dela eskuinaren proposamenen eta ezker ekologisten proposamenen aurrean.

**Ekologistek eta komunistek gorakada nabarmena izan dute Frantzian. Etorkizuneko joera baten abiapuntua ala zerbait oso isolatua da?**

Zerbait oso isolatua dela esango nuke. Frantziak klase sentimendua duen ezkerra du, Espainian eta Euskadin galdu egin dena. Euskadin eztabaida ez da ezkerra edo eskuina. Hemen ez dago benetako klase kontzientziarik eta jendeak Alderdi Sozialistari edo Alderdi Popularrari ematen dio botoa, segun eta haizeak nondik jotzen duen. Frantzian gauzak desberdinak dira baina horrek ez du Europa osorako balio, zerbait isolatua da.

**Gizarteak uste du eskuinak krisia kudeatzeko gaitasun gehiago duela?**

Ez du logika ulergarririk, baina izan daiteke erdiko eskuinak hori kudeatzeko gaitasun handiagoa agertu izana. Ezkerreko alderdietan ez dago maniobra kapazitatea duen lider karismatikorik une honetan, eta eskuindarrek badituzte: Jean-Claude Junckes Luxemburgon, Merkel Alemanian, Sarkozy Frantzian... eta horrek tirakada bat irudikatzen du. Ezkerrak dituen politikoez gogoratzea ere zaila egiten da.

**Abstentzioa ere handia izan da. Europa benetan existitzen da herritarendako?**

Kontutan izan behar da lehenik, Estatu Batuetako azken zortzi hauteskundeetan botoa eman zutenen kopurua baino –Obamamania salbuespen –askoz parte hartze handiagoa izan dela Europako hauteskundeetan. Gainera, Europako herrialde askotan, ez da normalean %30tik igotzen boto emailen kopurua, ez dute botoa ematera joateko ohiturarik. Horretaz gain, esan duzun moduan, zertarako balio duen garbi ikusten ez den zerbaitek ez du tentsio elektoralik sortzen.

**Izan ere, zer da zehazki Europan erabakitzen dena?**

Lehenik eta behin, aurrekontuak zehazten dira eta, horretaz gain, Europako politika energetikoa ere erabakitzen da; Inmigrazio kontuak ere bai, eta baita, elikaduraren edota modelo sozialaren arloa ere. Hor dago oinarrizko eskubideen karta, Lisboako tratatuarekin lotua, gain babesten gaituena, hemendik bertatik, krisiarekin amaitzeko enplegu desarauketa taktikak bultzatzen dituztenen aurrean. Munduan Europa bezala ahotsa izatea ere ezinbestekoa iruditzen zait. Izan ere, Europatik kanpo, Euskadi edota Espainia ez dira ezer. Egunerokotasunean eragiten diguten erabaki garrantzitsuak hartzen dira Europan; aipatutakoez gain, osasunari, ongizateari, elikadurari eta beste hainbat arlori lotutakoak ere badaude.

**Euskal Herrian zertan eragin dezake Europako parlamentuko egoerak?**

Lehenik eta behin, lortu behar da Europako hauteskundeetara ez joatea estatu moduan. Hori lortu daiteke; izan ere, lurraldekako zirkunskripzioak defendatzen dituen ponentzia konstituzionala dago Europan. Hor aurreikusten da zirkunskripzio partikular bat sortzea hizkuntza gutxituak dituzten lurraldeentzat. Bide horretan lan egin beharko da, eta eskaera hori lortzeko beharrezko bideak martxan ipini beharko dira. Ahalbidetu behar da eskualdeen Europa eraikitzea, Europak funtzionatu dezan. Ea bost-urteko honetan biolentzia politikoa amaitzen den eta gatazkaren zantzuak desagertzen diren. Bide horretan Europak asko du egiteko, lehenago Irlandarekin egin zuen moduan.

KRISIAREN AURREAN

**"Badirudi krisiari aurre egiteko gai diren alderdiak eskuinekoak direla herritarren ustez"**

EZKERRA ETA ESKUINA

**"Ezkerreko alderdietan ez dute maniobra kapazitaterik; eskuinak aldiz, erakutsi du indarra duela"**

LURRALDEAK EUROPAN

**"Hizkuntza gutxituak dituzten lurraldeentzat zirkunskripzio partikularra sortzea aurreikusten da"**


Kutxa Produktu Berdeen Lerroa
Onak ingurumenarentzat, onak zuretzat
Kutxan gogoko dugu ingurumena hobetzearren lan egitea. Eta gogoko dugu zu ere iritzi eta asmo berekoa zarela jakitea. Horregatik, eskura jartzen dizugu Produktu Berdeen Lerroa. Gordailu Iraunkorren bidez garapen iraunkorrarekin konprometiturik dauden hainbat enpresetan inbertitzeko eta Kreditu Berdeekin edozein proiekturi aurre egiteko aukera eskainiko dizun produktu-gama oparoa:
• Credikutxa Berde Etxeko Eraberritze-lanak
• Credikutxa Berde Automobila
• Hipoteka Berdea
zer nahi duzu bihar?
www.kutxa.net
kutxa

## kale inkesta

# Bizi dugun krisi ekonomikoak eragingo al dizu aurtengo oporrak antolatzerako orduan?



**Rosa Zabaleta**
Langilea
Bergara

Bai eragina edukiko duela uste dut. Nik, dena den, ez dut larregi igarriko, bigarren etxe bat daukadalako eta urtero hara joaten naizelako oporretan. Baina, ahal izanez gero, astebete nonbaitera joango nintzateke.



**Eva Conget**
Langabetua
Bergara

Bai. Aurten ezin izango naiz oporretan joan. Ni langabezian nago eta gizona ere lan barik geratu da orain. Aurreko urteetan, Pirinioetatik ibili gara, baina, aurtenherria zaintzen geratu beharko gara.



**Luis Mari Gutierrez**
Erretiratua
Bergara

Ni erretiratuta nago eta egunotan Lanzaroten egon naiz. Krisiarekin askoz gehiago begiratu behar da. Baina diru gutxirekin ere ederto pasa dezakegu. Bidaien prezioek, dena den, behera egin dutela igarri dut.



**Jesus Arregi**
Langabetua
Bergara

Nire kasuan ez, baina orokorrean krisiak eragina duela iruditzen zait. Hala ere, ez dut uste jendea opor barik geratuko denik, beste nonbaitetik kenduko du. Ni inoiz ez naiz oporretan joaten, herrian geratzen naiz.

## irakurlearen txokoa

# 943 25 05 05

goienkaria@goiena.com

ARRASATE

**> Saihesbideko hegoaldeko sarrera, egoera penagarrian**

Arrasaten lanean dabilen aretxabaletar batek deitu digu, Arrasateko saihesbideko hegoaldeko sarreraren gainean ohartarazteko. Azken hilabeteotan egoera penagarrian dagoela dio, zuloz beteta, eta dagokionari neurriak hartzeko eskatu nahi dio. Haren arabera, badirudi baliabide guztiak autobidera bideratu dituztela azkenaldian, bestelako errepideak "ahaztuta" utziz. Kontuan izanda Mugarri inguruko errepide hori jende askok erabiltzen duela, lehenbailehen konpontzea eskatzen du.

BERGARA

**> Igerilekuan, erabiltzaileei gauzak erraazteko eskatuz**

Agorrosineko bazkide baten kexa jaso dugu. "Erabiltzaileei inkesta mordoa egiteko aukera eskaintzen zaigu, baina askotan trabak besterik ez ditugu: adibidez, igerilekutik saunara joateko atea itxita dago eta batetik bestera joateko sarreratik igaro beharra dugu".

OÑATI

**> Primerako antxintxika lasterketa herrian**

Oñatiko gazte batek idatzi digu, Nazioarteko Herri Lasterketaren antolatzaileak zoriontzeko. "Gauza handia da primerako antxintxikalariak herriko kaleetan ikustea eta, gaur egun, kirol probak aurrera ateratzeko dauden zailtasunak kontuan izanda (boluntario faltagatik eta babesleak lortzea geroa eta zailagoa delako), zorionik beroenak guztiei".

## usteak uste

**Mirian Biteri**

# Garoña beste hamar urtez?

Eroen munduan bizi garela ematen du. Nuclenorrek Garoñako zentral nuklearra hamar urterako luzatzea eskatu du eta Espainiako Segurtasun Nuklearrerako Kontseilua luzapena baimentzearen alde azaldu da; 2019. urtera arteko ustiapen baimena emanez. Hortaz, 40 urteko iraupena gainditzen duen Espainiako lehen zentrala litzateke.

Jose Luis Rodriguez Zapateroren Gobernuari dagokio azken erabakia hartzea, uztailaren 5erako. Zapaterok hauteskunde kanpainetan esandakoari kasu egiten badiogu, Garoñak bere ateak itxi beharko lituzke. Lehen belaunaldiko zentralak modu mailakatuan itxiko dituela esan du-eta. Talde ekologistez gain, Arabako Diputazioak eta Eusko Jaurlaritzak ere zentrala ixteko exijitu diote asteon. Samurra ez bada ere, agindutakoa betetzen ikasi beharko luke Zapaterok.

## zorroztailea



**Markos Balentziaga**

# Gardentasuna

"Jaurlaritzako goi kargudun guztiei 'gardentasunez, zorroztasunez eta umiltasunez' jarduteko eskatu die Patxi Lopez lehendakariak. Diru publikoaren kudeaketan ez duela inolako 'iruzurrik' onartuko eta departamendu guztietan 'kristalezko patriken politika' ezarriko duela".

Berria > 2009-06-12




Zorroztasuna eta umiltasuna baña bapez be gardentasuna berben itzulpena emonda laburtzen zeban *Berria*-k egubakoitzian Lopez Lehendakarixak Jaurlaritzako kidiei eta goi-kargudunei egindako jarduna. Egixa esan, azalian nabarmen, edo barruko orrittan gordiago, egubakoitzeko media guztiak aittatzen zittuzten Lopezen berbok.

Lehendakarixaren esanok joan dan astegoien beruan eguzkixa hartzeko nivea-igurtzialdi batek baño interes haundixagorik ez zeben eragingo, gatozenetik ez bagentoz...

Oraindio goi-arduradunak izendau eta karguaz jabetzeko be asti barik, kaporala kartillia eskuan... lapurretan ez egitteko agintzen? "Kristalezko patriken politika" erabitteko argi eta zoli esaka lehendakarixa klubeko arduradunei? Ez da ikuskizun eta entzunkizun gordin samarra? Zer pasatzen da ba, hainbesteko billurra izateko? Estrenu-modua be bada lan barrixa halako abixuak entzunaz hasi biharra!

> **"Goguan izango zittuan Filesa, Urralburu, Aragon, Otano eta beste"**
>
> **"Zer pasatzen da ba, hainbesteko billurra izateko?"**

Lopezen gogorantzian seguruenik gordin-gordin dare Getarixako Balenciaga museua dala-ta izan diran gorabeherak, oraindio be zihetz argittu barik diranak; edota Roberto Cearsolo jaunak Guggenheim museuan egindako lapurreta fiñ-selektuak; bixak be PNV-ren erantzunkizun politikopian jazotakuak. Horrek danak oso goguan izango dittu Lopezek, Gürtel esanda ezagutzen dogun iruzurra, eta alderdi sozialistari astelehenetik domekara egunak eta gabak eztitzen –eta PPri pipermintzen dotsan– auzixa goguan izango daben letxe. Eta pentsatzekua danez, halakorik ez dau nahiko inguruan.

Ala, joan dan eguenian, "kristalezko patrikak" aittatu zituanian, goguanago zittuan Filesa, Malesa, Roldan, Urralburu-Aragon, Otano eta beste gañerako lapurreta-kasuak, lehenagokuak eta, ondorioz, urriñagokuak denboran baña sozialista-jendiak etxe barruan, partiduan, sortu izanaren labelakin ikusi zittuanak?

Eskarmentuak eskarmentu, ez dago gaizki, ez, gardentasuna eskatzia kolega despistauei.

**Goienkaria**

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Iker Barandiaran **Erredakzioa** Mirian Biteri, Arritxu Barruso, Xabier Urtzelai **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Diseinu arduraduna** Iñaki Iturbe **Maketazioa** Kepa Martelo **Publizitate arduraduna** Mireia Larrañaga **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazio arduraduna** Agurtzane Gaintzarain

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-0088/04 • **ISSN:** 1697 3542 • **Tirada:** 5.000 ale • **Difusioa:** 4.383 ale

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

ASTELEHENEKO GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA orrialdean edo kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



**> ARRASATE**
Udaleko Gizarte Sailean aurten bikoiztu egin dituzte iazko laguntza eskaerak **> 14**



**> BERGARA**
Bergara Hiria Frontenis Txapelketa antolatu du Udalak hilaren 27 eta 28rako **> 16**



**> OÑATI**
Herriko hainbat kultura taldek erabiltzen duten Errekaldeko eskola txikia eraberrituko dute **> 18**



**TXUKUNA** Instalazio handi eta modernoak ditu Aretxabaletako zahar egoitza berriak. ARRITXU BARRUSO

**ARETXABALETA** > ZERBITZUAK

# 38 egoiliar daude zaharren egoitza berrian eta asteon 21 iritsiko dira

**KUDEAKETA**
Mondragon Taldeko GSR enpresak kudeatuko du egoitza

**ZERBITZUAK**
Eraikina bi gunetan banatuta dago: erresidentzia eta eguneko zentroa

ARRITXU BARRUSO > ARETXABALETA

Joan den astelehenean ireki zituen ateak Aretxabaletako zaharren egoitza berriak eta dagoeneko 38 pertsona daude bertan. Lehenengo egunean, astelehenean, Gipuzkoako beste zaharren egoitza batzuetako adindunak iritsi ziren eta martitzenean bertan Aretxabaletako Urats Gain egoitzako 23 egoiliarrak joan ziren eraikin berrira. Oraingo astean, bestetik, aurreikusten dute beste 21 pertsona hartzea.

Egoitza berriak bi gune ditu: eguneko zentroa (50 plaza) eta erresidentzia (170 plaza). Azken honetan 30 plaza unitate psikogeriatrikokoak dira. Instalazioak amaituta dauden arren, oraindik ez dago martxan unitate psikogeriatrikoa. Horrelako zerbitzuak behar dituzten zazpi egoiliar inguru batzen dituztenean hasiko da lanean psikogeriatrikoa. Plaza pribatuak ere badaude, 68 hain justu ere. Eguneko zentroa ere itxita dago momentuz eta 10 pertsona inguruko taldea osatzen dutenean hasiko da lanean.

Momentuan egoitzan dauden adindun gehienak Debagoienekoak dira: "Beste zaharren egoitza batzuetatik etorritako gehienak Debagoienekoak dira, euren familiengana gerturatzeko. Bertakoek daukate lehentasuna", azaldu digu Juan Carlos Uriarte zaharren egoitzako koordinatzaileak. Uriartek adierazi du abenduaren amaierarako 100 pertsona baino gehiago egongo direla.

**DATUA**

**170**

**PERTSONENDAKO LEKUA**

Aretxabaletako zaharren egoitza berriak 170 pertsonendako lekua izango du. 68 plaza pribatuak izango dira eta gainontzekoak Gipuzkoako Foru Aldundiarekin kontzertatutakoak.

### TOKIA LORTZEKO

Zaharren egoitzan plaza kontzertatua hartzeko prozedura honakoa da: gizarte-langile batek adindunaren balorazio bat egingo du behar dituen zerbitzuak aztertzeko. Ondoren, Diputazioan eskaria aurkeztuko du eta itxaron zerrendan sartuko da adindunaren eskaera.

### HIRU SOLAIRUKO ERAIKINA

Egoitza berriak hiru solairu ditu, bederatzi modulutan dago banatuta eta, besteak beste, bi jangela, liburutegia, egongela, bisitariendako gela, logela bikoitzak eta banakakoak, gimnasioa, kafetegia, loretegiak eta bulegoak ditu. Juan Carlos Uriartek azaldu du instalazio horien guztien diseinua bideratuta dagoela, "erabiltzaileen beharrei erantzun bikainena eman eta bizi kalitate maila ahalik eta altuena lortzeko".

Lantaldeari dagokionez, 80 lagunez osatua egongo da eta egoiliarrak iritsi ahala joango da osatzen taldea. Aretxabaletako Urats Gain egoitzako langile guztiek egoitza berrian dihardute orain lanean.

**OÑATI** > CORPUS JAIAK

# Herritar asko Joxean Larrañaga parrokoak parte hartu zuen lehen prozesioan



San Migel eta apostoluak herriko kaleetatik. JOSETXO ARANTZABAL

## Aste bukaeran Oñatiko Corpus jaiak ospatu dituzte herrian; atzo, domeka, egun handia zen

**M.B.** > OÑATI

Oñatiarrek hain gustuko dituzten jaiak ospatu dituzte aste bukaeran herrian: Corpus jaiak. Atzo, domeka, egun handia egin zuten han; aspaldiko tradizioak beste behin ere herriko kaleetara ateratzeko eguna.

Parrokian meza nagusia egin ondoren, eguerdian prozesioa hasi zen. Jendez lepo beteta zeuden ordurako erdiguneko kaleak. Zeruak euria mehatxatzen bazuen ere -meza iraun zuen bitartean tanta batzuk ere bota zituen-, San Migel, Jesus, 15 pausuak, apostoluak eta gainontzekoak kalera irten zirenean zertxobait atertu egin zuen. Dena espero moduan irten zen: Juan Antonio Agirianok, esaterako, ederto egin zuen bere lana San Migelen paperean. Hirugarren urtez, Agirianok 25 kilo pisatzen dituen jantzia eraman du. Oñatz dantza taldeko dantzariek, aurten jaunartzea egin duten neska-mutikoek eta aingerutxoek ere ez zuten huts egin.

**PARROKOA ESTREINATU ZEN**

Aurreko urteotako prozesioarekin alderatuta, berrikuntza bakarra egon zen: Joxean Larrañaga parrokoak lehen aldiz parte hartzen zuela, hain zuzen. Kale nagusienak igaro eta plazan *Agur jauna* abestu ostean, datorren urtera arte agurtu zen prozesioa.



Betiko moduan, jendez lepo bete zen atzo Oñati. JOSETXO ARANTZABAL



Irudian, Joxean Larrañaga parrokoa. JOSETXO ARANTZABAL

**OÑATIko ZUBIKOA KIROLDEGIA**
**UZTAILEAN AUKERA BERRIAK HAIZE FRESKOA**

| 2009 | ASTELEHENA | ASTEARTEA | ASTEAZKENA | OSTEGUNA |
|---|---|---|---|---|
| 9.15 | Pilates terapia | Gimnasia terapeutikoa | Pilates terapia | Gimnasia terapeutikoa |
| | 3. adina | | 3. adina | |
| 10.15 | | Pilates hastapena | | Gimnasia terapeutikoa |
| | | Total fitness | | Pilates hastapena |
| | | | | Total fitness |
| 15:00 | Erditze osteko gim. | | Erditze osteko gim. | |
| | | | (eta ostiraletan) | |
| | Total fitness | | Total fitness | |
| 18:15 | Pilates hastapena | | Pilates hastapena | |
| | Fit-bike gazte | | Fit-bike gazte | |
| 19:15 | Pilates terapia | Total fitness | Pilates hastapena | Total fitness |
| | Fit-bike | | Fit-bike | |
| | Funky/Hip Hop | | Funky/Hip Hop | |
| 20:15 | Pilates | Pilates terapia | Pilates | Pilates hastapena |
| | Fit-bike | Funky/Hip Hop | Fit-bike | |

**TOTAL FITNESS:**
Ekintza ezberdinak tartekatzen dituen zerbitzu berria prestatu dizuegu udarako (Body Pump, body Balance, fitbike...). Hainbat ariketa ezberdinen konbinazioari esker, kualitate guztiak landu eta lirain mantentzen lagunduko dizuegu. Denetik probatu, koipea erre, giharrak tonifikatu, oreka landu…benetan eraginkor eta erakargarria. Taldearen ezaugarrien arabera ekintzak aldatu eta beste ekintza batzuk sartzeko aukera dago.

**DANTZA**
**Funky / hip hop / street dance...**
Dantza estilo ezberdinak ikasi eta disfrutatu nahi badituzu, zatoz uztailean Zubikoa kiroldegira. Koreografia errezak eta dibertigarriak izango dira, orain arte egin ditugunetatik ezberdintzen diren estiloak. Ez gelditu hauek probatu gabe !

**SPINNING GAZTE**
13-15 urte bitarteko gazteentzat fit-bikeko klaseak prestatu ditugu.

**PILATESeko HASTAPEN SAIOAK**
Goizez zein arratsaldez, teknika honetan lehen urratsak emateko.

**URTEAN ZEHARREKO ZERBITZUAK**
Fit-bike, gimnasia terapeutikoa, 3.adinekoentzat gimnasia, erditze osteko gimnasia, pilates eta pilates terapeutikoa.

**Oharrak**
- **Uztailean parte hartzeko izena eman behar da berriz ere.**
- **Izena emateko azken eguna : Ekainak 24!**
- **Klaseak ekainaren 29an hasiko dira eta uztailaren 30ean bukatu.**

**OÑATI** > CORPUS JAIAK

# Herritar asko Joxean Larrañaga parrokoak parte hartu zuen lehen prozesioan



San Migel eta apostoluak herriko kaleetatik. JOSETXO ARANTZABAL

## Aste bukaeran Oñatiko Corpus jaiak ospatu dituzte herrian; atzo, domeka, egun handia zen

**M.B.** > OÑATI

Oñatiarrek hain gustuko dituzten jaiak ospatu dituzte aste bukaeran herrian: Corpus jaiak. Atzo, domeka, egun handia egin zuten han; aspaldiko tradizioak beste behin ere herriko kaleetara ateratzeko eguna.

Parrokian meza nagusia egin ondoren, eguerdian prozesioa hasi zen. Jendez lepo beteta zeuden ordurako erdiguneko kaleak. Zeruak euria mehatxatzen bazuen ere -meza iraun zuen bitartean tanta batzuk ere bota zituen-, San Migel, Jesus, 15 pausuak, apostoluak eta gainontzekoak kalera irten zirenean zertxobait atertu egin zuen. Dena espero moduan irten zen: Juan Antonio Agirianok, esaterako, ederto egin zuen bere lana San Migelen paperean. Hirugarren urtez, Agirianok 25 kilo pisatzen dituen jantzia eraman du. Oñatz dantza taldeko dantzariek, aurten jaunartzea egin duten neska-mutikoek eta aingerutxoek ere ez zuten huts egin.

**PARROKOA ESTREINATU ZEN**

Aurreko urteotako prozesioarekin alderatuta, berrikuntza bakarra egon zen: Joxean Larrañaga parrokoak lehen aldiz parte hartzen zuela, hain zuzen. Kale nagusienak igaro eta plazan *Agur jauna* abestu ostean, datorren urtera arte agurtu zen prozesioa.



Betiko moduan, jendez lepo bete zen atzo Oñati. JOSETXO ARANTZABAL



Irudian, Joxean Larrañaga parrokoa. JOSETXO ARANTZABAL

**OÑATIko ZUBIKOA KIROLDEGIA**
**UZTAILEAN AUKERA BERRIAK HAIZE FRESKOA**

| 2009 | ASTELEHENA | ASTEARTEA | ASTEAZKENA | OSTEGUNA |
|---|---|---|---|---|
| **9.15** | Pilates terapia | Gimnasia terapeutikoa | Pilates terapia | Gimnasia terapeutikoa |
| | 3. adina | | 3. adina | |
| **10.15** | | Pilates hastapena | | Gimnasia terapeutikoa |
| | | Total fitness | | Pilates hastapena |
| | | | | Total fitness |
| **15:00** | Erditze osteko gim. | | Erditze osteko gim. | |
| | | | (eta ostiraletan) | |
| | Total fitness | | Total fitness | |
| **18:15** | Pilates hastapena | | Pilates hastapena | |
| | Fit-bike gazte | | Fit-bike gazte | |
| **19:15** | Pilates terapia | Total fitness | Pilates hastapena | Total fitness |
| | Fit-bike | | Fit-bike | |
| | Funky/Hip Hop | | Funky/Hip Hop | |
| **20:15** | Pilates | Pilates terapia | Pilates | Pilates hastapena |
| | Fit-bike | Funky/Hip Hop | Fit-bike | |

**TOTAL FITNESS:**
Ekintza ezberdinak tartekatzen dituen zerbitzu berria prestatu dizuegu udarako (Body Pump, body Balance, fitbike...). Hainbat ariketa ezberdinen konbinazioari esker, kualitate guztiak landu eta lirain mantentzen lagunduko dizuegu. Denetik probatu, koipea erre, giharrak tonifikatu, oreka landu…benetan eraginkor eta erakargarria. Taldearen ezaugarrien arabera ekintzak aldatu eta beste ekintza batzuk sartzeko aukera dago.

**DANTZA**
**Funky / hip hop / street dance...**
Dantza estilo ezberdinak ikasi eta disfrutatu nahi badituzu, zatoz uztailean Zubikoa kiroldegira. Koreografia errezak eta dibertigarriak izango dira, orain arte egin ditugunetatik ezberdintzen diren estiloak. Ez gelditu hauek probatu gabe !

**SPINNING GAZTE**
13-15 urte bitarteko gazteentzat fit-bikeko klaseak prestatu ditugu.

**PILATESeko HASTAPEN SAIOAK**
Goizez zein arratsaldez, teknika honetan lehen urratsak emateko.

**URTEAN ZEHARREKO ZERBITZUAK**
Fit-bike, gimnasia terapeutikoa, 3.adinekoentzat gimnasia, erditze osteko gimnasia, pilates eta pilates terapeutikoa.

**Oharrak**
- **Uztailean parte hartzeko izena eman behar da berriz ere.**
- **Izena emateko azken eguna : Ekainak 24!**
- **Klaseak ekainaren 29an hasiko dira eta uztailaren 30ean bukatu.**

**OÑATI** > CORPUS JAIAK

# Herritar ugari Joxean Larrañaga abadeak parte hartu zuen lehen prozesioan


San Migel eta apostoluak herriko kaleetatik. JOSETXO ARANTZABAL

## Aste bukaeran Oñatiko Corpus jaiak ospatu dituzte herrian; atzo, domeka, egun handia zen

**M.B.** > OÑATI

Oñatiarrek hain gustuko dituzten jaiak ospatu dituzte aste bukaeran herrian: Corpus jaiak. Atzo, domeka, egun handia egin zuten han; aspaldiko tradizioak beste behin ere herriko kaleetara ateratzeko eguna.

Parrokian meza nagusia egin ondoren, eguerdian prozesioa hasi zen. Jendez lepo beteta zeuden ordurako erdiguneko kaleak. Zeruak euria mehatxatzen bazuen ere -meza iraun zuen bitartean tanta batzuk ere bota zituen-, San Migel, Jesus, 15 pausuak, apostoluak eta gainontzekoak kalera irten zirenean zertxobait atertu egin zuen. Dena espero moduan irten zen: Juan Antonio Agirianok, esaterako, ederto egin zuen bere lana San Migelen paperean. Hirugarren urtez, Agirianok 25 kilo pisatzen dituen jantzia eraman du. Oñatz dantza taldeko dantzariek, aurten jaunartzea egin duten neska-mutikoek eta aingerutxoek ere ez zuten huts egin.

**PARROKOA ESTREINATU ZEN**

Aurreko urteotako prozesioarekin alderatuta, berrikuntza bakarra egon zen: Joxean Larrañaga parrokoak lehen aldiz parte hartzen zuela, hain zuzen. Kale nagusienak igaro eta plazan *Agur jauna* abestu ostean, datorren urtera arte agurtu zen prozesioa.


Betiko moduan, jendez lepo bete zen atzo Oñati. JOSETXO ARANTZABAL


Irudian, Joxean Larrañaga parrokoa. JOSETXO ARANTZABAL


**OÑATIko ZUBIKOA KIROLDEGIA**
**UZTAILEAN AUKERA BERRIAK HAIZE FRESKOA**

| 2009 | ASTELEHENA | ASTEARTEA | ASTEAZKENA | OSTEGUNA |
|---|---|---|---|---|
| 9.15 | Pilates terapia | Gimnasia terapeutikoa | Pilates terapia | Gimnasia terapeutikoa |
| | 3. adina | | 3. adina | |
| 10.15 | | Pilates hastapena | | Gimnasia terapeutikoa |
| | | Total fitness | | Pilates hastapena |
| | | | | Total fitness |
| 15:00 | Erditze osteko gim. | | Erditze osteko gim. | |
| | | | (eta ostiraletan) | |
| | Total fitness | | Total fitness | |
| 18:15 | Pilates hastapena | | Pilates hastapena | |
| | Fit-bike gazte | | Fit-bike gazte | |
| 19:15 | Pilates terapia | Total fitness | Pilates hastapena | Total fitness |
| | Fit-bike | | Fit-bike | |
| | Funky/Hip Hop | | Funky/Hip Hop | |
| 20:15 | Pilates | Pilates terapia | Pilates | Pilates hastapena |
| | Fit-bike | Funky/Hip Hop | Fit-bike | |

**TOTAL FITNESS:**
Ekintza ezberdinak tartekatzen dituen zerbitzu berria prestatu dizuegu udarako (Body Pump, body Balance, fitbike...). Hainbat ariketa ezberdinen konbinazioari esker, kualitate guztiak landu eta lirain mantentzen lagunduko dizuegu. Denetik probatu, koipea erre, giharrak tonifikatu, oreka landu…benetan eraginkor eta erakargarria. Taldearen ezaugarrien arabera ekintzak aldatu eta beste ekintza batzuk sartzeko aukera dago.

**DANTZA**
**Funky / hip hop / street dance...**
Dantza estilo ezberdinak ikasi eta disfrutatu nahi badituzu, zatoz uztailean Zubikoa kiroldegira. Koreografia errezak eta dibertigarriak izango dira, orain arte egin ditugunetatik ezberdintzen diren estiloak. Ez gelditu hauek probatu gabe !

**SPINNING GAZTE**
13-15 urte bitarteko gazteentzat fit-bikeko klaseak prestatu ditugu.

**PILATESeko HASTAPEN SAIOAK**
Goizez zein arratsaldez, teknika honetan lehen urratsak emateko.

**URTEAN ZEHARREKO ZERBITZUAK**
Fit-bike, gimnasia terapeutikoa, 3.adinekoentzat gimnasia, erditze osteko gimnasia, pilates eta pilates terapeutikoa.

**Oharrak**
- **Uztailean parte hartzeko izena eman behar da berriz ere.**
- **Izena emateko azken eguna : Ekainak 24!**
- **Klaseak ekainaren 29an hasiko dira eta uztailaren 30ean bukatu.**



JOSETXO ARANTZABAL

**ARRASATE** > GASTRONOMIA

## Ardo eta gazta goxoa aukeran

Mondra Futbol Taldeak, Ibai-Artek eta Udalaren laguntzarekin, Ardo eta Gazta Eguna egin zuen herenegun, zapatua. Antolatzaileek esan ziguten 24 gazta-egilekin hitzeginda zuten arren, azkenean 12 joan zirela. Hala ere, maila oneko gaztak izan ziren lehiaketan eta Aretxabaletako Jose Ramon Murgiondok eskuratu zuen saria. Ardoari dagokionez, 19 ardo-etxek 19 ardo desberdin eraman zituzten Arrasateko Herriko Plazara. Ilunkeran eguerdian baino jende gehiago ibili zen.

**ARRASATEko AUKEA KIROLDEGIA**
**UZTAILEAN AUKERA BERRIAK HAIZE FRESKOA**

| 2009 | ASTELEHENA | ASTEARTEA | ASTEAZKENA | OSTEGUNA |
|---|---|---|---|---|
| 9.15 | | Gimnasia terapeutikoa | | Gimnasia terapeutikoa |
| 9:30 | Pilates | | | Pilates |
| 10.15 | | Total fitness | | Total fitness |
| 10.30 | Pilates hastapena | | Pilates hastapena | |
| 11.15 | | 3. adina | | 3. adina |
| 13.30 | Total fitness | | Total fitness | |
| 17.30 | Spinning gazte | | Spinning gazte | |
| 18.30 | Pilates | Pilates hastapena | Pilates | Pilates hastapena |
| | Spinning | Spinning | Spinning | Spinning |
| 19.30 | Pilates | Total fitness | Pilates | Total fitness |
| | Aerobic | Spinning | Aerobic | Spinning |
| | | | | Funky/Hip Hop |

**TOTAL FITNESS:**
Ekintza ezberdinak tartekatzen dituen zerbitzu berria prestatu dizuegu udarako (Body Pump, body Balance, fitbike...). Hainbat ariketa ezberdinen konbinazioari esker, kualitate guztiak landu eta lirain mantentzen lagunduko dizuegu. Denetik probatu, koipea erre, giharrak tonifikatu, oreka landu…benetan eraginkor eta erakargarria. Taldearen ezaugarrien arabera ekintzak aldatu eta beste ekintza batzuk sartzeko aukera dago.

**DANTZA**
**Funky / hip hop / street dance...**
Dantza estilo ezberdinak ikasi eta disfrutatu nahi badituzu, zatoz uztailean Aukea kiroldegira. Koreografia errezak eta dibertigarriak izango dira, orain arte egin dituguneta-tik ezberdintzen diren estiloak. Ez gelditu hauek probatu gabe !

**SPINNING GAZTE**
13-15 urte bitarteko gazteentzat fit-bikeko klaseak prestatu ditugu.

**PILATESeko HASTAPEN SAIOAK**
Goizez zein arratsaldez, teknika honetan lehen urratsak emateko.

**URTEAN ZEHARREKO ZERBITZUAK**
Spinning, aerobik, gimnasia terapeutikoa, 3.adinekoentzat gimnasia, pilates eta pilates terapeutikoa.

……………………………………………………………………………………………………

**Oharrak**
- **Uztailean parte hartzeko izena eman behar da berriz ere.**
- **Izena emateko azken eguna: Ekainak 23.**
- **Klaseak uztailaren 1ean hasiko dira eta uztailaren 30ean bukatu.**

**ARRASATE** > EUSKARA

# Euskaltzale asko batu zituen AEDk urteurren jaian

Goizetik iluntzera bitartean mota askotako ekitaldiak egin zituzten Biteri plazan

IKER BARANDIARAN > ARRASATE

Arrasate Euskaldun Dezagun elkarteak 25 urte bete zituen 2008an, eta hori ospatzeko ekitaldiek atzora arte, domeka, iraun dute. Hala, *Denok elkarrekin* jai erraldoia egin zuten.

Goizean Santa Barbara eta Monterrongo landaretza aztertu zuten hainbatek; eguerdian, berriz, Arrasateko Erdi Aroko historiaren gaineko ibilaldia izan zen, 50 lagunendako.

**TXIKI GELDITU ZIREN GUNEAK**

Ordu berean, Biterin Pakistan, Nikaragua, Errepublika Dominikarra eta beste hainbat herrialdetako janaria banatu zuten, eta izugarrizko harrera izan zuen, berehala agortu zeneta. Ordurako txikienen gunea ere pil-pilean zegoen: Txatxilipurdiren tailerrak, puzgarriak, *goming*-a, rokodromoa, balaztak eta bestelakoak txiki geldi-tu ziren.

Paella jatera 200 bat lagun batu ziren, eta kantuan pasa zuten bazkaria. Ordurako, prest zeuden Aitor Mendiluze, Erika Lagoma, Aitor Sarriegi eta Xabier Silveira bertsolariak.

**'BAZKIDEAK IKUSTEA'**

Arratsaldeak ekitaldi gehiago hartuko zituen: Goikobalu abesbatzaren emanaldia, erromeria, Doke taldearen antzezlana eta Muskaria eta Ain_1 taldeen kontzertua.

AEDko arduradunak oso pozik daude herritarren erantzunarekin, eta "hainbeste bazkide bertan ikustearekin": "Halako ekimenek euskaldunok batzeko balio badute, gehiago egin beharko ditugu".



Txatxilipurdiren tailerretan ume ugarik esku hartu zuen. JOSETXO ARANTZABAL



Biterin batutako asko dantza egarriz zeuden. J.A.



Paella erraldoia goxo-goxoa zegoela esan ziguten batutakoek. J.A.

**ZERBITZUAK** > GIZARTE ONGIZATEA

# Gizarte Sailean bikoiztu egin dira laguntza eskaerak

Gizarte Saileko aurrekontua "agudo agortzen" dabil; udal agintariek uste dute sail horretarako diru ekarpena handitu egin beharko dutela



Hasi da igartzen Abaroa berriak izango duen itxura; egoitza berriko obrak bide onetik doazela erakusten du argazkiak. U.M.

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Krisi ekonomikoa eragin zuzena izaten dabil herriko familia, zerbitzu eta oro har Udalaren funtzionamenduan. Besteak beste, laguntza eskaerak "bikoiztu" egin dira. Hala eman du aditzera Yolanda Perez de Arenazak, Gizarte Ongizate eta Kirol Sailetako udal agintariak, GOITBn egindako elkarrizketan: "Jendeak etxebizitzak, alokairuak eta hipotekak ordaintzeko premia handia dauka eta eskaerak askoz ere altuagoak izaten dabiltza".

Udal ordezkariak esan du "gizarte ereduak" bidea ematen duela jendea "babes barik" uzteko, eta dio egoera horiei "modu egokian erantzun behar" zaiela.

Edozelan ere, zinegotziak onartu du Gizarte Ongizate Saileko dirua "agudo agortzen" dabilela: "Eskaerak bikoiztu egin dira eta prestatuta geneukan partida ia agortuta dago. Jaurlaritzak berak ere igarri du hori eta esan zuen emango zuela diru gehiago. Baina hala ere ez da nahikoa izango eta gu jakitun izanda zein ardura dugun, seguru diru ekarpen handiagoa egingo dugula arlo horretan".

**ERRUMANIARRAK HERRIAN**

Bestalde, egunotan Arrasaten atzeman dituzten errumaniarren gainean galdetuta, Perez de Arenaza udal zinegotziak jakinarazi du Markuleten dagoela 10 laguneko talde bat eta Atxa lantegiaren pabilioian ere hainbat lagun badirela. " Jarraipena egiten zaie. Ez da Arrasatera etorri diren lehen aldia", dio. Zera ere gaineratu du: "Gure bizimoduak eta gizarteak sortutako bazterketa egoerak direla-eta, erantzun bat zor diegu eta denok lotsarazi beharko gintuzke, halako egoerak prebenitzeko gai ez garelako". Eta kontatu du ez dela erraza izaten irtenbidea aurkitzea: "Zaila izaten da. Batzuk dira azaroan larrialdiko etxebizitzan sartu genituenak. Joan egin ziren eta orain bueltatu egin dira. Momentu honetan pisu hori beteta dago, eta Arrasaten dauzkagun baliabideak horiek dira. Foru Aldundira ere bideratzen ditugu eskaerak, baina handik ere ez dute erantzuten. Ahaleginduko gara erantzun egokia ematen. Besteak beste, umeak daude talde horietan, haiek bideratu behar ditugu… Lan sakona dago egiteko".

**ITURBIDE ETA ABAROAKO OBRAK**

Gizarte kontuekin jarraituz, Iturbide eta Abaroa berriko obren azalpenak ere eman ditu. Adibidez, Iturbideko logeladun solairuetako obrak bukatuta daude; orain falta dena da sotoa, sukalde eta garbitegi inguruak txukuntzea eta horrekin amaitzen dutenean, beheko solairuko (orain arteko Abaroa) obrak hasiko dituzte. Uda ostean bukatuko dute.

Abaroa berriari dagokionez, obrak "martxa onean" doaz eta apirilerako bukatuko dutela eraikin berria, aurreikusitako moduan.

**SKATE PARKEA DELA-ETA**

Horrez guztiaz gainera, Kirol arduraduna ere bada Yolanda Perez de Arenaza, eta besteak beste, Skate taldearekin duten ikamikaren gaineko azalpenak eman ditu: "Maila altuko skate parkea dugu kiroldegi barruan, eta barruan egote horrek esan gura du kiroldegiko hainbat arau bete beharra dagoela, segurtasun aldetik (oso inportantea, den kirol motarengatik) eta baita ordutegi eta erabilera aldetik ere. Hori dela eta, hainbat bilera egin ditugu skate taldearekin, baina momentuz, ez da posible izan adostasuna. Badirudi hainbat baldintzak "skatero" izaerarekin "topo" egiten dutela; horrez gainera, planteatzen dituzten hainbat baldintza (doan izatea, ordutegi mugagabea, babes barik ibiltzea adin batetik aurrera…), onartezinak dira. Beraz, ez du irtenbide errazik. Akaso gaizki planteatu zen kiroldegi barruan ipintzea, baina han dago eta une honetan maila altuko parkea izanik ere, umeek erabiltzen dute; hori bai, kiroldegiak ipintzen dituen baldintza guztiekin".

ITURBIDE EGOITZAKO AZPIKONTRATATUTAKO LANGILEEN AUZIA

## Gipuzkoako Aldundiaren esku dago Iturbideko langileen auzia

Iturbideko azpikontratatutako langileekin dagoen auziaren gainean, Gizarte Saileko zinegotziak jakinarazi du orain Diputazioaren esku dagoela kontua: "Zoritxarrez arazoa ez dago konponduta eta egoera gogorra izan bada grebaren kontuarekin, orain irtenbide zaila ikusten diogu. Abenduan Gasteizko Legebiltzarrean onartu zuten Gizarte Zerbitzuen legea dela-eta, garbi zehaztu zuten egoitzak Diputazioaren eskumen direla bere osotasunean (orain arte zati handi batean ere hala zen). Gainera, Gipuzkoako Batzar Orokorrek onartu zuten 2009an udal egoitza guztiak Aldundiaren esku uzteko proposamena. Beraz, une honetan Udalak berak ere, edo gobernuan gaudenok ez dakigu zein den Iturbideren etorkizuna. Edozein kasutan, garbi dago Iturbideko langileen soldata, gure iritziz, baxuegia dela eta hori konpondu nahian egindako eskaintza langileek ez zutela onartu posible izan zen bitartean. Gainera, erantzun desproportzionatua eman zuten mugagabeko grebaren bitartez, eta orain ikusi egin beharko da Aldundiaren integrazioarekin zein aukera sortzen diren".

**KULTURA** > GOIKOBALU ABESBATZA

# Goikobaluko kideak ETB1en, datorren domekan

Ekainaren 19an ikasturte bukaerako kontzertua egingo dute, San Frantzisko elizan



Goikobaluko kantariak, telebistako saioaren grabazioan. GOIKOBALU

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Ekainaren 21ean, Goikobalu abesbatzako bost kidek, Ahotsak Studio ahots taldearekin batera, ETB1eko *Oh Happy Day 2dean* saioan parte hartuko dute. Bestalde, ikasturte bukaerako kontzertua egingo dute ekainaren 19an, San Frantzisko elizan.

Ahotsak Studio taldea ahots teknikako ikaslez osatuta dago; hain justu, Goikobalun ahots teknika ikastaroak antolatzen dituzte eta hor diharduten ikasleek, beste 10 bat kantariekin batera, Ahotsak Studio taldea osatu eta *Oh Happy Day* saioaren grabaketa egin zuten aurreko astean.

Esan beharra dago, hori bai, ez dutela txapelketa horretako castingean parte hartuko, baizik eta talde gonbidatu moduan saioari agurra emango diotela. Hamabost kantarik jardungo dute eta *Jesucristo Superstar*, *Let the sun shine* eta *Oh happy day* abestiak abestuko dituzte.

**IKASTURTEA AGURTZEKO**

Hori batetik. Izan ere, bestetik iragarri dute aurtengo ikasturtea bukatzear dagoela-eta agurtzeko kontzertua egingo dutela. Ekainaren 19an egingo dute, egubakoitza. Hitzordua egin dute San Frantzisko elizan, 20:00etan. Goikobalu Txikik lau kantuko egitaraua prestatu du eta Goikobalu Gaztek, berriz, 13 kantukoa.

Era berean, adierazi dute ikasturte berriko ateak zabalik daudela, abesbatzarako edo ahots teknika ikastaroetarako.

**oharrak**

HEZKUNTZA

**> Arizmendikoen kontzertua**

Ikasturtea agurtzeko kontzertua egingo dute Arizmendi Ikastolako abesbatzakoek. Hitzordua gaur da, ekainaren 15, San Juan parrokian, 18:00etan. Euskaraz, ingelesez eta besteak beste, japonieraz abestuko dute. 40 bat kantarik jardungo dute.

EUSKARA

**> UEUrako bekak**

Udako Euskal Unibertsitateak aurkeztu ditu aurtengo udako ikastaroak. Ba, urtero moduan, Arrasateko Udalak diruz lagunduko die ikastaro horietara joan gura duten arrasatearrei. Eskaerak egin behar dira Biztanleen Arreta Zerbitzuan. Dagoeneko zabalik dago epea.

Aintzane Agirrebeña > Badihardugu elkarteko koordinatzailea

# "Grabazioek denetarik jasotzen dute, eta beraz, oso erabilgarriak dira Arrasate ezagutzeko"

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE

**Badihardugu elkarteko koordinatzaile Aintzane Agirrebeña (Eibar, 1981) 2003an sartu zen *Ahotsak.com* proiektuan, euskal filologia ikasketak amaitu eta gutxira, hain zuzen. Euskal Herri mailako proiektua da *Ahotsak.com*, eta Arrasate da ekimen erraldoi horren zati txiki bat. Besteak beste, Arrasateko historia jasotzen duten grabaketez egin dugu berba Agirrebeñarekin.**

***Ahotsak.com* proiektuak batzen dituen Euskal Herriko 88 udalerrietatik bat da Arrasate. Baina noiz eta zein helbururekin sortu zenuten Ahotsak.com?**

2002 eta 2003 inguruan hasi ginen. Hainbat jende ibili da herriko hizkera, ohitura eta bestelakoak batzeko grabazioak egiten, gehienbat paperean ateratzeko. Hala ere, grabazio horiek guztiak kaxoi baten ahaztuta geratzen zirela konturatu ginen. Hala, material hori erabilgarri nola jarri hasi ginen pentsatzen, Internetera begira. Horrela sortu zen *Ahotsak.com*.

**Zergatik eman zenuten Deba ibarra eskualdetik kanporako jauzia?**

Deba eskualdean hasi ginen, lehen herria Bergara izan zen. Gero, pixkanaka bailarako herri guztietako grabazioak jasotzen hasi ginen eta 2007an eskualdetik irten ginen. Izan ere, eskualdetik kanpoko hainbat grabazio jaso genituen; Koldo Zuazo ikerlariak adibidez, haren ikasleek egindako hainbat grabazio eman zizkigun. Azkenean, Euskal Herri mailako proiektua bihurtu da.

**Grabazio horiek guztiak bildu eta sailkatu ostean zer egiten duzue?**

Proiektuaren helburu nagusia sortzen gabiltza fonoteka erraldoia denon erabilgarri jartzea da, herritarrak euren herrian zein material dagoen ikustea eskura izan dezan. Hori grabazioak Interneten eskegita egiten dugu. Gainera, grabazio horiek etorkizunean ikerketa batendako informazio iturri izan daitezke.

Bestalde, edozeinek har dezake parte. Hau da, proiektu erabat irekia da, eta norbaitek halako grabaziorik balu harremanetan jar daiteke gurekin.

**2008ko apirila aldera arte, baina, inork gutxik ezagutzen zuen *Ahotsak.com*.**

Hala da. Hasierako urteetan nahiko ezkutuan egin genuen lan, iaz Donostian aurkezpen ofiziala egin genuen arte.

**"Proiektuaren helburu nagusia da sortzen ari garen fonoteka erraldoia denon eskura jartzea"**

**"Lan handia egin dugu Arrasaten, AED euskara elkartearen eta Udalaren laguntzaz"**

**"Ikastetxeetan oso praktikoak izan daiteke, adibidez, bertako euskalkia lantzeko"**

***Arrasateko Ahotsak*-en kasuan halako proiektu bat oso erabilgarria izango da Arrasateko historia ezagutzeko, ezta?**

Bai, hala da. Ez da euskalkia bakarrik, herriko kontuak batzen ditugu eta herria ezagutzeko aukera ere ematen du.

Lan handia egin dugu Arrasaten, AED euskara elkartearen eta Udalaren laguntzaz. Hainbat herritarren hamaika testigantza jaso ditugu, eta pixkanaka joango gara bideoak jartzen. Egiten ditugun elkarrizketez gain, aurrez eginda dauden grabazioak jaso, digitalizatu barik daudenak digitalizatu eta ondo gordetzen ditugu. Arrasateren kasuan bereziki, gainera, badakigu jende asko ibili dela aurretik halako grabazioak egiten, herri hizkera lantzen duten grabazio asko dago, esaterako.

**Praktikan zein erabilera eman dakioke *Arrasateko Ahotsak* ekimenari?**

Grabazioek denetarik jasotzen dute; eta, beraz, Arrasate nolakoa zen ezagutzeko edozein herritarrendako izan daiteke interesgarria.

Ikastetxeetan ere oso praktikoa izan daiteke. Bertako euskalkia lantzeko oso erabilgarria izan daiteke, adibidez.

**Asko egin duzue aurretik, baina etorkizunerako ez zaizue lanik falta. Zein lan aurreikusten duzue?**

Aurrerantzean ahalik eta elkarrizketa gehien egiteko asmoa daukagu. Elkarrizketon ostean lan handia egongo da egiteko, eta horregatik lan poltsa atera dugu. Interesa duenak gure webgunean dauka informazioa.



Aintzane Agirrebeña. BADIHARDUGU



Zapatuan jende dezente izan zen kanpoko igerilekuetan. JOSETXO ARANTZABAL

UDA > BAINU DENBORALDIA

## Irailaren 13ra arte zabalik daude kanpoko igerilekuak

Eguneko bonuaren prezioa sei eurokoa da helduendako, eta hiru eurokoa haurrendako

J.B. > ARRASATE

Udaren hasiera iragartzen duen bainu denboraldia zapatuan hasi zen Musakolako kiroldegian. Kanpoko igerilekuak zabalik daude eta ez dira irailaren 13ra arte itxiko. Ordura arte hiru hilabete luze geratzen dira. Eguraldiaren baimenarekin, eguzkia hartu eta bainu freskagarri bat hartzeko 90 egun baino gehiago, hain zuzen.

Eli Roncero kiroldegiko kirol teknikariak jakinarazi duenez, ordutegia bere horretan mantenduko da. Hau da, 10:00etatik 20:30era egongo dira zabalik kanpoko igerilekuak. Bonuen prezioei dagokienez, helduek sei euro ordaindu beharko dute eta haurrek, berriz, hiru euro. Roncerok iragarri duenez, sorosle bat egongo da goizez eta bi arratsaldez. Gainera, egun osoan zehar DYAko laguntzaile bat ere egongo da bainularien segurtasuna bermatzeko.

**HAMAKEN AUZIA**

Berdegune mugatuan hamaka larregi zeudela-eta, kiroldegiak hamaken sarrera kontrolatzea erabaki du. Hala, hamaka behar dutela egiaztagiri bidez frogatzen dutenek –hirugarren adinekoek, osteoporosia dutenek...– bakarrik sartu ahalko dituzte hamakak.

Azkenik, izozkiak, jatekoak eta edatekoak salduko dituen kioskoa berreskuratu gura dute.

> ERAKUSKETAK

## Arrasate Margo taldearen erakusketa ikusgai dago Kulturaten ekainaren 28ra bitartean

Ikasturtean zehar jasotako artelan onenak hartu eta erakusketa jarri du Arrasate Margo taldeak Kulturateko klaustroan. Egubakoitzean egin zuten erakusketaren inaugurazio ekitaldi ofiziala, eta ekainaren 28ra arte egongo da zabalik.

Erakusketarekin, antolatzaileek adierazi dutenez, "urte guztian zehar gure lokalean egin duguna herriari erakutsi gura diogu". Gainera, beste helburu bat ere badu erakusketak: herriko artista bakoitzaren bilakaera islatzea. Arrasateko 20 pintura zaleren lanak ikusi ahalko dira.

Horretaz gain, pintura ikasi gura duten herritarrak erakartzeko asmoa du pintura zaleen taldeak, eta Kulturaten zabaldu duten erakusketa aukera paregabea izango da horretarako. Antolatzaileek ospitale atzean duten lokaleko ateak zabalik daudela jakinarazi dute. Irailean zabalduko dute matrikulazio epea. Lokala bakarrik erabili gura duenak elkartearen kuota ordaindu beharko du eta horrez gain, irakaslearen azalpenekin ikasi gura duenak lau hilean behin 30 euro ordaindu beharko ditu.

**KIROLA** > FRONTENISA

# Bergara Hiria Frontenis Txapelketa antolatu dute

Gaur, astelehena, irekiko dute izenemate epea. Txapelketa jokatuko da ekainaren 27an eta 28an, Udal pilotalekuan



Udal pilotalekuan jokatuko da txapelketa, ekainaren 27an eta 28an. GOIENKARIA

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA
Bergarako Kirol zerbitzuak frontenis txapelketa antolatuko du aurten. Kontua da Debagoieneko Mankomunitateak ez duela aurten lagunarteko txapelketarik antolatuko. Hori horrela, Bergarako Udalak hutsunea betetzeko asmoz, Bergara Hiria Frontenis Txapelketa antolatu du.

Ekainaren 27an eta 28an jokatuko da txapelketa hori, Udal pilotalekuan, eta 18 urtetik gorako frontenis zaleei zuzenduta dago.

**IZENEMATEA, ZABALIK**
Izena emateko epea gaur, astelehena, zabalduko dute eta zabalik egongo da ekainaren 24ra arte. Argibide gehiagorako edo izena emateko jo Agorrosin Ekintza Gunera, deitu 943 77 70 95 telefono zenbakira edo idatzi *agorrosin@bergara.net* helbidera, 07:00-22:00 ordutegian.

Izenematea da 20 euro bikoteko eta ordainketaren agiria entregatu beharko da izena ematerakoan. Ordainketa egiteko kontu korronte zenbakiak dira: 2021 0070 85 0000851907 eta 3035 0009 13 0090016873.

**UDAKO KIROL ESKAINTZA**
Bestalde, Kirol zerbitzutik gogora ekarri dute udako kirol eskaintzarako izenemate epea gaur, astelehena, itxi dutela. Hori horrela, gaur, astelehena, argitaratuko dituzte behin behineko zerrendak.

Horren ondoren, akatsak zuzentzeko epea zabalduko dute, ekainaren 16an eta 17an, eta plazak ekainaren 18an, datorren eguenean, zozkatuko dituzte.

Behin betiko zerrenak ekainaren 19an argitaratuko dituzte eta aldaketaren bat egin nahi duenak hilaren 19tik 23ra arteko epea izango du.

Ikastaroak ekainaren 29an hasiko dira eta bukatuko dira uztailaren 24an. Guztira 22 dira eta aurten ere haur eta gazte zein helduendako eskaintza bereziak egin ditu Udalak.

## Jarduneko umeek oporrak hartu dituzte urrira arte

Egubakoitzean urte amaierako jaialdia egin zuten Muniben Jarduneko arduradunek eta 250 bat gaztek. Ikasturtean barrena elkarteak antolatutako ikastaro eta bestelako egitasmoetan aritutako gazteak ziren, eta urtean barrena ikasitakoa erakutsi zuten: dantzan, trikiti zein panderoa joten, bertsotan... Oparia ere jaso zuten.



IKER BARANDIARAN

> KULTURA
### Laia Bedosen 'Gertuago' margo erakusketa, zabalik

Egubakoitzean ireki zuen artista kataluniarrak erakusketa hori, Aroztegi aretoan, eta ekainaren 18ra arte egongo da ikusgai.

Bedosek urtebete inguru darama Bergaran bizitzen eta *Gertuago* izenburupean batu ditu azken bi urteetan egindako 20 lan. Hain justu, Aroztegikoa da gure artean egiten duen lehenengo erakusketa. Kataluniako abanguardiaren, Miroren eta abarren eragina aitortzen du bere lanetan.

> ZINEKLUBA
### 'Garaje' filma eskainiko dute eguenean

Irlandako Lenny Abrahamson zuzendariaren *Garaje* filma eskainiko dute eguenean, hilaren 18an, zineklubean iluntzeko, 20:00etan.Turingo zinema jaialdian saritu zuten *Garaje*.

Ekainaren 25ean Lucia Puenzoren *XXY* emango dute zineklubean, ordu berean, Zabalotegi aretoan.

Sarrerak bi euro balio du eta leihatila zabalduko dute saio bakoitza baino ordu bete lehenago.

**JENDARTEA** > AGIFES ELKARTEA

# Buruko gaixotasunez arituko da Juan Moro psikiatra etzi

Agifes elkarteak antolatuta, 'Uno por ciento esquizofrenia' filmaren emanaldia eta ondoren berbaldia

**M.B.** > BERGARA
Debagoieneko Agifes elkarteak antolatuta *Uno por ciento esquizofrenia* izeneko filma ikusteko aukera egongo da etzi, eguaztena, 18:30ean, Zabalotegin.

Julio Medemek idatzitako gidoian oinarritutako filma da eta eskizofrenia duten hainbat gaixoren, haren familiakoen eta medikuen testigantzak dira dokumentalaren oinarria.

Proiekzioa eta gero, Juan Morok Zamudioko ospitaleko psikiatra egingo du berba. Morok dokumentalean ikusitakoa aztertzeaz gain, bertaratutakoen galderak erantzungo ditu.

Debagoieneko Agifesek buruko gaixotasunen gaineko sentsibilizazio jardunaldien baitan antolatu du saio hori. Jardunaldiak Donostian izan arren, bailaran beti antolatzen dute saio bat.

**JENDARTEA** > AISIALDIA

# Uztailerako adin guztiendako egun osoko hainbat irteera antolatu ditu Udalak

Helduentzat, besteak beste, Larrunera eta Lekeitioko kale antzerki jaialdira irteerak antolatu ditu

Gazteendako, rafting egitera eta Arcachongo aquaparkera



Besteak beste, raftinga egiteko aukera izango da. GOIENKARIA

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA
Udalak uztaileko aste bukaeretarako hainbat irteera antolatu ditu. Uztailaren 18rako Larrun eta Azkainera irteera antolatu du. 10:00etan abiatuko dira eta 20:00etan, itzuli. Herriko edozeinek eman dezake izena. Prezioa da 14 euro helduendako eta 8 euro, 4 eta 10 urte arteko umeendako. Izenematea da uztailaren 1a baino lehen eta plazak zozketa bidez emango dira. Izena ematean gehienez familia bereko bost laguneko taldeak osatu ahal izango dira.

18 urtetik gorako pertsonendako beste irteera bat ere antolatu dute, Lekeitioko Nazioarteko kale antzerki jaialdira, hain justu ere. Uztailaren 11n izango da. Irteera hori gaztetxearekin elkarlanean antolatu du Udalak.

Izena emateko jo gaztetxera uztailaren 5a baino lehen.

**GAZTEENDAKO IRTEERAK**
12 eta 18 urte bitarteko umeendako irteerak ere antolatu dituzte. Ekainaren 27an, Bidarraira –izenematea da ekainaren 13a baino lehen–; uztailaren 15ean, Zarautzera –izenematea da uztailaren 1a baino lehen; eta uztailaren 22an, Arcachongo aquaparkera –izenematea da uztailaren 8a baino lehen–. Prezioa da 20 euro bidaia bakoitza, eta plaza mugatuak dira.

Gazteendako rafting irteera ere antolatu dute. Bidarrainera joango dira, ekainaren 27an. Izenematea bukatzear da. Prezioa 20 euro da eta plaza mugatuak dira (50).

9 eta 12 urtekoak ere hartu dituzte aintzat eta Baskonia kirol hiria ezagutzeko irteera antolatu dute. Ekainaren 26an izango da eta prezioa, 20 euro. 10:00etan abiatu eta 20:00etan itzuliko dira: goizean izotz pistan ibiliko dira eta arratsaldean kanpoko igerilekuan. Izenematea da ekainaren 15a baino lehen.

Irteera guztietarako plazak mugatuak direnez, zozketa bidez erabakiko dira. Bestalde, janaria norberak eraman beharko du.

**OSPAKIZUNAK** > SAN MARTZIALGO ERROMERIA

# Eguenean hasita eska daitezke San Martzialerako mahaiak eta aulkiak

Hilaren 24ra arte eskatu ahal izango dira, kultura etxean, 18:00-21:00 arteko ordutegian


Uztailaren 5ean ospatuko da San Martzialgo erromeria. GOIENKARIA

**M.B.** > BERGARA
San Martzialen uztailaren 5ean egingo den erromeriarako mahai eta aulkiak alokairuan hartzeko epea eguenean, hilaren 18an, zabalduko du Udalak. Hilaren 24ra arte egin ahal izango dira eskariak, 18:00-21:00 arteko ordutegian, kultura etxean.

Mahai bakoitzaren alokairua 20 euro izango da, baina, horrez gain, eskatzaile bakoitzak 100 euroko fidantza ere jarri beharko du. Era berean, eskatzaile bakoitzak ezin ditu bost mahai baino gehiago eskatu, ezta mahai bakoitzeko zortzi aulki baino gehiago ere. Egindako eskaerarekin agiri bat emango diote, zein material eroan duen jartzen duena.

**MAHAIAK JASO ETA LAGA**
Mahaiak eta aulkiak jaso ahal izango dira erromeria bezperan, uztailaren 4an, zapatua, 17:00etatik 20:00etara, San Martzialgo kantina ondoan.

Erromeria egunean, ospakizuna bukatu eta gero, 19:00-21:30 bitartean entregatu beharko dira mahai eta aulkiak. Laga beharko dira Udalak horretarako pankarta batekin ondo seinaleztatuko duen kantina ondoko gunean. Materiala entregatzen duenari Udaleko zigilua jarriko zaio. Hori horrela, eskaera egiterakoan kultura etxean emandako orria eraman beharko da materiala entregatzean, han jarriko diote-eta zigilua. Mahai zein aulkiak entregatutako egoera berean eta esandako ordutegian entregatzen ez duenak ez du zigilurik jasoko eta, ondorioz, fidantza galdu egingo du. Izan ere, zigilatutako orri hori entregatu beharko da fidantza jasotzeko.

**FIDANTZA JASO**
Fidantza jasotzeko egutegia da uztailaren 7tik 13ra –biak barne–, astegunetan, 18:00-21:00 arteko ordutegian, kultura etxean.

Udaleko Kultura Zerbitzutik jakinarazi dutenez, aurten ez da Oñatiko maharik alokatzeko aukerarik egon, zerbitzua ematen zuen enpresak laga egin duelako jarduera.

## oharrak

DEIALDIA
**> Appaldek urteko batzarra egingo du eguenean**
Hilaren 18an, eguena, urteko batzarra egingo du Appaldek Oñatin. Euskaltegian egingo dute batzarra (Bidebarrieta 18), 17:00etan.

BAZKARIA
**> Umore Onako bazkideen bazkaria San Martzialen**
Umore Ona elkarteko bazkideek urteroko bazkaria egingo dute ekainaren 28an, San Martzialen. Hori horrela, bazkarira joan nahi duten bazkideek izena eman beharko dute elkartean. Bazkide bakoitzak gonbidatu bat eraman ahal izango du.

IKASTAROA
**> Udal Euskaltegiak ikastaro trinkoak emango ditu**
EGA, HABEko 3. maila eta gainerako maila guztiak emango dituzte uztail eta irailean. Matrikula egiteko epea da ekainaren 28ra arte, bulego orduetan. Informazio gehiagorako deitu 943 76 44 53 zenbakira edo idatzi *berg.eusk@udal.gipuzkoa.net* helbidera.

MATRIKULAZIOA
**> 2009-10 ikasturterako matrikula epea zabaldu dute Musika Eskolan**
Ikas daitezke aurre hizkuntza musikala, hizkuntza musikala, helduen hizkuntza musikala eta instrumentuak, besteak beste. Matrikula egiteko 18 euroko kuota ordaindu behar da. Informazio gehiagorako edo izena emateko deitu Musika Eskolara 15:30-19:30 ordutegian (943 76 57 80).

GAZTEAK
**> Bidaiatzeko gida berriak ditu Gazte Informazio Bulegoak**
Gida horiek dira: Alemania, Brusela, Brujas, Anberes eta Gante, Egipto, Florentzia, Hungaria, Ingalaterra eta Gales, Maroko, Zeelanda Berria, Tunisia, Venezia eta Euskal Herria, 70 herri ezagutzeko. Gidak maileguan har daitezke, hamabost egunerako, doan. Maileguan hartzeko ez da inongo txartelik behar; izen-abizenak eta telefono zenbakia ematea nahikoa da honetarako.

IKASTAROAK
**> Beste 15 ikastaro emango dituzte KZgunean ekainean barrena**
Internet+e-Administrazioa, sinadura elektronikoa, blogger, Google tresnak, Skype, sare sozialak eta irudi digitalen tratamenduaren gaineko 15 ikastaro emango dituzte ekainean KZgunean, ekainaren 1etik aurrera. Informazio gehiagorako idatzi *tutor.bergara@kzgunea.net* helbidera edo deitu 943 76 73 24 zenbakira.

**INGURUMENA** > AGENDA 21

# Herriko uraren diagnosia egin dute bigarren urtez eskoletako ikasleek

Agenda 21 proiektuan aztertutakoa azaldu zioten alkateari, osoko bilkura berezi baten

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

Eskolako Agenda 21 proiektuaren barruan herriko uraren egoera aztertu eta ikertu dute herriko lau ikastetxeetako neska-mutikoek. Ikertutakoa azaltzeko eta eurek hartutako konpromisoen berri emateko Elkar Hezi-Mikel Aozaratzako, Txantxiku Ikastolako, Errekalde Herri Eskolako eta Zuazola-Larraña institutuko ikasleek osoko bilkura berezia egin zuten alkatearekin apirilaren 29an.

**BI LAN MOTA**

Ikasleek bi motatako lana egin dute: alde batetik, ikastetxe barruan askotariko lanak egin dituzte; besteak beste, prezipitazioak eta tenperaturak neurtu dituzte, klimogramak egin dituzte eta errekako ekosistemak aztertu dituzte. Beste alde batetik, herri mailako diagnosia egin dute. Uraren inguruko hainbat irteera egin dituzte.

Ikastetxe bakoitzak ateratako ondorioak batzeko eskolarteko foroa egin zuten. Han, udalari aurkeztu beharreko proposamenak eta konpromisoak zehaztu zituzten.

Urari erabilera egokia emateko eta kontsumoa aurrezteko hainbat konpromiso hartu dituzten ikasleek. Esan zuten norbere etxean eta leku publikoetan (iturrietan, tabernatan eta komun publikoetan, besteak beste) ura hobeto erabiltzen ahaleginduko direla; txorrota zabaltzen dutenean beharrezko kopurua erabiliko dutela; eta dutxak laburragoak eta xaboi gutxirekin egingo dituztela.

Era berean, gurasoekin batera, etxean neurriak hartuko dituztela esan zuten: besteak beste, ura aurrezteko sistemak jarriz. Adibidez, garbigailua beteta dagoenean bakarrik jarriko dute martxan. Gainera, esan zuten uraren faktura irakurtzen ikasiko zutela kontsumoa kontrolatzeko.

**ITURRIAK ETA ERREKAK**

Bestalde, herrian dauden iturrien gaineko konpromisoak hartu zituzten. "Iturrietako urarekin ez dugu jolastuko eta ura edangarria eta ona bada, bertatik edango dugu", esan zuten.

Era berean, esan zuten errekako kutsadura maila gutxitzeko ahalegina egingo dutela eta ez dutela zaborrik botako uretara.

PROPOSAMENAK

**ITURRIAK**
- Kaleko iturri askoren emaria litro eta erdikoa da, eta neurriak hartzea eskatu dute.

**HERRIKO INSTALAZIOAK**
- Ur depositoak jarri herrian.
- Autoak garbitzeko gune publikoa.
- San Lorentzo eta Errekalde arteko tunelean konponketak egitea.

**KIROLDEGIA**
- Kantxako itoginak konpontzea.
- Kiroldegi zaharreko dutxetan tenperatura erregulatzeko sistema jartzea.

**ERREKA**
- Lantegietako isurketak kontrolatu, eta errekak garbitzeko kanpaina egin.

**FAKTURAK**
- Pertsonako ur kontsumoa neurtzea.
- Fakturetan herritarrei informazioa zabaltzea.

**LANAK** > ERABERRITZEA

# Hainbat kultur taldek erabiltzen duten Errekaldeko eskola txikia eraberrituko dute

Ganbara Abesbatzak, bertso eskolak eta txistulari taldeak erabiltzen dute eskola

Egaralur enpresak eraberrituko du eskola txikia barrutik eta kanpotik



Errekaldeko eskola txikiaren egoera eskasa da, bai barrutik eta baita kanpotik ere. MIREIA BIKUÑA

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

Herriko hainbat kultur taldek entseguetarako erabiltzen duten Errekaldeko eskola txikia eraberritzeko erabakia hartu du Udalak. Besteak beste, Ganbara Abesbatzakoek, txistulari taldekoek eta bertso eskolakoek erabiltzen dute Errekaldeko auzoko 34. zenbakiko eraikina.

Nahiko zaharkituta dago, bai barrutik eta baita kanpotik ere. Egoera ikusita Udalak eraikina eraberritzea adostu zuen. Lehenlehenik Guerra-Zelaia arkitektoek eraikinaren egoeraren gaineko balorazioa egin zuten eta 12 lan ezberdin egitea aurreikusi zuten. Dena den, kultura batzordeak erdiak egitea adostu du.

Udal arduradunek Guerra-Zelaia arkitektoek egindako proiektua onartu dute, eta eraberritze lanek 44.142 euroko aurrekontua izango dute.

**LANAK BARRUTIK ETA KANPOTIK**

Aurrekontu totalaren zatirik handiena (20.500 euro) Ganbara Abesbatzak entseguetarako erabiltzen duten gela (hiru zenbakiduna) txukuntzea izango da. Gela berean beste lan bat ere egingo dute; hau da, gela intsonorizatu (6.900 euro inguru).

Bestalde, bertso eskolako lagunek erabiltzen duten bigarren gela txukundu egingo dute, eta eskolak emateko egoera onean jarriko dute. Lan horien aurrekontua 5.500 euro inguru da. Era berean, eskolan diharduten taldeek erabiltzen dituzten komunak eraberritu egingo dituzte.

Kanpotik ere itxura aldatuko diote Errekaldeko eskola txikiari. Alde batetik, leihoak aldatu egingo dituzte eta aluminiozkoak jarriko dituzte. Beste alde batetik, atondoa eta eskolaren sarrera txukundu egingo dituzte. Lanok egiteko aurrekontuak eskatu zituzten udal ordezkariek, eta aurkeztutako bietatik Egaralur enpresak egindakoa onartu zuten.

Alkateak esan digu eraberritze lan guztiak batera egingo dituztela, eta datozen egunetan hasiko direla.

oharrak

AISIALDIA
**> Ate irekiak ludotekan**
Gaurtik hilaren 26ra arte, eta astelehenetik egubakoitzera zabalduko dituzte ateak 17:00etatik 20:00etara arte. Ludotekan 4-10 urte arteko neska-mutikoendako ekintzak antolatzen dituzte.

DEIALDIA
**> 39ko kintoek bazkaria egingo dute ekainaren 28an**
70 urte betetzen dituzten emakumeak Etxeberria jatetxean elkartuko dira, 14:30ean. Aurretik meza ospatuko dute Benediktarren elizan. Izena emateko 943 78 03 50 (M Angeles Arriaran) telefonora dei daiteke.

KIROLA
**> Udako kirol kanpainako izenematea, gaurtik aurrera**
Behin betiko izenematea gaurtik egubakoitzera arte egin daiteke, norbere orduan. Lehen txanda ekainaren 29an hasiko dute.

DEIALDIA
**> 82ko kintoek afaria egingo dute ekainean**
1963. urtean jaiotakoek afaria egingo dute ekainaren 27an Etxeberria jatetxean. Interesatuek 666 44 41 20 telefonora deitu beharko dute.

ERRETIRATUAK
**> Arrantza txapelketarako izenematea eguaztenetik aurrera**
Eguaztenetik egubakoitzera Pago Uso elkartean eman diteke izena 20:00etatik 21:00etara. Txapelketa domekan egingo dute 09:00etatik 12:00etara. Parte-hartzaileak lau taldetan banatuko dituzte: alebinak, infantilak, gazteak eta helduak.

**ARETXABALETA** > UMOREA

# Arkupen egongo da gaur Elvi, 'Ventriloqueando' lanarekin

Sabeliztunak erretiratuendako emanaldia eskainiko du, 16:00etan

Gainera, bihar pintura ikastaroan egindako lanekin erakusketa zabalduko dute

**MIRIAN BITERI** > ARETXABALETA

Elvi Ventri-Loco sabeliztuna Arkupen izango da gaur, astelehena. Erretiratuendako *Ventriloqueando* izeneko ikuskizuna eskainiko du Elvi Ventri-loco izenaren atzean ezkutatzen den Ramon Irizarrek, Zaraia aretoan, 16:00etan.

Ordubete inguru irauten duen emanaldian Elvik hainbat pertsonai aurkeztuko dizkie ikusleei. Horiekin umorean oinarritutako elkarrizketak, *sketchs*-ak eta istorioak kontatuko ditu. Panpinekin batera, hainbat objektu erabiliko ditu, horiei bizia eta mugimendua emanez. Ikuskizuna amaitu aurretik, publikoaren parte hartzea eskatuko du.



Ventri sabeliztuna Arkupen egongo da gaur arratsaldean. GOIENKARIA

Sabeliztunaren arloan esperientzia handia du Ventrik. Jendea entretenitzeko modu hori zirkotik datorkio. Gaztea zela, Europako hainbat zirkutan, pailazo lanak egin zituen bitartean, klown, magia, antzerkia eta musikan lehen urratsak eman zituen. 1989. urtean, sabeliztunen artean murgildu zen. Ordutik hona, arlo hori telebistarekin uztartu du.

**MARGOLANAK IKUSGAI**

Ventriren umore emanaldiaz gain, badaude Arkupen beste hainbat ekimen. Zirkoa eta txotxongiloen gaineko erakusketa gaur arte bisitatu daiteke; eta bihartik aurrera, pintura ikastaroan parte hartu dutenen lanak ikusi ahalko dira ondorengo ordutegian: astelehenetik egubakoitzera, 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara; eta zapatuetan, 11:00etatik 13:00etara. Ekainaren 30a arte egongo da erakusketa hori zabalik.

Eguenean, bestalde, Zigor Etxeberriak *Crecer navegando* ikus-entzunezkoa eskainiko du Zaraia aretoan, 19:30ean. Ekimenik ez da falta asteon Arkupen.

**ESKORIATZA** > JAIALDIA

# Luis Ezeizakoak ezin hobeto ibili ziren

Ikasturteari amaiera emateko, jaialdia egin zuten zapatuan, eguraldia lagun izan zutela

**M.B.** > ESKORIATZA

Ez zen ezer falta Luis Ezeiza eskola publikoaren jaialdian. Eguraldia lagun izan zutela, egun ederra eta berotsua pasa zuten zapatuan. Etxeko txikienek askotariko ekimenak izan zituzten goiz partean herriko plazan. Antzerkiaz gain, tailerrak eta jolasak izan zituzten han. Jarraian, eguerdian, ikastetxeko patiorantz, bazkaltzeko. Guztira, ehun lagunetik gora bildu ziren eskolako arkupetan. Umeak denbora gutxi egon ziren aulkian jarrita, puzgarriak eta, beroari aurre egiteko, ur-jolasak zain zituzten-eta. Karaokea gustuko zutenek abesteko aukera izan zuten. Ziurrenik, denak neke eginda iritsiko ziren etxera.



Bazkaldu ostean ere txikienak jolasten ibili ziren. M.B.

> ARETXABALETA

### Hamar etxebizitza tasatuen zozketako emaitzak, ikusgai

Orain dela gutxi egindako osoko bilkura batean baldintza berriak adostu ostean, joan den eguaztenean, ekainak 10, Udalak Txarapeako ingurunean eraikitzen ari diren hamar etxebizitza tasatuen zozketa egin zuen.

Zozketa horren emaitzak dagoeneko ikusgai daude Aretxabaletako Udalaren webgunean: *www.aretxabaleta.com*-en webgunean, hain zuzen. Aretxabaletarrak ez dira zozketa horretan parte hartu duten bakarrak; debagoiendarrek ere aurkezteko aukera izan dute oraingoan.

> ESKORIATZA

### Ibon Biteri izango da Eskoriatzako bake epaile berria

Eskoriatzan egindako azken osoko bilkuran bake epaile titularra eta ordezkoaren izendapenak onartu zituen udalbatzak. Hemendik aurrera Ibon Biterik beteko ditu bake epaile lanak. Hasiera baten, izendapena lau urterako da eta horren ordainsaria 1.700 euro ingurukoa.

Horretaz aparte, esan bezala, ordezkoa ere izendatu zuten udalbatzakoek. Orain arteko karguaren titularra izan den Arantxa Iregi izango da, beharrezkoa izan ezkero, Ibon Biteri ordezkatzeaz arduratuko dena.

Hirusta
Jatetxea
Ilargi plaza 4
943 79 06 57
ARETXABALETA

LENIZ
ESKORIATZA
SUZUKI
Konponketak: Txapa, Margoa, Mekanika
Bigarren eskuko autoen salerosketa, inyektoreen konponketa eta I.A.T aurreko azterketa
Aingeru ibiltokia 31 • ESKORIATZA • Tel.: 943 71 50 61 • Faxa: 943 71 31 45


Mairuaren pertsonaia beste norbaitek aurkeztuko du aurten. GOIENKARIA

**ANTZUOLA** > MAIRUAREN ALARDEA

# Alardean parte hartzeko jende gehiago behar da

Orain arteko parte hartzaile batzuek gazteagoei utzi nahi diete tokia, eta Alardearen aldaketekin jende paper gehiago sortu dira

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ANTZUOLA
Mairuaren Alardea, herriko jaietako ikuskizun garrantzitsua izanik, urteetan barrena herritar askok hartu du parte eta antolatzaileek euren borondatea eskertu nahi dute.

Aurten ere askok uztailaren 18ko Alardeko hitzorduari huts egin barik, ekitaldian duten paperari eutsi egingo diote ilusioarekin. Beste batzuek, ordea, Alardeko euren tokia belaunaldi berrietako antzuolarrei uztea erabaki dutela jakinarazi digute Mairuaren Alardea biziberritzeko taldea osatzen duten antzuolarrek.

**LUDOTEKA BERRIA**
Gainera, aurten Mairuaren Alardea egokitu egingo da ekitaldia ikusgarriagoa egiteko asmoz. Aldaketak zehazteko lanean jardun du Udal ordezkariz, Alardeko Elkarteko kidez eta hainbat herritarrez osatutako talde batek; eta ikusi dute partaide gehiago behar direla.

Hortaz, herritarrak animatu nahi dituzte Alardean parte hartzera. Interesatuek ekainaren 15a dute azken eguna udaletxera deitzeko (943 76 62 46) edo *kultura@antzuola.net* helbidera idatziz izena emateko.

**GISATU LEHIAKETA** > ARAUAK

## Zapatuan gisatu onena herriko zein koadrilak egiten duen jakiteko, guztia prest

Koadrila egunako korro-dantzak irakasteko asteon hiru saio eskainiko ditu Espaloian Patxi Monterok

**LARRAITZ ZEBERIO** > ELGETA
Sagardo egunean tortilla lehiaketa egiten den moduan, aurten lehenengo aldiz egingo den Koadrila egunean gisatu lehiaketa proposatu du jai batzordeak. Herriko plazan egingo da hilaren 20an, zapatua.

**10 LAGUNENDAKO GISATUA**
Lehiaketaren arauak lau dira. Partehartzaileek gutxienez hamar lagunendako gisatua prestatu beharko dute. Osagaiak okela eta patata izango dira, baina saltsa egiteko gura dituzten osagai guztiak erabili ahal izango dituzte.

Epaimahaiko kideek bi puntuazio ipiniko dizkiote kazola bakoitzari; 0tik 10era gisatuaren puntua eta zaporea baloratuko dituzte. 0tik 5era, berriz, kazolaren itxura. Lehiaketa 10:30ean hasiko da eta koadrilek hiru bat ordu izango dituzte lana egiteko. 13:30etik 14:00ak bitartean aurkeztu beharko dituzte-eta kazolak.

**KORRO-DANTZEN IKASTAROA**
Gisatu lehiaketaren sari banaketa 16:30ean egingo da, herri bazkariaren ostean. Gero, dantzan egiteko aukera egongo da Erdizka Lauetan taldearen eskutik. Erromeria horretan dantzatuko diren korro-dantzak aurretik ikasi nahi dituztenendako, hiru saio egingo ditu asteon Patxi Monterok Espaloian. Interesatuak hilaren 17an, 18an eta 19an elkartuko dira kafe antzokian 19:00etatik 21:00etara. Jauziak, Lantzeko zortzikoa, zirkulu zirkasiarra eta Chapelloise bikotekako korrodantzak zein Europa erdialdetik datorren Scottish bikote dantzak irakatsiko ditu.

**ARAMAIO** > ONDAREA

# AOBTkoek lehen auzolana egingo dute zapatu honetan

Aramaioko ondarea berreskuratzeko lehen ekinaldia egingo dute ekainaren 20an; Andramariko eskailerak konponduko dituzte

**A.B.** > ARAMAIO
Aramaioko Ondarea Berreskuratzeko Taldea hitzetatik ekintzetara pasatuko da. Hilabete honetarako bi deialdi egin dituzte AOBTkoek. Lehenengoa datorren zapaturako da, ekainak 20, eta Aramaioko ondarea berreskuratzen hasiko dira auzolanean; talde batek Andramariko eskailerak konponduko ditu eta beste taldeak Maskañoko iturria konponduko du. Hilaren 27rako ere deialdia egin dute, egun horretan Sastiñatik Ametzura doan bidea garbitzea eta txukuntzea da asmoa. Herritarrei auzolanera batzeko deia egin diote AOBTkoek.

Dena dela, hauek ez dira taldearen asmo bakarrak, herri mailan berreskuratu nahi dituzten elementuen gaineko proiektu orokor bat landu dute eta diru-laguntzak jasotzeko zain daude, lanean hasteko.


Andramari ermitaren inguruan jende asko batzen da. GOIENKARIA

**LEINTZ GATZAGA** > TURISMOA

## Bisitari asko dabiltza azken asteotan gatz museoan

Zapatuan auto elkarte bateko kideak; gaur eta bihar Kantabriatik datozen taldeak

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA
Bisitari ugari dabil azken asteotan Eugenio Otsoa gatz museoan. Halaxe adierazi digu Aitziber Gorosabel arduradunak eta pozik azaldu da museoak sortutako interesaren aurrean. Azken hilabetean talde asko izan dira, tartean Arizmendi ikastolako Almenekoak eta Bergarako Berbalagun egitasmokoak. Zapatuan, ostera, automobil elkarte bateko kideak elkartu ziren eta gaur eta bihar Kantabriatik datozen taldeak izango dituzte gatzaren prozesuaren gaineko argibideak entzuten.

**TURISMO ZERBITZUA BULTZATU**
Lehiaketara atera zuen Udalak gatz museoaren kudeaketa otsailean. Eskaintza bakarra aurkeztu zen, ordura arte ere sei urteotan museoa kudeatu zuen Gorosabelena. Bi urterako hartu du ardura oraingoan eta tarte horretan turismo zerbitzuari bultzada handiagoa ematea du helburu. Gainera, hobekuntza batzuk egin gura ditu Udalak museoan eta asmoa da Santa Kolunbako ermita berritu eta museoko harreragela bihurtzea. Oraingoz teilatua konpontzen dabiltza.

**ASTE BUKAERAN ZABALIK**
Bisita gidatuak zapatu eta domeketan egiten dituzte: 12:00etan (euskaraz) eta 13:00etan (gazteleraz.) Astean zehar bisitatzeko, ostera, aurrez eskatu behar da hitzordua Labidea dendara deituta (943 71 47 92).

# Kirola



**> PILOTA**
Hernaniri 2-1 irabazita eskuratu zuen Bergarak atzo Herri Arteko Pilota Txapelketa **> 22-23**



**> ATLETISMOA**
Herrikideak eta Chema Martinez atzean utzita, Peter Kirui izan zen zapatuan azkarrena **> 24**



**> FUTBOLA**
Mondrako neskak ez dira nazional mailara igoko, Abantoren kontra 1-3 galdu eta gero **> 25**



GAZTEA *Goenatxo III.*-ak aitaren omenaldi jaialdian parte hartu zuen. A.BARRUSO



BETERANOA *Goenatxo*-k erakutsi zuen ez duela parekorik. A. BARRUSO

**HERRI KIROLAK** > ELOSUKO OTABA JAIAK

# Goenatxo II.a Elosuko jaietako protagonista nagusia izan da

**OMENALDIA**
Elosuarrek 'Goenatxo' harri-jasotzailea omendu zuten

**ESKER ONAK**
Urtetan Otaba jaietan egindako lana eskertu nahi izan zioten

**ARRITXU BARRUSO** > BERGARA

Urtero moduan lan bikaina egin du *Goenatxo II.*-ak Elosuko Otaba jaietako herri kiroletako proban eta beste behin erakutsi du harria jasotzen ez duela parekorik. Zapatukoa, gainera, erronka garrantzitsua zen *Goenatxo*-rendako. 200 kiloko harria jaso behar zuen, baina hori ez zen arazoa; erraz egin zuen bere lana. Omenaldi jaialdia zen zapatukoa eta protagonista eta omendua, berau. Elosuarren harri-jasotzaile kuttunetako bat da *Goenatxo* eta horixe bera erakutsi nahi izan diote auzotarrek aurten. "Elosuarrok asko maite dugun pertsonaia da *Goenatxo*. Otaba jaietan urterourtero etorri izan da herri kirolетako probetara eta beti dago laguntzeko prest. Horregatik, geuk ere, Otaba jaiak aukeratu ditugu gure eskerrik onenak emateko", azaldu digu Ainhoa Beristain Elosuko auzo-alkateak.

Omenaldia herri kirolekin hasi zuten: harri-jasotzaileak, aizkolariak eta ahari proba izan zituzten. Hunkigarria izan zen, gainera, *Goenatxo III.*-ak bere aitaren omenaldi jaialdian parte hartu izana eta harri-jasotzaile gazteak txalo zaparra jaso zuen ekinaldia bukatutakoan. Esaera zaharrak dioen moduan: *Holako egurra, halako ezpala*.

Kirolak amaituta sabela betetzeko garaia iritsi zen. Herri bazkaria egin zuten Elosuko frontoian. Gau guztian zehar erretzen egondako txahala jan zuten. Momentu hunkigarriena bazkalostean etorri zen, auzotarrek bera irudikatzen duen eskultura bat eman zioten-eta *Goenatxori*. Bazkalostea Narbaiza eta Gorrotxategi bertsolariek girotu zuten, eta horien bertsoetan ere harri-jasotzaile elosuarra izan zen protagonista. Elosuarrek benetan festa borobila antolatu zuten auzoko harri-jasotzaileari eskerrak emateko.

**Juan Jose Unanue 'Goenatxo'** > Harri-jasotzailea

## "Elosuri eta elosuarrei laguntzeko beti egongo naiz prest"

**A.B.** > BERGARA

**Elosuko Otaba jaietan omenaldia egin diote *Goenatxo II.*-a harri-jasotzaileari.**

**Urduri samar zaudela esan digute...**

Halaxe da, bai. Egun garrantzitsua da gaur niretako eta normala den moduan, apur bat urduri nago. Omenaldia egingo zidatela esan zidatenean hunkitu egin nintzen. Elosu eta elosutarrak garrantzitsuak dira niretako.

**Zer da Elosu zuretako?**

Elosutik lau kilometrotara bizi naiz, baina Elosu nire auzoa da. Asko etortzen naiz.

**Auzotarrek diote beti zaudela laguntzeko prest eta horixe da, besteak beste, eskertu nahi dizutena.**

Noski baietz, Elosuri eta elosuarrei laguntzeko beti egongo naiz prest.

**Omenaldian zure semeak ere parte hartu du. Suposatzen dut ilusioa egingo dizula horrek ere, hala?**

Bai. Oso hunkigarria da biondako. Niretako, noski, baina baita semearendako ere; aitaren omenaldiko jaialdian parte hartzeko aukera izateagatik.



A.B.

**PILOTA** > HERRI ARTEKO PILOTA TXAPELKETAKO FINALA

# "Pim pam pum, Bergara txapeldun!"

## Kadete eta senior mailako partiduak irabazita, Bergarara eraman zituzten atzo txapelak

## Seniorren partidua puntakoa izan zen; Atano III.a beteta, joko ona eta emozioa azkenera arte

**XABIER URTZELAI** > BERGARA

Bergarako herriak harrera beroa egin zien atzo Herri Arteko Txapelketako txapeldunei. Galdu ala irabazi, hitzordua zuten herriko plazan. Baina galtzea ala irabaztea ez da gauza bera, eta horrelako omenaldiak txapeldunak hartzen ditu gusturen.

Egin zuten bai, omenaldia, baina txapela buruan zutela. Eta egon zen zer ospatu, 32 urte igaro direlako Bergarak azkeneko finala jokatu zuenetik –1977an–. Orduan galdu egin zuten, baina oraingoan txapelak gurekoek ekarri dituzte etxera.

Hala, Bergarak dagoeneko txapelketa horretako bi txapel irabazi ditu, atzo irabazitakoa bata; eta 1968an, txapelketako lehen edizioan, gaur egungo Aspeko kirol teknikari den Etxanizen aitak eta konpainiak lortutakoa bestea (Final hartan Urretxuren kontra Gonzalez, Arazkonaga, Altuna, Gallastegi, Garitano eta Etxaniz lehiatu ziren).

**BERGARAK 2, HERNANIK 1**

Atzo goizeko lehenengo partiduan ondo bideratu zuen Bergarak finala. Mikel Gallastegik eta Beñat Rezustak aukera txikiena ere ez zieten eman Hernaniko Elortzari eta Lujanbiori (4-22).

Partidua hasi eta berehala aurreratu ziren bergararrak, eta mahoneroek 17 tanto egin zituzten jarraian. Hala, Hernaniko atzelari Lujanbio ezinean ibili zen, Gallastegik eta Rezustak ondo zekitelako zer egin. Halako batean egin zuen Hernanik tantoa (17-1). Beste hiru tanto ere egin zituzten (17-4) –azkena Rezustaren hutsa–, eta Gallastegi atzelaria animatzera joan zenean Rezustak keinu argigarria egin zion, lasai zegoela esanez moduan, partidu hura irabazita zeukatela iragarriz.

**GAZTEEK GALDU**

Kadete mailako partidua irabazita, Bergarakoek argi zeuzkaten kontuak: seniorrek erabakiko zuten finala. Izan ere, gazte mailan Gorka Irizar eta Aritz Rezusta gogotsu kantxaratu ziren, baina bazekiten kontrarioa zela faborito. Eta Hernaniko Aizpitartek eta Arrietak berehala erakutsi zuten zergatik ziren faborito. Konturatu orduko 8-1 ziren aurretik, baina Bergarako pilotariek aparteko ahalegina egin zuten markagailuari eusten. Aipatzekoa izan zen, esaterako, 8-2koa. Irizar atzelariak zabalera egin zuen korrika, eta elegantzia handiz, zabalean utzi zuen pilota. Hurrengo tantoan (8-3) Hernanikoek gora bota zuten, eta baziruditen Bergarakoak bazetozela poliki-poliki gora, baina irudipena izan zen. Tanto gogorra izan zen 11-4koa. Batera eta bestera ibili ziren denak, baina ordurako Hernanik erabakita zuen estrategia: pilota guztiak atzera.

Bergarako atzelariak gogotik bota zuen izerdia, eta Rezustak lagundu bazion ere, tantoak erraz galtzen hasi zen, nekearen seinale (19-6). Oraindik Rezustak izan zuen tanto polit bat egiteko astia (21-8), baina ordurako erabakita zegoen partidua (22-8).

**SENIORRENA, EDERRA**

Poliki-poliki Bergarakoen aurreikuspen guztiak betetzen ari ziren, eta azkena geratzen zen, seniorretako partidua irabaztea. Ordurako Atano III.a pilotalekuak final bateko itxura osoa zuen.

Partidua hasi eta Hernaniko Ojuelek eta Gorrotxategik eman zituzten lehenengo bi kolpeak (2-0). Eneko Muguruzak azeleratuta hasi zuen partidua, eta Ander Muguruza eta Reyes Azkoitia arduratu ziren partidua luze joko zuela gogorarazten. Hasierako hutsak alde batera utzita ikusgarria izan zen Enekok 5-5ekoan ezker gantxoz sakea moztuta egin zuen tantoa (5-6). Bergara lehenengoz jarri zen aurretik, baina Hernanik ez zuen amore eman (8-6).

Berriro ere atzetik, Muguruzatarrek bi gauza izan zituzten aldeko: burua hotz mantendu zutela, eta tanto gogorrenak euren aldekoak izan zirela; horrek azpijana egin zuen Hernanikoen adorean. 9-8koan Bergarak sekulako defentsa erakutsi zuen. Hernanik dena probatu zuen erasoan, baina ezin tantoa egin; hala, Hernaniko bi pilotariek lurrean amaitu zuten tantoa, leher eginda. Oraindik aurretik baziren ere, hor hondoratu zen Hernani. Hortik aurrera Bergarakoek 9-9koa egin eta beste sei tanto egin zituzten segidan 9-16. Gorrotxategi hustuta, Bergarako lehengusuek ez zuten errukirik izan: lanak atzera. Ordurako pilotalekuan garbi entzuten zen: "Pim pam pum, Bergara txapeldun!".

REYES AZKOITIAREN ESANAK

### "Talde bat gara, horregatik nago harro"

Pilotariendako ez ezik, Reyes Azkoitiarendako ere egun berezia izan zen atzokoa. Atanoko harmaileetatik ere iritsi zitzaion errekonozimendua, zaleek askotan goraipatu zutelako haren izena: "Pilotariek uste badute txapel honen zatitxo bat nirea ere badela, ni pozik. Izan ere, sekulako zortea daukat mutil hauekin denekin lan egitearren. Hain zuzen, horregatik nago harro, talde baten moduan funtzionatzen dugulako".






Bergarako pilotariak, Reyes Azkoitiarekin batera, finala ospatzen; ezkerrean Hernaniko Ojuel burumakur takoak kentzen, eta eskuman Bergarako alkatea pozik, ospakizuna gertutik jarraitzen. IÑIGO ZAITEGI



Azkoitia atsedenaldian Muguruzatarrei aholkuak eman eta animatzen. X.U.



Bergarako pilotariak sagardotegitik bueltan; harrera beroa izan zuten plazan. JOSETXO ARANTZABAL

BERGARAKO PILOTARIAK



**Mikel Gallastegi eta Beñat Rezusta**
Kadete mailako pilotariak

## "Aurten partidu bat baino gehiago jokatu dugu euren kontra; ez genuen espero horren erraz irabaztea"

Kadete mailan bergararrek ondo zekiten ordezkari sendoak zituztela: "Aurten behin baino gehiagotan jokatu dugu Hernaniko bikotearen kontra eta egia da partiduak nahiko erraz irabazi ditugula. Eta finalean partidua irabaztea espero genuen, baina horren erraz irabaztea sorpresa izan da guretako. Partidua hasi eta hamazazpi tanto egin ditugu jarraian, eta hor abantaila handia hartu dugu. Baina, euren lehenengo tantoak iritsi direnean, ez gara batere urduri jarri eta aurrera egin dugu gure jokoarekin".



**Gorka Irizar eta Aritz Rezusta**
Gazte mailako pilotariak

## "Hasieratik aurrera hartu dute eurek, eta behin eta berriro bota dute pilota atzera; gu baino gehiago izan dira"

Gazte mailakoen partidua amaituta, Irizarri eta Rezustari igartzen zitzaien leher eginda eta atsekabetuta zirela. Partidu aurretik ere bazekiten zail izango zutela Hernaniko bikotea mendean hartzea: "Bagenekien partidu gogorra geneukala aurrean, baina hala ere gauzak ondo egiteko ilusioarekin etorri gara. Baina hasieratik aurrea hartu dute, eta pilotak atzera botatzen hasi dira. Gorkak eta biok ahal duguna egin dugu, baina...", adierazi zuen Rezustak. "Ez dugu ondo jokatu, eurak gehiago izan dira eta gainera zorteak ere bizkarra eman digu".



**Ander Muguruza eta Eneko Muguruza**
Senior mailako pilotariak

## "Bagenekien finalera jende asko etorri behar zela, baina ez horrenbeste; txapela zaleena ere bada"

Senior mailako partidua zen erabakigarria, eta Muguruzatarrek ez zuten kale egin: "Galtzen hasi garen arren ez gara larritu, bagenekien dakigun moduan jokatzen bagenuen partidu luzea izan behar zela. Hala, partiduaren lehen zatian ondo eutsi digute, baina bigarren zatian Gorrotxategik behera egin du, eta orduan egin dugu markagailuan aurrera". Zaleen gainean ere bazuten zer esan: "Harmailetan egon den giroa sekulakoa izan da. Bagenekien jendea etorriko zela, baina ez horrenbeste. Gaur irabazitako txapela eurena ere bada".




Peter Kirui (29:04) keniarra, iazko lorpena errepikatu eta zapatuan ere azkarrena, helmugan. JOSETXO ARANTZABAL




Chema Martinez, afrikarren artean, herriko plazara iristen. J.A.




Podiumean Kirui (lehena), Martinez (bigarrena) eta Messel (hirugarrena). J.A.

**ATLETISMOA** > NAZIOARTEKO HERRI LASTERKETA

# Peter Kiruik neurria hartu dio Oñatiko nazioarteko lasterketari

Proba amaitzeko bi itzuli geratzen zirenean erritmoa aldatu eta iazko irabazle Peter Kiruik atzean utzi zituen denak, baita Chema Martinez ere

**XABIER URTZELAI** > OÑATI

Peter Kiruik erritmoa aldatzea erabaki zuenean amaitu zen zapatuko lasterketa. Ordura arte Keniako gainontzeko herrikideek jarritako erritmoa jarraitu baino ez zuen egin, baita Chema Martinezek ere. Eta Kiruik kolpe erabakigarria jo zuenean, parean ziren ikusleak harrituta geratu ziren, oso erraz egin zuelako aurrera. Kiruik pare bat kale baino ez zituen behar izan 50 metroko abantaila lortzeko, eta Chema Martinez bakarrik izan zen keniarra jarraitzeko gauza, lehen esandako moduan, 40-50 metrora.

**BEHERA EGINGO ZUEN ESPERANTZA**

Kiruik aurrera egin zuenean Martinezek argi ikusi zuen iazko irabazlearen beherakada bat zela hura harrapatzeko zuen aukera bakarra. Madrilgo lasterkariak estutu egin zuen, eta topera korritu zuen azken itzulia. Zaleek behin eta berriro animatu zuten Martinez, eta baita keniarrak zuen abantailaren berri eman ere.

Baina Kiruik ez zuen behera egin, kontrara, azken kilometroan ere arin-arin egin zuen oinkada bakoitza, eta 29:04ko marka eginda helmugaratu zen.

**CHEMA MARTINEZ, BIGARREN**

Joan den asteburuan Portugalen irabazi zuen Chema Martinezek 10.000 metrotan Europako txapelketa, eta Oñatira ere gorputzaldi oso onean etorri zen: "Hala ere, ezin izan diet lasterkari guztiei irabazi", adierazi zuen Martinezek brometan. Izan ere, madrildarrak afrikar guztien kontra egin behar izan zuen: "Neu nintzen zuri bakarra, eta ikustekoa da gizon hauek zelan egiten duten korrika. Uste dut oñatiarrek baloratuko dutela gaurko lasterketan egin dudan esfortzua, baina Kiruik erakutsi du oso indartsu dagoela".

Eta, atzetik iritsi ziren gizonen artean ikustekoa izan zen podiumeko hirugarren postuagatik Amanuel Messelek eta Goitom Kiflek egin zuten esprinta, segundo berean iritsi ziren Eritreako bi korrikalariak (29:46).

Sari banaketa hasi aurretik Antxintxiketan atletismo taldekoek omenaldia egin zioten Asier Osinaga taldekideari, ezusteko gozoa, eta Oñatiko lasterkari Ritxar Fernandezek ere aipamen berezia izan zuen.

**sailkapena**

| | |
|---|---|
| 1.-Peter Kirui (Kenia) | 29:04 |
| 2.-Chema Martinez (Espainia) | 29:34 |
| 3.-Amanuel Messel (Eritrea) | 29:46 |
| 4.-Goitom Kifle (Eritrea) | 29:46 |
| 5.-Matthew Kipchirchir (Kenia) | 29:56 |
| 6.-Francis Kosgei (Kenia) | 29:57 |
| 7.-Ronald Kipchumba (Kenia) | 30:01 |
| 8.-David Kilel (Kenia) | 30:03 |
| 9.-Peter Bomo (Kenia) | 30:17 |
| 10.-Nixon Niprono (Kenia) | 30:20 |
| 11.-Workne Fikire (Etiopia) | 30:38 |
| 12.-Jacson Matelong (Kenia) | 31:05 |
| 13.-Victor Bitock (Kenia) | 31:10 |
| 14.-Lucas Rugut (Kenia) | 31:34 |
| 15.Julius Chumba (Kenia) | 31:49 |
| 16.-Eric Kiptoon (Kenia) | 32:15 |
| 17.-Driss Bensaid (Maroko) | 32:15 |
| 18.-Dahbi El Miloudi (Maroko) | 34:28 |

DATUA

**8**

**SEGUNDO AZKARRAGOA**

**Bero galanta egiten bazuen ere Peter Kiruik iazko 29:12ko marka pertsonala ondu zuen atzo. Dena dela, Zersenay Tadesseren 27'54 ko markak (2006) *estratosferikoa* izaten jarraitzen du.**

**Peter Kirui** > Atleta

## "Banekien proba irabazteko gauza izango nintzela"

**X.U.** > OÑATI

**Iazko txapeldun berbera izan zen zapatuan Oñatin azkarrena. Kiruik onartu zuen sufritu egin zuela, baina bazekiela azkarrena zela.**

**Zer moduz?**

Oso pozik, baina leher eginda. Bero handia egin du lasterketan, eta zorua oso gogor zegoen.

**Bazenuen garaipena errepikatzeko itxaropena?**

Bai, oso argi neukan lasterketa irabazteko moduan nengoela. Iaz ere izen handiko korrikalariak egon ziren, baina orduan ere irabazi egin nuen.



J.A.

**FUTBOLA** > IGOERA FASEA

# Mondrakoei ihes egin die nazional mailak, Abantoren aurka galtzean

Domeka eguerdian bizkaitarrak 1-3 nagusitu ziren Mojategin



Mondrako neskak, atzo Mojategin jokatutako partidua hasi aurretik. M.B.

**MONDRA**

**1-3**

**ABANTO**

**Mondra** > Oihana Aldaz, Vanessa da Coste, Araitz Etxabe, Maitane Gallastegi, Raquel Modino, Tania Diaz, Maialen Lopez, Alaine Roa, Maitane Roa, Ane Beraza eta Andrea Paredes.

**Abanto** > Edurne Marañon, Ziortza Moraga, Arantza Casas, Ainhoa Garcia, Olatz Martinez, Amaia Perez, Laura Perez, Aintzane Gerrero, Elsa Cruz, Izortze Ramirez eta Irantzu Causo.

**Epailea** > Jose Antonio Belmonte.

**MIRIAN BITERI** > ARRASATE

Mondrako neskek ezin izan dute aurtengo denboraldia *errematatu*. Atzo, domeka, Abanto talde bizkaitarraren kontra jokatutako norgehiagoka 1-3 galdu zuten, Mojategin. Emaitza horrekin, beraz, ezin izango dute datorren urtean nazional mailan jokatu. Bi goleko errenta behar zuten arrasatearrek nazional mailara salto egiteko.

Partiduko lehen zatian ondo jokatu zuten *Txisko*-ren neskek; 20. minutu pasatuta zegoenean, markagailuan aurreratu ziren etxekoak, Maitane Roak sartutako golari esker. Lehen zatiko deskontura arte lortu zuten alde hori mantentzea. Atsedena iristear zegoenean, baina, bizkaitarrek partidua berdindu zuten, Amaia Perezen golarekin.

Bigarren zatian aurkariek etxekoak baino zorte gehiago eduki zuten. Arrasatearrek penalti batean huts egin zuten eta horrek partiduaren norabidea markatu zuen. Esan bezala, 1-3 nagusitu ziren Abantokoak.

**TXISKO-REN IRITZIA**

Partidua galdu bazuten ere, entrenatzailea pozik zegoen bere neskek egindako lanarekin: "Irabazteko gai zirela pentsatuz irten dira, baina gauzak ez dira nahi genuen bezala irten; ez dugu zorterik izan eta larregi barkatu dugu". Egindako denboraldi bikaina ere azpimarratu zuen.

**MENDI LASTERKETA**

## Oihana Kortazar, Espainiako txapeldun

Elgetarrak Castellonen irabazi zuen Espainiako txapelketa zapatuan

**M.B.** > BERGARA

Oihana Kortazar lasterkari elgetarrak Espainiako txapelketa irabazi du. 34,5 kilometroko luzera eta 2.500 metroko altuera positiboa zuen mendi lasterketa zapatuan izan zen Castellonen. Proba 06:00etan hasi zen eta Kortazarrek lau ordu eta laurden behar izan zituen.

Kortazarrek han bizitakoa azaldu digu: "Oso gogorra izan zen gora eta behera ibili ginelako eta bero asko egiten zuelako". Gaineratu du ez zuela espero hori irabaztea: "Pozik nago, gainera, proba horren errekorra ordubetean hobetu dut-eta".



Oihana Kortazar. GOIENKARIA

**ARETO-FUTBOLA** > LABEGARAIETAKO ETA ZALDIBARKO TXAPELKETAK

## Labegaraietako aurtengo kopa Akabaoak taldearendako, Zigalikatisi irabazi ostean

Arrasateko Zaldibarko liga txapelketan, bestalde, Paulaner Dribling eta Lasagabaster nagusitu ziren zapatuan

**M.B.** > ARRASATE

Denboraldi bikaina egin dute Akabaoak taldeko mutilek. Labegaraietako liga txapelketa irabazi ostean, atzo, domeka, kopa eskuratzea ere lortu zuten. Atzoko finala Zigaliketisen kontra jokatu zuten. Lehen zatian nahiko berdinduta egon ziren bi taldeak eta atsedenera 1-2 iritsi ziren. Bigarren zatiko hasieran ere antzera ibili arren, erdialdetik aurrera, Akabaoakoek aldea atera zuten eta partidua 6-2 amaitu zuten.

**ZALDIBARREN, FINALERDIAK**

Zapatuan, bestalde, Arrasaten, Zaldibarko liga txapelketako finalerdiak jokatu zituzten. Zelaira irten ziren lehenak Paulaner Dribling eta McAwen Dauen taldekoak izan ziren. Lehenengoek arazo barik 8-3 irabazi zuten. Jarraian, AT Celaya eta Lasagabasterren arteko norgehiagoka hasi zen. Kasu horretan, Lasagabaster taldekoek eskuratu zuten garaipena. Lehia 1-3 bukatu zen.

Hortaz, zapatuan, Paulaner Driblingek eta Lasagabasterrek jokatuko dute finala, 17:00etan. Partidu ikusgarria izango da, bi talde indartsu lehiatuko direlako. Lasagabaster iazko txapelketan nagusitu zelako eta Paulaner Dribilingekoek aurten dagoeneko kopa irabazi dutelako eta '*dobletea*' bilatzen dutelako.



McAweneko jokalaria falta jaurtitzen, Driblingenen kontra. JOSETXO ARANTZABAL



GIARTZU

## Kyokushinkai txapelketa Musakolan

Zapatuan Debagoieneko kluben arteko VI. kyokushinkai txapelketa egin zuten Arrasaten. Guztira, Aretxabaletako UDAko, Bergarako Giartzuko eta Arrasateko Saioako 80 karateka lehiatu ziren.

Kata modalitatean, 9 eta 10 urteko umeen artean, Ros Meri Mesa bergararra nagusitu zen; 11 eta hamabi urte eta gerriko laranjaraino dutenen artean, Leire Valor arrasatearra; 11 eta 12 urte eta gerriko laranja-berderaino dutenen artean, Leire Errasti arrasatearra; 13tik 15 urte bitartekoetan, Josu Fernandez bergararra, eta 16 urtetik gorakoetan, Carlos Sanchez bergararra. Kumite modalitateari dagokionez, 12 eta 13 eta 14 eta 16 urte bitartekoetan, Oxel Vazquez eta Odei Vazquez aretxabaletarrak, hurrenez hurren, gailendu ziren. Eta Kumite knock downen, azkenik, Jon Rodriguez bergararra.

**OÑATI**

# Eskubaloi edo saskibaloi, gogoz aritu ziren gaztetxoak zapatuan

**AZKEN TXANPA** Oñatiko Eskola kiroleko gaztetxoak Udaberriko txapelketaren azken txanpan sartu dira

**ESKUBALOIA ETA SASKIBALOIA** Zapatu goizean eskubaloia eta saskibaloia izan ziren protagonista Zubikoa kiroldegian

**IZERDI PATXETAN** Kiroldegi kanpoan barruan baino bero gehiago egiten zuen arren, izerditan amaitu zuten gaztetxoek

JOKIN BEREZIARTUA > OÑATI

Leintz Eskola Kirolak joan den maiatzaren 30ean agurtu zuen ikasturtea Aramaion. Gure ibarrean, baina, badira oraindik zapatu goizero bildu eta kirol ezberdinetaz gozatzen dute gaztetxoak. Oñatiko Eskola Kirola da horren kasua. Joan den zapatuan Zubikoa kiroldegiko kantxa urdina gaztetxoz bete zen eskubaloian eta saskibaloian jokatzeko. Kantxa berean saskibaloirako bi kantxa eta eskubaloirako kantxa bat egokitu zituzten. Hortaz, goizeko bederatzietatik eguerdia ondo sartu arte bi kirol horiek izan ziren protagonista.

Kantxan gaztetxo dezente zeuden arren, ikustera ez zen ikusle larregi hurbildu. Giro ederra egiten zuen kanpoan eta, dirudienez, kirol zale eta guraso batek baino gehiagok giroaz gozatzea erabaki zuen. Eskubaloi kantxan entzun ziren txalo gehien, bertan partidu garrantzitsuak jokatu ziren-eta.

**HURRENGOAN, AZKEN JAIA**

Ikasturtearen amaiera bertan dago, eta Oñatiko Eskola Kirolak ere datorren ikasturtera arte esango digu datorren zapatuan. Izan ere, ekainaren 20an 36. Udaberriko Txapelketaren azken jaia egingo dute. Goiz eta eguerdi, egitarau osatua antolatu dute: 9:00etatik 11:00etara jolasak egingo dituzte; 11:00etatik 12:30era sari banaketa; eta, azkenik, 13:00etatik 14:00etara lunch paregabe batez gozatzeko aukera izango dute gerturatzen direnek.



J.B.

**Txantxikuak.** Eiderrek, Itxasok, Maiderrek, Danissak, Helenek, Mirenek, Zuriñek, Itsasok, Olatzek eta Ixiarrek osatzen dute taldea.




J.B.

**Zezenak.** Josuk, Aitorrek, Iñigok, Mikelek, Beñatek eta Mikelek osatu zuten zapatuan Zezenak taldearen ordezkaritza.



J.B.

**Zuazo Larraña.** Egoitz, Asier, Christian A., Christian N., Jon, Iñigo, Iker, Gorka eta Imanol dira taldeko kideak.




J.B.

**Pandak.** Nagorek, Bibiñek, Izarok, Jonek, Enarak, Anek, Cristinak, Gorettik, Mirenek, Uxunek eta Sarak osatzen dute taldea.

## ZEIN DA ZURE KIROL GUSTUKOENA?



**Nagore eta Izaro**
Pandak

Goiz ederra pasa zuten Nagore eta Izarok Zubikoa kiroldegian. Biei eskubaloia dezente gustatzen zaie eta, eskubaloiaz gain, futbola da gehien gustatzen zaien kirola. Izarok atezain jokatzea du gustuko; Nagorek, berriz, jokalari.



**Iker, Gorka eta Jon**
Zuazo Larraña

Ikerri saskibaloia ez zaio larregi gustatzen, ezta Gorkari ere. Jonek, aldiz, gustuko du. Ikerri eta Gorkari futbola gustatzen zaie, hura da euren kirola. Jonek, baina, futbola baino eskubaloia du nahiago.




**Dayi eta Jone**
Sapuak

Eskubaloian jokatzen aritu ziren Dayi eta Jone. Gustura oso. Dayik atezain moduan jokatzen du gusturen eta Jonek edozein postutan jokatzen du, atezain ezik. Saskibaloia ere gustatzen zaie, baina ez eskubaloia beste.



**Aritz eta Andoni**
Zuazola Larraña

"Futbola, zalantza barik". Halaxe erantzun die Aritz eta Andonik gure galderari. Futbola maite dute, baina beste kirolei ez diete muzin egiten. Izan ere, zapatuan saskibaloiaren txanda izan zen, eta biek amaitu zuten izerdi patxetan.



**Ander eta Andoni**
Txantxiku 2B

Anderri eskubaloia gustatzen zaio eta Andoniri saskibaloia. Joan den zapatuan, eurendako saskibaloiaren txanda zenez, Andonik gozatu zuen bietatik gehien. Jakinarazi zigutenez, gaur dute euren mailako saskibaloiko finala. Bada, zorte on!

**Asier Sanchez** > Eibarko jokalaria

# "Eibarrekin debuta egin eta gola egitea zoragarria izan zen niretako"

ARANTZAZU EZKIBEL > ARRASATE

**Asier Sanchez 23 urteko arrasatearrak Gironaren aurkako partiduan egin zuen debuta Eibarko lehenengo taldearekin. Gainera, inoiz amestutako debut onena izan zen; gola egin zuen-eta. Asier Sanchezekin izan gara futbolaz berbetan.**

**Gironaren aurka debuta egin, eta gainera gola. Nola gogoratzen duzu?**

Gola egin nuenean poz handia hartu nuen. Egia esan, inoiz amestutako debut onena izan zen. Azkenean partidua 2-2 amaitu genuen, baina niretako zoragarria izan zen. Partiduko lehenengo gola izan zen nik egindakoa.

**Hortaz, polita izan zen.**

Niretzat oso polita izan zen. Gainera, kontuan hartu azkeneko lau partiduetan deialdian egon naizela, baina ez dudala jokatzeko aukerarik izan. Azkenean debutatzeko aukera izan nuen.

**Orain arte ez duzu bigarren mailan debutatzeko aukera izan. Zorte txarra izan duzu?**

Ez da samurra bigarren A mailan jokatzea. Orain arte bigarren taldean jokatu izan dut eta esan daiteke taldean nire lekua nuela. Azkenean, baina, Uribe nigaz fidatu da eta eskertzen diot bigarren A mailan jokatzeko aukera hori eman izana.

**Zein izan da orain arteko zure ibilbidea futbol munduan?**

12 urterekin hasi nintzen futbolean. Lehenengo Realera joan nintzen; han, zortzi urte eman nituen. Gero, Eibarrera etorri nintzen eta hiru urtez nago hemen. Iaz, esaterako, Sestaon egon nintzen.

**Nolako jokalaria zera; nola definituko zenuke zure burua?**

Ez dakit, oso zaila da hori esatea. Azpimarratzekotan, esango nuke gorputzarekin ondo jokatzen dudala; baina, bestalde, ez naiz oso azkarra.

**Aurtengo denboraldia txarra izan da Eibar taldearentzako. Nola ikusi duzu taldea eta zure ustez non egon da maila galtzearen gakoa?**

Jendeak lan asko egin du baina gauzak ez dira atera gura bezala. Maila galdu dugu eta orain datorren urteari begira jarrita gaude, ea lortzen dugu berriro bigarren A mailan egotea.

**Azkeneko aldiz Eibar bigarren B mailara jaitsi zenean, urte batean lortu zuen maila berreskuratzea. Uste duzu oraingoan ere horrela izango dela?**

Bai, orain dela hiru urte izan zen hori eta urte batean lortu zuten maila berriro berreskuratzea. Nik uste dut bigarren B maila kategoria zaila dela, baina Eibar bigarren mailako taldea da; hortaz borrokatu egin behar du maila berreskuratzeko. Aukerak badaudela uste dut.

**Datorren urteari begira, nola ikusten duzu lehenengo taldean jokatzeko aukera?**

Egia esan, zaila izango dela uste dut, baina horretarako nabil lan egiten. Jarraituko dudan edo ez, ez dago entrenatzaileren esku; hori kirol zuzendariak erabakitzen du. Oraindik ez dira hasi jokalariekin berba egiten.

**Josu Uriberekin izan duzu debuta egiteko aukera; nolako entrenatzailea da zure ustez?**

Jokatzeko aukera berarekin izan dut; baina, esan behar da Pousok ere bi partidutan deialdian sartu ninduela.

Izan ditudan entrenatzaile guztien artean Uribe bera azpimarratuko nuke. Entrenatzaile gogorra da, baina asko ikasten da berarekin. Ondo erakusten duen entrenatzailea da.

**Nola ikusten duzu Gipuzkoako futbola? Reala bigarren mailan, zuek maila galdu duzue...**

Egia esan, Gipuzkoako futbola ez dabil oso ondo. Reala lehenengo mailako taldea da eta Eibar bigarrenekoa. Baina, futbola horrelaka da; ea datorren urtean aukera dagoen mailaz igotzeko.

**Aurten, Real Union dabil ondo. Oraindik baditu aukerak mailaz igotzeko. Nola ikusten duzu Real Union?**

Ondo ikusten dut. Oraindik badu aukera mailaz igotzeko. Hortaz, ea zortea duen eta lortzen duen kategoria bat igotzea. Nirekin jokatu izan duten jokalariak daude Real Union; hortaz, asko poztuko nintzateke igoko balira.

**Ze iritzi duzu gaur egun futbolak mugitzen duen diruaz? Adibidez, Real Madridek Cristiano Ronaldogatik ordaindu duenaz?**

Nire ustez munduko jokalari onena da Ronaldo. Asko ordaindu dute Madrilera ekartzeko, baina uste dut berak ere diru asko ekarriko diola elkarteari.



Asier Sanchez arrasatearra Eibar taldeko kamisetarekin. EIBAR FUTBOL TALDEA

**"Gipuzkoako futbola ez dabil ondo; ea datorren urtean Reala eta Eibar mailaz igotzen diren"**

**"Zaila da nire burua definitzea, baina esango nuke gorputzarekin ondo jokatzen dudala"**

**"Izan ditudan entrenatzaileen artean Josu Uribe azpimarratuko nuke"**

**"Real Madridek asko ordaindu du Ronaldogatik, baina dirua ekarriko du"**

**UDALEKUAK** HAUR ETA GAZTETXOEN UDAKO PLANA

# Txikien identitatea garatzen laguntzen dute udalekuek

Eguneroko testuingurutik beste batera pasatzen da haurra, eta norbera izaten ikasten du

Euskalki ezberdinak ikasi eta euskara 'informala' erabiltzeko tokia ere badira udalekuak

**OIHANA ELORTZA** > ARRASATE

Badatoz udalekuak, ume zein gaztetxoeen udako plana. Edo planetako bat, behintzat, bai. Irati Pagoaga irakasle aretxabaletarraren iritziz, urtean zehar egin ez dituzten jolas, eskulan eta irteeretaz gozatzeko aukera dira udalekuak, "baita eskola albo batera utzi eta lagun berriak ezagutzeko ordua ere". Baita euskaraz ere. "Lagun eta inguru berriak ezagutzearekin batera, euskalki ezberdinak ere ezagutzen eta ikasten dira. Hizkuntza aberasteko, lantzeko edo hobetzeko makina bat modu daude, eta horietako bat udalekuetara joatea izan daiteke. Haurrek eta gaztetxoek urtean zehar eskolan euskara *formalean* orduak eta orduak ematen dituzte. Baina dakigunez, beraien nahiak eta gurariak azaltzeko eta asetzeko askotan bestelako moduak eta baliabideak behar izaten dituzte. Euskara *informala* lantzeko toki ezin hobeak iruditzen zaizkit niri, behintzat, udalekuak", dio Pagoagak.

**IDENTITATEA GARATU**

Hizkuntzarenaz gain, beste hainbat aberastasun ere badituztela udalekuek uste du Irati Pagoagak. "Haurraren autonomia eta beraien identitatea garatzeko une egokiak dira. Haurra bere eguneroko testuingurutik beste batera pasatzen da, eta hor norbera izaten ikasten du", azaldu du aretxabaletarrak.




Gaztetxoen koadrila bat udalekuetan. TXATXILIPURDI

## aholkuen txokoa

URETAN ITOTZEA

**> Umea ahoz gora etzan behar da ito egin dela uste badugu**

Umea ahoz gora etzan behar da, zoruaren gainean. Arnasa hartzen badu, burua albo batera jarriko zaio, gorakoak eduki baititzake, eta arropaz ondo estaliko dugu laguntza medikoa iritsi arte. Arnasarik hartzen ez badu, ordea, bizkortze eta suspertzeko teknikak egin behar zaizkio (ahoz ahoko arnasketa, batez ere) ahalik eta lasterren.

ZAURIAK

**> Zauriak ondo garbitzea da egin beharreko lehenengo gauza**

Ondo garbitu antiseptiko batekin, edo horrelakorik eskura ez badago, ura eta xaboiarekin. Ondoren, babestu zauria tirita batekin, edo bendaje batekin.

EGUZKI ERREDURAK

**> Ur freskoa bota erretako gorputz-atalera**

Erretako gorputz-atala freskatu egin behar da, ur freskoa erabiliz, eta zapi bustiak jarri, sekula ez izotza. Garrantzi handikoa da era berean likido ugari edatea, eta umearen adinari egokitutako analgesikoren bat ematea.

INTSOLAZIOA

**> Laguntza medikoa jaso arte, leku freskora eraman behar da umea**

Intsolazio bat izan duen umeak tenperatura oso altua (39 ºC-tik gora), azala gorritua, beroa eta lehorra, buruko mina, goragaleak eta gorakoak izaten ditu. Laguntza mediko egokia jaso arte, leku fresko batera eraman behar da, itzalera. Gorputza hozteko, zapi bustiak edo ur freskoz betetako poltsak erabil daitezke, eta baita umea uretan murgildu ere.

DESHIDRATAZIOA

**> Deshidratazioa ez gertatzeko, ur asko edatea komeni da**

Kasu honetan, azala hotz eta lehor egoten da. Sukarra izan dezake, zorabioak eta baita konorte-arazoak ere. Leku fresko batera, itzalera, eramateaz gain umeari ura edo edari isotonikoak eman behar zaizkio. Deshidratazioa ez gertatzeko, komeni da egunean zehar ur asko edatea.

INTSEKTUEN ZIZTADAK

**> Zapi hotzak jarri inflamazioa jaisteko, eta eman analgesiko bat**

Erle edo liztorren batek ziztatu badu umea, jarri zapi hotzak inflamazioa edo hantura jaisteko, eta eman analgesikoren bat. Umea alergikoa bada, antihistaminikoren bat eman beharko zaio.

**AURREZTU**

## Hozkailuak du argindar kontsumo handiena

**O.E.** > ARRASATE

Krisi garaian bizi garen honetan, horrenbesteko fakturak ez ordaintzeko hainbat aholku jaso ditu *Berria*ko artikulu batean Pantxike Agirrek. Bere esanetan, hozkailua da etxeko tresnetan argindar gehien kontsumitzen duena, eta posible da kontsumo hori gutxitzea. "Termostatoa kontrolatzea, janari berorik ez sartzea edo bero iturri diren tresnen ondoan ez jartzea dira kontsumoa gutxitzeko modu batzuk", dio Agirrek. Arropa eta ontzi garbigailuek ere argindar asko kontsumitzen dute. Horren aurrean, "arropak programa laburrean garbitzeak %80 murriztu" dezakeela dio Agirrek. Bestalde, "telebistaren urteko argindar kontsumoaren %70, telebista stand by edo pausaldian uzteagatik gastatzen da", dio.

> DEMOGRAFIA

### Joan den urtean 28.643 ume jaio ziren Hego Euskal Herrian

Joan den urtean, 28.643 jaiotza izan ziren Gipuzkoa, Bizkaia, Araba eta Nafarroan. Datu hori jaso du Espainiako Estatistika Institutuak. Hazkunde begetatiboa, beraz, 3.925 izan zen. Jaiotza kopurua ez ezik, heriotza kopurua ere jasotzen du Espainiako Estatistika Institutuaren txostenak: 24.718 heriotza izan ziren Hego Euskal Herrian. 12.208 ezkontza egon zirela ere irakurri daiteke.

> AITATASUNA

### 2011n aitatasun baimena lau astekoa izango da

Berdinatasunaren legeak jaso zuen 2014a bitartean landuko zutela gaia; aitatasun baimena lau astekoa izatea ordutik aurrera. CIU eta PSOEk adostutakoarekin, aurreratu egin dute epe hori. 2011ko urtarrilaren 1etik lau asteko baimena izango dute aitek, seme-alaben jaiotza, harrera edo adopzioagatik. Bigarrenetik aurrera edo erditze multipleagatik, bi egun gehiago.

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko, **zatoz gure webgunera** guraso.com



> KANTARI
Ume eta gaztetxo uholdeak kantuz eta dantzaz bete zuen Zabalotegi aretoa > 30-31



> ASTE ZAPATISTA
Zapatuko jaiarekin bukaera eman zioten Eskoriatzan aste osoan egindako ekimenari > 32



> MOTORRAK
**Trialeko bizikleta salgai.** Monty etxekoa. Bi urte baino gutxiago dauka. 250 euro. 943 79 54 21

**Umeendako kuma.** Ohe bikoitza eta umeak eramateko motxila salgai. 688 80 13 38

**Xafladun somierra salgai.** Xafladun somierra saltzen dut. 1,50 metroko zabalera du, eta altxatzen den horietakoa da. Interesa dutenek telefono honetara deitu: 607 38 99 57.

### 802. EROSI

**Bizikleta.** Hiru urteko mutiko batendako bigarren eskuko bizikleta erosiko nuke. Neurria: 16''. 636 83 85 32.

**Bi mendiko bizikleta erosiko genituzke.** Bi mendiko bizikleta erosiko genituzke Kuban ibili ondoren bertakoei oparitzeko. Tel: 626 80 21 85.

**Eskiak eta botak.** Metro bateko eskiak eta 27-30 zenbakiko botak erosiko nituzke. 608 77 38 59

**Klarinetea erosiko nuke.** Klarinetea. Umeendako egurrezko klarinetea erosiko nuke. 655 74 89 19

**Kongak.** Bigarren eskuko konga batzuk erosiko nituzke. 610 85 32 04

**Lanabesak.** Bigarren eskuko motozerra eta orturako rotabatorra erosiko nituzke. 699 85 49 58

**Lursaila.** Oñatin lursaila erosiko nuke. 656 79 88 12

**Nintendo DS.** Kargadorea erosiko genuke. Interesa duenak deitu dezala honako telefono zenbakira: 605 72 72 39

### 803. EMAN

**Marrazteko mahaia.** Marrazteko mahai bat ematen dut. Oihana. 616 84 55 96.

### 806. GALDU

**Betaurreko gorriak.** Graduatutako betaurreko gorriak galdu nituen Arrasate erdialdean. Zorro gorri baten barruan daude. 653 71 79 87

**Erlojua.** Zilarrezko erlojua galdu nuen Arrasateko San Andres auzoa eta Iamai kafetegiaren artean maiatzaren 3an. Laukia da eta barrukoa nakarrezkoa du. Cauny markakoa. 646 38 56 84

**Eskumuturrekoa galdu nuen Arrasaten.** Urrezkoa da eta Urtarrilean galdu nuen. 652 70 23 50

**Giltzak galdu ditut Arrasaten.** Arrasateko Kobate harrobiaren inguruan giltza batzuk aurkitu ditut. Larruzko poltsatxoan Cafe Central jartzen du. Zureak badira deitu. 657 79 07 39

**Giltzak galdu ditut Arrasaten.** Plazatik anbulatoriora bitartean. Giltzek astotxo bat dute. 943 79 79 34

**Jertse lila.** Jertse lila galdu nuen ekainaren 4an Aretxabaleta eta Eskoriatza artean. Lila kolorekoa da, fina eta botoiduna. Norbaitek topatu badu, dei dezala zenbaki honetara. Maider. 680 59 93 91

**Kartera dokumentazio guztiarekin Etxarrin.** Ostiralean, ekainaren 5ean, Etxarri Aranazko Kultur Etxean kartera bat galdu zen dokumentazio guztiarekin. Opatu duenak dei dezala 609 43 11 12 telefonora.

**Kazadora laukiduna.** Kazadora laukiduna galdu nuen apirilaren 19an Kajoi tabernatik Iamairako bidean. Eskertuko da. 656 76 78 12

**Motxila bat.** Motxila bat utzi nuen ahaztuta Taupa taberna ondoan ostegun arratsaldean. Aurkitu baduzu, mesedez deitu ondorengo telefonora. Eskertuko da. 699 86 81 21

**Pendrive-a Altsasun.** Pendrive Integral memory 8Gb USB 2.0. urdin kolorekoa galdu da Altsasun. Lanerako behar-beharrezkoa. Aurkitu duenak mesedez hots egin dezala Beleixe irratira (948 46 12 20) edo 647 37 02 41 telefonora.

**Sudadera Beriainen.** Maiatzaren 31n, igandean, Beriaindik jaisterakoan Adidas sudadera beltza galdu nuen. Topatu duenak dei dezala 948 56 26 56 telefonora (Kontxi).

### 807. AURKITU

**Argazki kamera digitala.** Zarugalde kalean aurkitu dut. 639 88 85 63

**Eguzkitako betaurrekoak Beriainen.** Maitzaren 31n, igandean, eguzkitako betaurrekoak topatu ziren Beriainen. Galdu dituenak dei dezala 948 56 26 56 telefonora.

**Eraztuna.** Ezkontza eraztuna aurkitu dut Bergarako Bolu auzoan. 645 71 28 81

**Giltzak.** Zubillagatik Urkulurako bidean bi giltzako jokoa aurkitu dut. Batek garajekoa dirudi. Interesa duenak deitu dezala honako telefono zenbakira: 670 65 43 59

**Gitarra klasikoa.** Aurkitu nuen Olarteko ikastolaren ondoan. Karlos. 620 12 46 35

**Traktorearen buloia.** Etxarri Aranazko Eraga dermioan traktorearen buloia opatu da. Deitu 652 74 72 48ra (Juan)

## 9/ HARREMANAK

### 902. HARREMANAK

**Egunero Gasteizera joan etorria .** Arrasate Gasteiz. Egunero Gasteizera joan etorria egiten dugu. San Prudentzion elkartu, Arrasaten autobidea hartu eta Lakuara joaten gara. 08:00etan sartu eta 14:30ean irteten gara. Norbait interesatuta badago, deitu. 635 20 33 14

**Ehiza gustatzen zaion neska baten bila.** Irungo ehiztari banandua, 40 urtekoa, bilatzen du ehiza maite duen neska bat. 617 76 67 48 (gauez).

**Emakume euskaldun bat ezagutuko nuke.** Emakume euskaldun bat ezagutuko nuke, 56-60 urte bitartekoa. 616 64 88 58

**Harremanak.** 43 urteko mutilak, baserrikoa, jatorra, langilea eta itxura onekoa, neska bat ezagutu nahiko luke. Interesatuek deitu 653 40 65 30 telefonora

**Neska gizon helduen bila.** Neska gazte eta politak harremanak izango lituzke gizon helduekin. Interesatuek deitu 660 28 53 68 telefonora.

**Lagun bila.** 36 urteko mutil debagoiendarra 30 eta 40 urte bitarteko emakume debagoiendarraren bila. Hasiera batean, lagunak izateko. Irekia bazara eta hitz egitea gustuko baduzu, zaletasunak parteka ditzakegu: paseoak, bizikleta, irakurri, dantza, abestu... Interesatuok *kirikel@yahoo.es* helbidera idatzi. 943 00 00 00

**Neska erakargarria ezagutu.** 41 urteko irundar batek neska polit, erakargarri bat ezagutuko luke,modelo bat izan dadila ez dut esaten inondik ere, inguruko herrietakoa, ni kirolzalea, bertsozalea, neurriko parrandazalea. Telefonoa: 628 55 37 35. Posta: *antxon.u.b@hotmail.es.*

### 904. BESTELAKOAK

**Arrasate-Gasteiz.** Egunero Gasteizera joan-etorria egiten dugu. San Prudentzion elkartu, Arrasaten autobidea hartu eta Lakuara joaten gara. 08:00etan sartu eta 14:30ean irteten gara. Norbait interesatuta badago, deitu. 635 20 33 14.

**Azpeitiko Oñatzgain soziedadean bazkide berriak.** Azpeitiko Oñatzgain soziedadean hamar bazkide berri gehitzeko zerrenda ireki da. Interesa duenak deitu dezala honako telefono zenbakira: 678 58 14 41.

**Urola Kostako komunikazio enpresa batek KUDEATZAILEA behar du:**

Enpresaren kudeaketaz arduratzeaz gain (finantzak, fakturazioa, arlo komertziala...) eragileekin izan beharreko harremanen kargu egingo den pertsona baten bila gabiltza.

Eskatzen da:

- Kudeaketa-administrazio arloko ezagutza izatea, antzeko lanetan aritu izana eta eskualdea ondo ezagutzea.
- Euskaraz ondo jakitea.
- Izaera dinamikoa eta harremanetarako eta antolakuntzarako gaitasuna izatea.
- Gidabaimena eta autoa edukitzea.

Interesa izanez gero, curriculuma bidali, argazkiarekin, gizabaliabideak@jarduna.net helbide elektronikora, ekainaren 22a baino lehen.

Erreferentzia: UKHK209.

## sudokua

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 3 | 5 | | 6 | | 8 | |
| 6 | | 8 | | 3 | | 7 | | |
| | 5 | | 7 | | | 9 | | |
| 5 | | | | 6 | | | | |
| | 8 | | 4 | | | | 7 | |
| | 1 | 9 | | | 5 | | 6 | |
| | | | 6 | 5 | | | | 3 |
| | | 5 | 3 | | 2 | | 4 | 7 |
| | 6 | | | | 7 | | 5 | |

## bila-bila 7





## hitz gezidunak



| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| [photo] | [photo] | [photo] | * Irudiko txoria / Libreak | ▼ | Hausnarkari mota / Kemen, adore | ▼ | Frantziako lurraldea / Auzitara jotzen du | ▼ |
| [photo] | [photo] | [photo] | ▶ | | ▼ | | ▼ | |
| [photo] | [photo] | [photo] | Kasa / Begi, hitz elkartzeetan | ▶ | | | | |
| Handi samar / ... izan, onuragarri izab | ▼ | Biluzik utzi / Mami | ▶ ▼ | | | | | |
| ▶ | | ▼ | | | | Idi, hitz elkartzeetan / Zezen zikiratua | ▶ | |
| Gari irinezko opila / Eguzki | ▶ | | | | | ▼ | | |
| ▶ | | | Afrikako estatua / 500 eta 1000 | ▶ | | | | |
| Ederto / Oratzeko aska | ▶ | | ▼ | | Ipar EH-n, inguru / Hidrogenoa | ▶ | | |
| ▶ | | | | | ▼ | | | |

GOIENKARIA

## hieroglifoa

Nafarroako herria.



## hizki salda

Gipuzkoako 5 euskal idazleren abizenak

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| T | E | T | C | X | Y | B | S | L |
| Z | M | T | E | J | L | E | A | M |
| G | Z | J | X | E | A | L | G | P |
| A | R | A | N | A | U | H | I | M |
| L | O | T | R | D | I | N | R | E |
| D | R | E | T | U | J | D | R | E |
| O | R | M | A | E | T | X | E | A |
| S | E | I | F | N | E | O | L | P |
| A | S | K | L | D | F | J | A | L |

## soluzioak




| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| T | E | T | C | X | Y | B | S | L |
| Z | M | T | E | J | L | E | A | M |
| G | Z | J | X | E | A | L | G | P |
| A | R | A | N | A | U | H | I | M |
| L | O | T | R | D | I | N | R | E |
| D | R | E | T | U | J | D | R | E |
| O | R | M | A | E | T | X | E | A |
| S | E | I | F | N | E | O | L | P |
| A | S | K | L | D | F | J | A | L |


**Hieroglifoa:** Biana.

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 9 | 7 | 3 | 5 | 2 | 6 | 1 | 8 | 4 |
| 6 | 4 | 8 | 9 | 3 | 1 | 7 | 2 | 5 |
| 1 | 5 | 2 | 7 | 8 | 4 | 9 | 3 | 6 |
| 5 | 3 | 7 | 1 | 6 | 8 | 4 | 9 | 2 |
| 2 | 8 | 6 | 4 | 9 | 3 | 5 | 7 | 1 |
| 4 | 1 | 9 | 2 | 7 | 5 | 3 | 6 | 8 |
| 7 | 2 | 4 | 6 | 5 | 9 | 8 | 1 | 3 |
| 8 | 9 | 5 | 3 | 1 | 2 | 6 | 4 | 7 |
| 3 | 6 | 1 | 8 | 4 | 7 | 2 | 5 | 9 |



| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| [photo] | [photo] | [photo] | ■ | E | ■ | Z | ■ | O |
| [photo] | [photo] | [photo] | A | S | K | E | A | K |
| [photo] | [photo] | [photo] | ■ | K | A | B | U | Z |
| ■ | K | ■ | B | I | L | U | Z | I |
| K | O | M | E | N | I | ■ | I | T |
| ■ | S | U | T | O | P | I | L | A |
| E | K | I | ■ | S | U | D | A | N |
| ■ | O | N | D | O | ■ | I | R | I |
| O | R | A | M | A | H | A | I | A |

## asteko horoskopoa

**ARIES**
*martxoak 21-apirilak 21*

Martek zure zeinuarengan duen indarrak aurrera egin eta zailtasunak gainditzeko ideiak emango dizkizu. Une egokia bidaia eta inbertsioetarako. Izan baikorra.

**TAURUS**
*apirilak 22-maiatzak 21*

Ez da zure nagusiei aurre egiteko unea, itxaron pixka bat, egoerak ez du laguntzen. Etxean aldaketak egin beharko dituzu. Ondo begiratu erosi beharrekoa.

**GEMINI**
*maiatzak 22-ekainak 21*

Ideia eta egitasmo ugari izango dituzu, baina ez egon zain besteak zure bila etorri arte. Ekin eta hurbildu komenigarria den jendeari. Zorizko jokoentzako une egokia.

**CANCER**
*ekainak 22-uztailak 22*

Norbaitek traizio egingo dizu, lagun batek seguruenik. Hobe zure lagunak eta kideak aukeratzen badituzu. Kontuz gatzarekin eta koipe asko duten janariekin.

**LEO**
*uztailak 23-abuztuak 22*

Ilargiak zure zeinuarengan duen eraginak urduritasuna eta egonezina sortuko dizkizu. Ez zaituztela kontuan hartzen iruditzen zaizu eta ez daukazu ezertarako gogorik.

**VIRGO**
*abuztuak 23-irailak 22*

Maitasuna, pasioa eta ulermena zure alde izango dituzu, eta miresten zaituztela sentituko duzu. Paper batzuen inguruko arazoek abokatuarenera ereman zaitzakete.

**LIBRA**
*irailak 23-urriak 22*

Heldu iezaiozu kanpora irteteko daukazun edozein aukerari, abentura zoragarriak gerta dakizkizuke eta. Zure ingurukoak erakarriko dituzu.

**SCORPIUS**
*urriak 23-azaroak 22*

Pertsona batzuek zuk espero duzun estimua emango ez dizutelako lur jota ibiliko zara agian. Ez da maitasun harreman bat hasteko une aproposa.

**SAGITARIUS**
*azaroak 23-abenduak 21*

Jendarteko bizitzak bidaiatzera bultzatuko zaitu, baita zure bizimodua aldatu eta pixka bat osasuntsuagoa egitera ere. Ez egin hainbeste astakeria zure osasunarekin.

**CAPRICORNIUS**
*abenduak 22-urtarrilak 20*

Arrakasta edo hobekuntza ekonomikoa ekarri diezazuketen ikasketa, lan edo egitasmoen inguruko berri onak izango dituzu. Egon zaitez telefonoaren zain.

**AQUARIUS**
*urtarrilak 21-otsailak 20*

Gogorik gabe eta malenkoniatsu ibiliko zara, eta horrek neke itxura emango dizu. Azkenaldian ez duzu atsedenik hartu eta horregatik ohi baino larriago zabiltza.

**PISCIS**
*otsailak 21-martxoak 20*

Familiako eztabaida izango duzu eta errua zuri egotziko dizute. Arduratu zaitez zeure buruaz eta ez utzi besteek goberna zaitzaten.

## gazte zerbitzua

**BEKAK**

**> Ikerkuntza historikoa.** Gipuzkoako Foru Aldundia. Ikerkuntza historikorako Gipuzkoako Foru Aldundiaren bekak. Epea: uztailaren 15a.

**LANA**

**> 'Ahotsak.com'** proiekturako langile bila. *Ahotsak.com* egitasmoak Euskal Herriko ahozko ondarea biltzea du helburu. Lan horretarako hiru langile berri behar ditu. Interesatuta daudenek ekainaren 26ra arteko epea dute euren eskaera bidaltzeko.

**> Udaltzainak.** Arrasateko Udala. Arrasateko Udalak udaltzainen lan poltsa osatu nahi du. Izena emateko epea: ekainak 17.

**EKINTZAK**

**> Hatortxu rock.** Ekainaren 19, 20 eta 21ean (Ostirala, larunbata eta igandea), Lakuntzan. Kontzertuak: Reincidentes, Gatillazo, Kaotiko, Etsaiak, Rip, Ekon, Banda Bassotti, Kop, Dj Jo ta Txo, Des-Kontrol, Kauta, Hesian, Koma, Piperrak, Berri Txarrak, Doctor Deseo, Herri mugimenduen azoka erraldoia, teknologi gunea, erakusketak, hitzaldiak…

**> Kontzertuak.** Gipuzkoako Foru Aldundia; Haur, Nerabe eta Gazteen Zerbitzua. Gaztemaniak. Ekainaren 18an Martha WainWright + Miren kontzertuan Zarauzko Gaztelekuan. Sarrerak doan! *www.gipuzkoangazte.info*

**IKASTAROAK**

**> Skate.** Arrasateko Udala. Skate ikastaroa 10-16 urte artekoendako ikastaroa bi txandatan: ekainaren 29tik uztailaren 10era edo uztailaren 13tik 24ra, arratsaldeko 17:30etik 18:30ak arte.

**ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:**
Biteri etorbidea 3 • 943 77 00 65
gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net

**BERGARAKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:**
Kultura etxea • 943 77 91 57
gzerbitzua@euskalnet.net

**OÑATIKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:**
Foruen plaza 4 • 943 71 82 57
gazteinformazioa@oinati.net

## astea GOITBn

### Astelehena, 15



**> AED-ren 25. urteurrena, 'Magazinea'-n 19:45**

AEDren 25. urteurreneko jaialdi nagusia egin zuten atzo Arrasaten, eta hori izango da gaurko *Magazinea*-ko gai nagusia.

**13:15** Marrazki bizidunak : Cloud Trotters.
**13:45** Kantari.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Mugaz kanpo.
**15:45** Elkartasunaren bidean.
**16:15** 28 klip.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:45** Wasemak
**18:15** Musikantoi
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Kantari.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Harmailatik.
**23:00** Erreportajea.
**23:30** Goiena Magazinea.
**00:30** Emisio amaiera.

### Martitzena, 16



**> Marian Beitialarrangoitia 'Ilunpean'-en 22:15**

Hernaniko alkate Marian Beitialarrangoitia da aste honetan *Ilunpean* saioko gonbidatua. Martitzenean ikusi ahalko duzue.

**13:15** Marrazki bizidunak: Alex eta Alexis
**13:45** Kantari.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:10** Harmailatik.
**15:50** Solaskide.
**16:20** Itsasoari begira.
**16:45** Berriak.
**17:10** Marrazki bizidunak.
**17:35** Erreportajea.
**18:05** Harmailatik.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Kantari.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Ilunpean.
**23:00** Lamien artean.
**23:30** Goiena Magazinea.
**00:30** Emisio amaiera.

### Eguaztena, 17



**> Astero moduan, gure nagusiei eskainitako tartea 19:45**

Kutxako Urrezko Zerbitzuak babestuta, gure nagusiei eskainitako gaiak landuko dituzte datorren astean *Magazinea*-n.

**13:15** Marrazki bizidunak
**13:45** Kantari.
**14:15** Ikusmira.
**14:45** Berriak.
**15:10** Ilunpean.
**15:50** Golb tb.
**16:20** 28 Klip.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:45** Solaskide.
**18:15** Ur eta lur.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Kantari.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Erreportajea.
**22:45** 28 Klip.
**23:15** Goiena Magazinea.
**00:15** Emisio amaiera.

### Eguena, 18



**> Musika protagonista, 'Musikantoi'-n 23:15**

Maider Arregiren eskutik, Euskal Herriko musika taldeak ezagutzeko aukera emango dizue oraingoan ere *Musikantoi*-k.

**13:15** Marrazki bizidunak
**13:45** Kantari.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Ikusmira.
**15:45** Mugaz kanpo.
**16:15** 28 Klip.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**18:00** Erreportajea.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Kantari.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Berbaire.
**23:15** Musikantoi.
**23:45** Goiena Magazinea.
**00:45** Emisio amaiera.

### Egubakoitza, 19



**> Kultura jardueren berri GOITBn, egubakoitzero 19:45**

Asteburuko kultura hitzorduen berri jasoko duzue egubakoitzero moduan, Jon Berezibar kazetariaren eskutik.

**13:15** Marrazki bizidunak
**13:45** Kantari.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Berbaire.
**16:15** Ikusten.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**18:00** Ilunpean.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Kantari.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Solaskide.
**22:45** Musikantoi.
**23:45** Goiena Magazinea.
**00:45** Emisio amaiera.

## arrasate irratia

FM 107.7

**> Arrasateko kanpoko igerilekura joateko sarrerak 10:30**

Oraingo astean hasi eta udako oporrak iristen diren arte, Arrasate Irratiak badu zeozer zuri eskaintzeko. Hain justu, astero, bi sarrera zozketatuko ditu Arrasateko kanpoko igerilekuetara joan gura dutenen artean banatzeko. Zozketan parte hartu gura baduzue, deitu 943 25 05 05 era, edo idatzi *irratia@arrasate.com*-era.

**Zapatua**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Domeka**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Astelehenetik egubakoitzera**
**10:00-12:00** Igo Autobusera!
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Astelehenetan Kirolak
Ilunpean (elkarrizketa, Euskal Herriko pertsona ezagun batekin)
Zaharrak Berri (pertsona nagusiendako)
Udal Gazte Bulegoa
Sexologia Zerbitzua
Astearen errepasoa (Goienkariarekin)
Eguneko eta asteko protagonistekin, elkarrizketak
Zozketak (egubakoitzean)
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 (*irratia@goiena.com edo goiena.net* atarian, irratiko bloga)
**11:55** Arrasateko albisteak, labur.
**12:05** Euskadi Irratiko albistegia
**12:10** Izarren ordua: abesti ezagunak
**13:00** Euskadi Irratiko albistegia.
**14:00** Igo Autobusera! (errep.)
**17:00, 19:00, 21:00, 23:00** albistegi laburra.

## telealbisteak

**TELEBISTA** > ITZALALDI ANALOGIKOA ESTATU BATUETAN

# Telebista seinale analogikotik digitalerako saltoa eman dute

Indarrean sartu da TDTa Estatu Batuetan, eta zapatutik, hori ez dutenak, telebista ikusteko aukera barik gelditu dira

**MIREN ARREGI** > ARRASATE

Telebista analogikoaren aroa amaitu da Estatu Batuetan. Hain justu, zapatuan izan zen itzalaldi analogikoa; eta beraz, Lurreko Telebista Digitala ez dutenak telebista ikusteko aukera barik geratu dira. *The Washington Post* egunkariak emandako datuen arabera, hiru milioi etxe utzi ditu telebista ikusteko aukera barik itzalaldiak, horiek direlako sintonizadorea erosi ez duten etxeak. Nielsen Media Research konpainiaren arabera, estatubatuarren %20a, ez dago prest %100ean aldaketarako.

Kanpaina informatibo ikaragarriak egin badira ere, adituek diote, oraindik ere, asko eta asko direla sintonizadorea beharrezko dutela ez dakiten familiak.

**ITZALALDI ANALOGIKOA GUREAN**

Estatu Batuetan gertatu den moduan, Euskal Herrian ere asko dira oraindik telebista digitalaren aroari ongi etorria emateko gertu ez dauden etxeak. Hain justu, abenduaren 31n egingo dute hemen itzalaldi analogikoa; eta egun horretarako, etxe guztietan egon beharko da sintonizadorea, telebista ikusi gura bada, behinik behin.

**ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA**

**ERAKUSKETA IRAUNKORRA:** 172 modulu interaktibo ezberdin dauzka, bi solairu eta 9 geletan banatuta. Komunikatzeko modu berri bat, esperimentu eta objektuen manipulazioa erabiliz

**PLANETARIUM BERRIA**

**Kupula osoan proiektatzen diren erresoluzio handiko irudi ikusgarriak.** Asteartetik ostiralera, 18tan.
**Ekainak 16, asteartea:** Eboluzioa (Berria!): Izakion historiako gertaera eta unerik garrantzitsuenek azaltzen dizkigu
**Ekainak 17, asteazkena:** Infinity Express: Unibertsoa eta Eguzki Sisteman zehar bidaia
**Ekainak 18, osteguna:** Donostiatik zerura begira: Zuzeneko saioa. Ikas ezazu gurekin zeruko objektuak ezagutzen eta disfruta ezazu Astronomiaz.
**Ekainak 19, ostirala:** Kartoizko Suziriaren sekretua: Haurrei zuzenduta

**EKAINAK 21 – UDAKO SOLSTIZIOA**

**Eguzki behaketa:** Aranzadirekin batera, museoaren kanpoaldean 11etatik 13etara. Doan
**Ikus-entzunezko kontzertua:** OSEren lankidetzarekin, Ensemble Diatessaron zortzikoteak Antonio Vivaldiren "Udaberria" eta "Uda" zuzenean interpretatzen duen bitartean, Planetariumeko kupula osora proiektatutako irudiak eta zeru izartsuak ikusi ahal izango dira. Saioak 12tan eta 13etan eskeiniko dira. Sarrera 3,5?. Toki kopuru mugatua.

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA
Miramon-Donostia Tel.: 943 01 24 78
www.miramon.org

kutxa | www.kutxasocial.net

## zorion agurrak



BERGARA
**Josu Lazpiur**
Ekainaren 8an, 4 urte bete zituen. Zorionak etxekoen partetik!



ARETXABALETA
**Naiara Gutierrez Lasaga**
Ekainaren 9an, urtebetetzea. Zorionak, pitufa! Egun eder bat pasatu zure urtebetetze egunian. Kafian zain gaz, Muxu handi bat. Zure lagunak.



ARETXABALETA
**Arkaitz Kerejeta Abril**
Ekainaren 10ean, 6 urte bete zituen. Zorionak, txapeldun! Zure aita-amaren eta Ainhitzeren partetik.



OÑATI
**Mikel Unzurrunzaga**
Ekainaren 11n, 9 urte bete zituen. Zorionak eta ondo ondo pasatu eguna, familixakuen partetik!



ARETXABALETA
**Jabier Etxenausia**
Ekainaren 11n. Zorionak eta urte askotarako, aitaita! Patxo potolo-potolo bana zure bi printzesatxuen partetik. Ondo pasatu eguna. Araitz eta Doltza.



ANTZUOLA
**Amaia Mundiñano**
Ekainaren 11n, urtebetetzea. Zorionak, Antonia! Aurten opari bezala GPS bat eskatu beharko duzu ez galtzeko! Gora San Fermin!



OÑATI
**Iker Plazaola Acosta**
Ekainaren 13an, 8 urte. Zorionak eta patxo handia! Ondo pasatu!



ARRASATE
**Elene Ezkurra Olaizola**
Ekainaren 13an, urtebete. Zapatuan gure pinpilinpauxak urtetxo bat bete zuen eta bere aitaitak eta amamak patxo mordo bat eman zutzien. Zorionak, maitia. Aitaita Jose Luis eta amama Arantxa.



ARETXABALETA
**Aimar Errasti**
Ekainaren 13an, 5 urte bete zituen. Zorionak, maitxia! Espero dou egun zoragarria izetia! Eta erregalo pilua hartzia, tiok indakua be zure gustokua izetia. Munaondon ospatukou. Muxu izugarria. Etxekuak.



OÑATI
**Anje Arlanzon**
Ekainaren 14an, 4 urte. Zorionak, txapeldun! Besarkada handi bat osaba Ando, izeba Jone eta lehengusu Danelen partetik.



OÑATI
**Aitor Casado**
Ekainaren 15ean, 4 urte betetzen ditu. Zorionak, txapeldun! Etxekoak, eta bereziki anaia Asier.



ARETXABALETA
**Alba Diaz de Mendibil Azkoitia**
Ekainaren 15ean, urtetxo bat bete duzun egunean: Zorionak, potxola!. Egun zoragarria opa dizugu. Marrubizko muxu bat zure ahizpa eta lehengusina marimatraken partetik: Claudia eta Naroa.



BERGARA
**Itxaro Aranzabal**
Ekainaren 15ean, 28 urte betetzen ditu. Zorionak eta urte askotarako, *guapixima*! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta patxo handi asko. Familixia eta lagunak.



BERGARA
**Eki Zuzaeta**
Ekainaren 16an, 5 urte betetzen ditu. Zorionak eta patxo bat etxekoen partetik.



BERGARA
**Ander Alcaide Morillas**
Ekainaren 16an, 4 urte betetzen ditu. Oso ondo pasatu eguna. Zorionak eta patxo handi bat zure lagunen partetik. Ion, Naia, Hugo, Andoni, Iago, Nora, Iker eta Ekiñe.



OÑATI
**Ibon Elorza Hernandez**
Ekainaren 16an, 11 urte betetzen ditu. Zorionak denon partetik.



ARRASATE
**Saioa Lopez de Bergara Moreno**
Ekainaren 17an. Zorionak, izeba Saioa! "Maite zaitut, maite maite zaitut, pila pila patata tortila!" Muxutxo pilo bat familiaren partetik eta bereziki Uxue eta Aurkenen partetik!



OÑATI
**Ibai Telleria Agirrebengoa**
Ekainaren 17an, urtebetetzea. Zorionak eta ondo pasatu eguna etxeko danon partetik.



ELGETA
**Leire Belamendia**
Ekainaren 17an, 7 urte betetzen ditu. Zorionak eta patxo handi-handi bat etxekoen partetik.



BERGARA
**Maddi Oregi Alberdi**
Ekainaren 18an, 5 urte betetzen ditu. Zorionak printzesa, patxo handi bat etxekoen eta bereziki Anderren partetik.



ARRASATE
**Oier Etxebeste Rodrigo**
Ekainaren 19an, 7 urte betetzen ditu. Ondo pasatu egun berezi hau. Zorionak Ibai, Aimar, Jurgi eta etxekoen partetik. Muxu handi bat!



OÑATI
**Ibai Zugasti Sarasketa**
Ekainaren 19an, 2 urte betetzen ditu. Zorionak, maittia! Patxo handi-handi bat aitatxo, amatxo eta etxeko danon partetik. Ondo pasatu dezazula zure urtebetetze egunian.



ARETXABALETA
**Gorka Etxabe**
Ekainaren 19an, urtebetetzea. Jubilatuen bizitza oso estresantea da! Zer moduz Benidormen, rockero zahar hori?



ELGETA
**Malen Campos**
Ekainaren 19an, 8 urte betetzen ditu. Zorionak! Patxo handi bat etxekoen partetik.



OÑATI
**Agurne Telleria Agirrebengoa**
Ekainaren 21ean, urtebetetzea. Zorionak eta ondo pasatu eguna etxeko danon partetik.

## ZORIONAK!

**Internet bidez**
Goiena.net atarian sartu.
Aukeratu herrita eta datuak bete.

**e-postaz**
Mezu bat bidali
*zorionagurrak@goiena.com*
helbidera.
Honako datuak emanez: Izen abizenak, herria, urteak noiz betetzen dituen, zenbat urte betetzen dituen eta nahi duzun mezua.

**Edo etor zaitez Goienako ordezkaritza batera.**

Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik argitaratuko ditugu. Ordu horretatik aurrera jasotakoak hurrengo astean aterako ditugu.

## kuxkuxeroa



Iker Barandiaran

# Jana, dantza eta bertakotzea aukeran

Badakit asteburuan ibarrean egon diren dozenaka ekitaldietako antolatzaileetako batzuk leku handiagoa gurako luketela gure orriotan. Baina guztietan esku hartzea ezinezkoa den moduan, ez da posible guztiak zabal jasotzea.

Hala ere, hedabideetako langileez gain, izan dira batzuk ekitaldi baten baino gehiagotan esku hartu dutenak: **Patxi Montero** arrasatear-elgetartua, esaterako, zapatuan Bergaran, eta domekan Arrasaten izan zen munduko dantzen erakustaldia egiten; eta **Maitena Arana** ere leku berdinetan izan zen: Bergaran, Txapa Irratiaren alde lanean; eta Arrasaten AEDren alde, fin-fin.

**"Dantza eta janari gosez zeuden debagoiendarrak asetu dira asteburuan izan diren ekitaldietan"**

Jaiekin jarraituta, bertakotzea eta integrazioa denon ahotan dauden sasoi hauetan, **Zapatisten Lagunek, Txapa Irratiak** eta **AED**k, hirurek eraman dute hori praktikara, eta etorkin askok esku hartu dute euren jaietan. Ez hori bakarrik, kanpoko jana ere ekarri digute: Mexikokoa Eskoriatzan; India, Senegal eta Perukoa Bergaran; eta beste hainbat herrialdeetakoa Arrasaten. Esaterako, Bergaran, **Kataia** musika taldekoek Senegalgo chakri postre goxoa egin zuten; eta Arrasaten, Errepublika Dominikarreko **Felix**-ek, picapollo-a. Biek hala biek euskaraz ikasten dihardute, gainera.

Gose ez zen geldituko, baina, ia inor ibarrean: ez aurretik aipatutako guztiak eta ezta Arrasateko Ardo eta Gazta Egunera joan zirenak ez **Goenatxo II.**aren omenaldira Elosuko jaietara joan zirenak ere.

Kanpora jo zutenek, ba ez dakite aukeratzeko zenbat gauza gal ditzaketen ekaineko halako asteburuetan.



## ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:
**943 25 05 05**

**Eskelaren prezioa: 110 euro.**

Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **150** euro.

**ASTELEHENEKO GOIENKARIAko harpidedunak prezio berezia.**

## berri zakua

**Arizmendikoek saria lortu dute.** Arizmendiko Almen guneko DBH-ko 4.mailako talde batek Jaurlaritzako Osasun Sailaren *Ondo jan, ibili, osasunak igarri* ideia lehiaketa irabazi du eta barikuan 2.000 euroko saria jaso zuten Gasteizen. Lehiaketak bizimodu osasungarrirako ohiturak sustatzea bilatu du. Aurkeztutako sormen lana tutoretzatik zein plastika eta ikus hezkuntza ikasgaitik bideratu dute. Dirua aisialdian edo elikadura osasungarrian inbertitzeko bideratuko dute.







**Kurtzebarrin ikasturte bukaerako jaia.** Zapatuan festa giroan ibili ziren Aretxabaletako Kurtzebarri eskolako ikasle, irakasle eta gurasoak. Ikasturteari agur esateko jaialdia egin zuten. Eguraldiak lagunduta, gaztetxoenak primeran ibili ziren jaialdirako antolatutako joko eta tailerretan.

URTEURRENA

# Itziar Ortiz de Zarate Gallastegi

Lehen urteurreneko meza
domekan, ekainaren 21ean,
12:30ean,
Bergarako San Pedro elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

## zorion agurrak



**Oier Del Fresno Lezeta**
Aretxabaleta > 4,210 kilo. Ekainaren 11n. Gurasoak: Miren (Aretxabaleta) eta Jabi (Aretxabaleta). Argazkian, Oier jaioberria, sehaskan lo.



**Aurken Lopez Lopez de Bergara**
Arrasate > 3,860 kilo. Ekainaren 9an. Gurasoak: Irantzu (Arrasate) eta Unai (Arrasate). Argazkian, Aurken jaioberria, Dolores birramonarekin.



**Gorka Pascual Mira**
Bergara > 4,250 kilo. Ekainaren 9an. Ama: Sara (Bergara). Argazkian, Gorka jaioberria, sehaskan lo.



**Iker Montoya Retegi**
Arrasate > 4,470 kilo. Ekainaren 8an. Gurasoak: Maria (Arrasate) eta Diego (Arrasate). Argazkian, Iker jaioberria, sehaskan lo.



**Irati Garai Obregon**
Elorrio > 3,800 kilo. Ekainaren 8an. Gurasoak: Maitane (Elgeta) eta Juanjo (Sestao). Argazkian, Iker jaioberria, gurasoekin.



**Leire Lasa Lasagabaster**
Arrasate > 3,550 kilo. Ekainaren 9an. Gurasoak: Rosa (Eskoriatza) eta Asier (Arrasate). Argazkian, Leire jaioberria, amarekin.



**Hodei Labaien Arregi**
Antzuola > 3,700 kilo. Ekainaren 11n. Gurasoak: Onintza (Arrasate) eta Igor (Bergara). Argazkian, Hodei jaioberria, sehaskan lo.



**Aner Guridi Arrriaran**
Oñati > 3,500 kilo. Ekainaren 8an. Gurasoak: Eli (Bergara) eta Xabi (Oñati). Argazkian, Aner jaioberria, sehaskan lo.



**Galder Ibabe Sanchez**
Aretxabaleta > 3,950 kilo. Ekainaren 7an. Gurasoak: Ros (Aretxabaleta) eta Jon (Aretxabaleta). Argazkian, Galder jaioberria, sehaskan lo.



**Ariane Bartolome Torres**
Aretxabaleta > 3,130 kilo. Ekainaren 9an. Gurasoak: Sandra (Aretxabaleta) eta Iosu (Aretxabaleta). Argazkian, Ariane jaioberria.

BABESLEA


Lazarraga 4 OÑATI 943 08 23 32

Goienkaria ASTELEHENEKO
EGOITZA NAGUSIA
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
Harpidetza: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
2009-06-15

**Marian Beitialarrangoitia** > Hernaniko alkatea eta kazetaria

# "Ezingo nuke asteburua Hernanitik kanpo egin"

**JON BEREZIBAR** > ARRASATE

**Kazetari bat galderei erantzuten jartzea ez da erraza baina alkate izendatu zutenetik makina bati erantzun behar izan die Beitialarrangoitiak. Asko, gainera "maltzurkeriaz" egindakoak. Egin Irratian eta Euskadi Irratian ahotsa ezagun egin eta orain bere aurpegia Hernanirekin lotzen dugu. Erantzun sendo eta argiak eman ditu, haren sinesmenen modukoak.**

**Oso kaletarra izan ei zara beti. Alkate zarenetik orain ezkutatzea tokatzen zaizu?**

Inola ere. Astelehenetik ostiralera udaletxetik etxera eta etxetik udaletxera nahikoa lan dut, baina niretzat ostiraletako kalebuelta oso garrantzitsua da lagunekin egoteko. Egia da jende asko etortzen zaidala kalean galdezka ea momentu bat ba ote dudan. Egia esan erantzun beharko nioke lanorduak bukatu direla eta atsedena behar dudala, baina ez zait ateratzen. Hori horrela da, baina ezingo nuke asteburu bat pasatu Hernanitik kanpo. Oporretan joaten naizenean ere 15 egun baino gehiago zaila egiten zait. Herri-mina izaten dut. Kaletarra ez dakit, jende-arte zalea naiz ni zerbait izatekotan.

**Gaur zuriz zatoz, baina jaka gorria izan da zeure ikurra.**

Egia esan gorria oso gustuko dut, baina beltza da nire kolore nagusia. Epaiketa famatu horren egunean ere azpitik erabat beltzez nindoan. Madrilera joandako azkeneko aldian morez joan naiz, baina barrutik beltzez.

**Gorria eta morea. Ez esan ez zenituela nahita aukeratu.**

Noski nahita joan nintzela horrela. Garbi neukan saio bakoitzera kolore ezberdin batekin joango nintzela. Aurretik urdinez joan nintzen, ze Madrilera hirutan joan naiz. Eta dirudienez, jendea nahiko adi ibiltzen da ni nola joaten naizen Madrilera. Arropa, hala ere, ez da nire zaletasunetako bat. Nahi dudana etxera bertara ekarriko balidate, dendetara joan ere ez nintzateke egingo. Gorria nire izaerarekin oso bat doan kolorea da. Asko gustatzen zait duen bizitasuna, nire konbikzioekin oso lotua dago.

**Nola darama kazetari batek orain galderak erantzuten jardun behar izate hori?**

Ba ez da erraza. Galdera zailak batez ere izaten dira min egiteko egiten diren horiek eta zuk esan nahi ez duzun horren bila doazenak. Orain ohitu egin naiz, baina, hala ere askotan galdetu izan diot nire buruari: Zer egiten duzu zuk hemen galderei erantzuten, zure galderak egitea tokatzen zaizun honetan. Lanbidea ezagutzea ere abantaila da.

TEST-A

**Herria:** Legazpi. **Adina:** 41 urte. **Zaletasun bat:** Irakurtzea. Oso literatura zalea naiz. Liburuzain izateko puntuan izan nintzen. **Ihes egiteko leku bat:** Mendira. Berdin zait guztiz laua bada ere, baina menditik edo itsasoaldetik bueltа bat ematea beharrezkoa izaten dut. **Sagardoa gustuko?** Bai, baina Hernanin astean zehar joaten gara sagadotegietara. Familia giroa egoten da. **Kolore bat:** Beltza batez ere, baina gorria eta zuria ere.



ESATARI Dioenez, irratira itzuli egingo da Beitialarrangoitia. JON BEREZIBAR

## ai, ene!



### Ezkontza tarta bitxia

Ez, goikoa ez da AEBetako hiri bateko argazkia edo maketa. *Regreso al futuro* film ospetsuan oinarrituta, Atlantan egin duten ezkontza tarta da. Ez dakiguna da ezkonberriek denboran atzera edo aurrera egin nahi izango duten...

http://tinyurl.com/ksrlyy

## biharamuna

Oier Bolibar

### Gehiegikeriak

Aurreko baten idatzi nuen orduan sufritzen hasiak ginen, eta garai hartan imajinatzen ere ez genuen, dimentsioa hartu duen krisiaren inguruan, gerora ezaguna egin den Leopoldo Abadiaren artikulua oinarri gisa hartuz.

Ordutik hainbat aldiz entzun izan dugu krisi honen jatorria ez dagoela ekonomia arrunt kaotikoan ematen diren kontsumo jaitsiera ziklikoetan, finantza erakundeek egindako handikeri eta gehiegikerietan baizik. Krisi guzti honen jatorria, muina, merkatuak izandako, eta artean ere duen, likidezia faltan dago. Oraindik ordea ez dugu honi mugarik jarriko dion ekintzarik ikusi, eta gauzek oraindik bere horretan darraie.



Nola daiteke egungo egoera ikusita eta maila guztietan jasaten ari garen likidezia falta horren ondorioak ikusita, larruzko pilota bati ostikoak emango dizkion *produktu* batengatik 94 miloi euro ordaindu izana? Nola daiteke gutxi batzuek besterik aberasten ez diren futbola deitzen den kirol baten, taldeen zorrak iritsi diren mailetara iritsi izana? Beste behin, gutxi batzuek aberastu, baina betikook ordainduko ditugun gehiegikeriak.

## eguraldia



| MAXIMOA | MINIMOA |
| --- | --- |
| +21 | +15 |

Astelehenean ezegonkortasuna nabaria izango da. Zaparradak edonoiz botako ditu, tarteka trumoiak ere joko du txingorrarekin.

www.euskalmet.net





Euskal soinu eta irudiak zure eskura!

SOINUAK: Bidali, SOINUE hutsunea KODEA
ABESTIAK: Bidali, SOINUP hutsunea KODEA
LOGOAK: Bidali, SOINUL hutsunea KODEA
JOKOAK: Bidali, SOINUJ hutsunea KODEA

5767 zenbakira

SMS bakoitzeko: 1,2 € + BEZa

smsoinu
Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

ABESTIAK POLIFONIKOAK (SMS 1)
Abestiaren izena (Abeslaria) | KODEA

Himnoak
Eibar | EIBAR
Athletic Club | BILBAO
Osasuna | OSASUNA
Reala | REAL
Real Union | UNION

Folk
Arratsalde honetan (Sorotan Bele) | SOROTAN
Bai euskarari (Pantxoa) | BAI1
Bakezaleak (Anje Duhalde) | BAKE
Bizkaia Maite (Benito Lertxundi) | BIZKAIA
Eperrak (Anje Duhalde) | EPERRAK
Euskal Herrian Euskaraz (Oskorri) | EUSKAL
Euskaldun berriaren balada (Oskorri) | EUSKALDUN
Ez da posible (Ruper Ordorika) | POSIBLE
Furra Furra (Oskorri) | FURRA
Galiziara noa (Oskorri) | GALIZIARA
Gernikako Arbola (Gontzal Mendibil) | GERNIKA1
Haika Mutil (Mikel Laboa) | HAIKA
Izarren hautsa (Xabier Lete) | IZARREN
Lepoan hartu ta (Pantxoa/Peio) | LEPOAN
Marinelaren zai (Sorotan Bele) | MARINE
Nere herriko neskatxa maite (B.Lertxundi) | NERE
Non geratzen den denbora (Mikel Urdangarin) | NON
Oi! Ama Euskal Herria (B.Lertxundi) | OIAMA
Tirauki (Oskorri) | TIRA
Txatxamatxalinatxu (Mikel Urdangarin) | TXATXA
Txoria txori (Mikel Laboa) | TXORIA
Zaindu maite duzun hori (Ruper Ordorika) | ZAINDU

Herrikoia
Bagare | BAGARE
Desde Santurce a Bilbao | DESDE
Ikusi Mendizaleak | MENDI
Pintxo-pintxo | PINTXO
San Simon eta San Judas | SAN

SOINUAK ERREALAK (2 SMS)
Abestiaren izena | KODEA

1,2,3,4…Real!! | REAL
Alboka | ALBOKA
Athletic Iuep!! | IEUP
Buztan bertsoa | BERTSO
Hartu…Aitaren ta semea.. | AITAREN
Hartu…Ansar | ANSAR
Hartu…Argentinarra | ARGEN
Hartu…Mexikarra | MEXIKO
Hartu…Miamol! | MIAMOL
Independentzia! | INDEPEN
Irrintzia | IRRINTZI
Jotake irabazi arte! | JOTAKE
Milazu! (pilota) | MILAZU
Suprinua | SUPRINU
Tobera | TOBERA
Txalaparta | TXALA
Txanbela | TXANBERA
Txoootx | TXOTX

LOGOAK (SMS 1)
KODEA

LAU1 MUSKARIA AIZKORAK
NUKLEAR KALABERA1 EGUZKILORE3
SORGIN POPATIK KAPUTX

OHARRAK
1.BATERAGARRITASUNA: Begiratu zure poltsikoko telefonoa bateragarria den eskaintzen ditugun produktuekin, helbide honetan: www.smsoinu.com/bateragarri
Bertan jasoko duzu beharrezko duzun informazio guztia.
2. BALDINTZAK: Edukiak eskuratzeko, beharrezkoa da GPRS sistema aktibatuta izatea. GPRS sistema aktibatzeko, jar zaitez zure hornitzailearekin harremanetan. Alta ematea doan da eta Kb jaitsiera bakarrik ordaindu beharko duzu. Kasu guztietan deia eta GPRS sisteman alta ematea doan dira.
* Euskaltel: deitu 900 84 02 00 telefonora./ * Vodafone: deitu 123-ra./ * Movistar: deitu 609-ra.
3. ZALANTZAK: Edozein zalantza duzula, jarri gurekin kontaktuan: smsoinu@smsoinu.com / edo deitu 902 01 21 48 telefonora.
4. PERTSONALIZAZIOAK: Zure neurrira egin ditzakegu abesti eta logoak. Webgune honetan kaleratu eta erabiltzaileek eskura dezatela nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan eta deitu 902 01 21 48 telefonora.